

USURBILGO II. ADIKZIOEN TOKIKO PLANA 2019-2023



agipad

Sarrera

Tokiko Plana herri mailan droga-mendekotasunen aurrean eman diren erantzunaren oinarriak zeintzuk diren adierazten dituen irizpideez osatuta dago. Bere helburua sektore ezberdinen koordinazio eta planifikazioa da, mendekotasunei dagokienez, esku-hartzeetan eraginkortasun eta efizientzia indartu eta honek emaitza positiboak eman ditzan prebentzio arloan.

Beharrezkoa da ekintzak planifikatu eta programatzea inplikaturik dauden eragile guztiek jarrai ditzaten, herriak dituen behar eta zailtasunak egin daitezkeen diagnostikotik haratago.

Herri mailako prebentzio plan bat edukitzeak herriari hauen aurrean ekitea errazten dio, badauden baliabideak koordinatu, ekintzak planifikatu, arlo ezberdinetako profesionalen planifikazioa erraztuz, plana droga-mendekotasunak haratago doazen mendekotasunen inguruko errealitate berriaren egokitzapena errazteko.

Hemen mahaigaineratzen denarekin aldatu edo hausnartu nahi diren errealitateak honakoak dira:

- Gazteek daukaten arrisku pertzepzio baxua, batez ere sozialki dagoen permisibitatea dela eta, batez ere alkohola eta kanabisari dagokionez. Bestalde, noizbehinkako kontsumoak, asteburuetan egiten direnak batez ere, inongo arriskurik ez dutela adierazten dute, azkenean kontrolatzen dutenaren sentsazioa izaten baitute.
- Helduek eta gizarteak duten arrisku pertzepzio baxua.
- Sustantziak eskuragarri daude.
- Jokaerazko adikzioen aurrean egiten den esku-hartzearen handitzea.

Espainiako Udalerri eta Probintzien federazioak (FEMP), udalerrien planen lanketarako duen gidaliburuan (2001), mendekotasun plan batek honako hau ezartzen du:

- Tokiko korporaziotik bideratutako tresna bat da eta egiten diren ekintza eta programei egonkortasuna ematen die.
- Erantzuna ematen ahalegintzen garen beharrak ezartzeko erabilgarria izan behar zaigu plana, baita mendekotasunen fenomenoak aboratzeko jokabidezko printzipio orokor eta espezifikoak ezartzeko.

- Lanketaren hasierako fasetik, ahalik eta erakunde eta administrazio gehienen parte-hartzea bultzatu behar da, egoeraren analisi egoki bat egiteko.
- Mendekotasunen fenomeno integrala abordatzeko helburua izango dute planek.
- Egoera sozialari egokitzen den baliabide dinamiko bat izan behar du.
- Udalerrietako mendekotasunen planek tresna elkartuak izan behar dute. Maila desberdinetako mendekotasunei koherentzia emateko gai direnak.
- Prozesuaren eta emaitzen ebaluaketa jarraitua egitea beharrezkoa da.

Mendekotasunei dagokien arautegi-esparrua bete behar du mendekotasunen planak: nazioarteko arautegia, estatukoa, autonomikoa eta tokikoa. Horregatik, gure autonomia erkidegoko mendekotasunen planean azaltzen diren bide estrategikoak kontuan hartu behar ditu.

Ezinbestekoak diren esku-hartzeko irizpideak:

- Osotasuna
- Normalizazioa
- Diziplinartekoa
- Jasangarritasuna

Hauek dira mendekotasunen prebentzioa lantzen duen Tokiko Plan batek ezinbestekoak dituen baldintzak:

- Udaletxearen konpromiso politikoa.
- Udalerriaren eremu arduraduna zehaztu.
- Programa bultzatuko duten batzordeko arduradunak izendatu.
- Inplikaturako eragile sozial ezberdinekin koordinatu: Osasungintza, gazteria, hezkuntza, gizarte zerbitzuan, Ertzaintza eta komunitatea.
- Egoeraren diagnostiko bat egin.

AURKIBIDEA

1.1. Oinarriak eta esparru teorikoa	4. orrialdea
1.2. Arautegi-esparrua	6. orrialdea
1.3. Diagnostikoa eta beharren hautematea	
- EUSTAT	19. orrialdea
- ESTUDES 2016-2017	23. orrialdea
- EDADES 2015	31. orrialdea
- AGIPADek eginiko ekintzen laburpena	
• Eztabaida taldea	42. orrialdea
• Udarregi Ikastola	48. orrialdea
• HitzAho guraso taldea	51. orrialdea
• Ziortzako Hezitzaileak	52. orrialdea
• Usurbileko Lanbide Hastapena	54. orrialdea
• Zubietako Festa Batzordea	56. orrialdea
• Gizarte Zerbitzuak	60. orrialdea
• Usurbilgo Gaztelekua	61. orrialdea
• Udaltzaingoa / Ertzaintza	62. orrialdea
• SASOIA (Testinga Santa Ixabel festetan)	64. orrialdea
- Ondorioak eta beharrak	70. orrialdea
1.4. Planaren zereginak eta helburuak	75. orrialdea
1.5. 2019-2023rako mendekotasunen Prebentzio Planaren Programak : Egitura eta Ekintzak	
- Prebentzio Unibertsaleko Programak	79. orrialdea
Kronogramak	90. orrialdea
- Prebentzio Selektiboko Programak	97. orrialdea
Kronogramak	103. orrialdea
- Prebentzio Egokitua	107. orrialdea
Kronogramak	108. orrialdea
- Prebentzio Zehatza	109. orrialdea
- Zeharkako jarduera estrategiak	109. orrialdea
1.6. Ebaluatzeko adierazleen definizioa	111. orrialdea


1.1 Oinarriak eta esparru teorikoa

Drogen eta mendekotasunen fenomenoak, dimentsio eta jatorri anitzeko fenomenoak dira. Fenomenoarekin eta bere eratorriein koherentea den politika bat garatzeko, ezinbestekoa da ikuspuntu ezberdinak aintzakotzat izatea ikuspuntu orokor bat lortzeko, baita ekintza hauetan nolabaiteko ardura duten eragileen arteko beharrezko lankidetzak gauzatzeko.

Drogen kontsumoaren bilakaerak, gizarte kutsuko eta faktore ekonomiko anitzengatik baldintzatuta den fenomeno dinamiko bat eratzen du herrialde bakoitzean, nazioarteko eta tokiko jatorri eta dimentsioekin. Lurralde-eremu guzti hauetan, substantzi psikoaktibo ezberdinen kontsumoak duen eragina altua izaten jarraitzen du, bai ekidin daitezkeen sufrimendu eta ezgaitasun pertsonalen eremuan, baita erikortasun, hilkortasun eta bestelako gizarte eta osasun-sistemako kostuetan ere.

Arazo honen konponbidean aurrera egiteko, gizarte osoaren ardura eta herritarren parte-hartzea ezinbestekoak dira. Bakarka eta taldeka arduratsu jokatzeko baino ez gara gai izango gaur egun dauzkagun jarrerak eta ohiturak baztertu eta drogetatik aske biziko den gizarteak sortzeko.

Drogei aurre egiteko programen funtsean dagoen eredu teoriko orokorra droga kontsumoaren etiologiari buruzko ezagupenean oinarritzen da. Eta sinplifikatzea bada ere, gaia modu laburrean azalduta, hiru ardatz nagusitan bildu dezakegu: 1) Pertsona batzuek besteek baino joera handiagoa dute substantziak hartzen hasteko eta horretan jarraitzeko. 2) Badago bilakaera bat, legeko drogak hartzetik legez kanpokoak hartzera bultzatzen duena, eta lehenengoak hartzen dutenak dira batez ere bigarrenak hartzera pasatzen direnak. 3) Aldagai sozio-kulturalek, biologikoek eta psikologikoek eragina dute substantzia batzuk hartzen hasteko, jarraitzeko eta legez kanpokoak hartzen hasteko bilakaeran. Teoria-eredu desberdinek, funtsean, aldagai desberdinak aztertu dituzte, partzialki edo modu adikorrean, pertsona batzuk kontsumoan zergatik erortzen diren eta beste batzuk zergatik ez ulertzerantz iristeko. Hori jakin eta gero, arazoari aurre egiteko estrategia egokiak aplikatu ahal izango ditugu, kontsumoa ekiditeko edo geldiarazteko zein kontsumoarekin lotura duten arazoak saihesteko prebentzioa aplikatuz.



1.2 Arautegi-esparrua

Udal plana diseinatu eta martxan jartzerako orduan kontutan hartu behar ditugun oinarritzko legeak honako hauek izango lirateke, hasiera batean 4ak aipatu eta ondoren sakondu egingo ditugu. Usurbileko Udalak, nahiz eta udal-ordenantza propioak eduki, adikzioen gaiaren inguruko arau propiorik ez du, ezta bertan eragin dezakeen inongo aipurik, hau horrela, lege orokorra da (guztioi eragiten diguna) hemen agertuko duguna, errealitate legala zein den ikusteko.

1) 18/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa.

2) 28/2005 LEGEA, abenduaren 26koa, Tabakismoaren aurkako osasun neurriei eta tabako produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen duena.

3) 12/2008 LEGEA, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa

4) 1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa:

1) 18/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa:

1988az gero indarrean zegoen drogamenpekotasunen arloko Legearen lekuan onartu zen. Lege honen bidez, euskal gizarteari drogamenpekotasuna ulertzeko eta drogamenpekotasunetan eragiteko modu bat proposatzen dio, elkarte-estrategia deitutakoa, ezaugarri berezi gisa drogamenpekotasunei erantzun global eta normalizatua ematea eta drogamenpekotasunei irtenbidea emateko ekimenak planifikatzea eta herritarren parte hartzea nahita nahizkoak direla oinarritzko irizpidetzat hartzea dituen. Hona hemen legeak biltzen dituen aspektu nagusienak:

1.1) PREBENTZIOA EDO AURREZAINZAREN INGURUAN

3. ARTIKULUA.– Helburu orokorrak.

- *Aginte publikoen eginkizuna da, bakoitzaren eskumenen barruan, ondorengo helburuak dituzten programak eta jarduerak garatzea, sustatzea, laguntzea, koordinatzea eta kontrolatzea:*

- a) Herritar guztiei drogei buruzko informazio egokia ematea.*
- b) Herritarrei osasunarentzat mesedegarriak diren ohiturak sortzeko heziketa eskaintzea. Hezkuntza-programa horietan bereziki kontuan hartua izango da gazteria.*
- c) Drogamenpekotasunei aurea hartzeko profesionalak prestatzea.*
- d) Menpekotasuna eragin dezaketen gaiak kontsumitzea ekar dezaketen gizarteko baldintzetan parte hartzea; bereziki kontuan hartuko da emakumeek eta gizonek drogak kontsumitzea dakarten eragileak ezberdinak direla. Kontsumo horren ondorioak ere kontuan hartuko dira.*
- e) Elkarte-aurrezaintzako programak abian jarri eta garatzea bultzatzea, drogamenpekotasunei aurea hartzeko politikak eraginkorrak izateko.*
- f) Drogak kontsumitzearen ondorioz osasunari eragin daitezkeen kaltea saihesteko neurriak hartzea, kontuan izanik kalte hori kontsumitzaileak eta kontsumitzaile ez denak ere jasaten duela.*
- g) Gizartean drogak agertzea, sustatzea eta saltzea alde batera uztea eta, bestela, mugatzea.*
- h) Administrazio publikoen eta arazo honekin zerikusia duten gizataldeen artean, droga-kontsumoa aurrezaintzea xede izango duten jarduerak koordinatu eta bultzatzea.*

4. ARTIKULUA.– Elkarte-aurrezaintza.

- *Udalek Drogamenpekotasunen Udal Plana idatziko dute, lege honetako 36.4 artikuluan erabakitakoaz bat eta erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.*

- *Horretarako:*

a) Drogamenpeketasunei aurrea hartzeko elkarte-aurrezaintzarako programak garatzea bultzatuko dute.

b) Lege honetako 37.1 artikuluan araututako Drogamenpeketasunen Planetik sortutako aurrezaintzako programak eta jarduerak bultzatu, koordinatu eta, beharrezkoa bada, betearaziko dituzte ikastetxeetan, gazte-, kultur eta kirol-elkarteetan eta profesional-taldeetan, bai eta lantokietan ere.

c) Drogamenpeketasunaren arloan, gizarte-ekimenarekin eta boluntarioekin elkarlanean jardutea bultzatuko dute, lege honetako IV. kapituluko 3. atalean erabakitakoaz bat.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak udalekin elkarlan egokian jarduteko bideak jarriko ditu, hain zuzen ere drogamenpeketasunen elkarte- aurrezaintzako ekintzak aurrera eraman ahal izateko

1.2) DROGAMENPEKOTASUNA DUTENEI LAGUNTZEA ETA GIZARTERATZEA

26. ARTIKULUA.– Irizpide orokorrak.

- Aginte publikoen eginkizuna izango da, bakoitzak bere eskumenen esparruan diharduela, Euskal Autonomia Erkidegoan drogamenpeketasuna dutenei zuzenduta burutzen diren ekintzek ondorengo helburuak izango dituztela ziurtatzea:

a) Drogamenpeketasuna dutenek jasotzen duten osasun eta gizarte arloko laguntza gainerako herritarrek jasotzen dutena bezalakoa izatea.

b) Laguntza hori osasun-zerbitzuek eta gizarte-zerbitzuek elkarrekin koordinatuta eskaintzea.

- Drogamenpeketasuna dutenei laguntza eskaintzen zaien guztietan (osasun-zerbitzuen edo gizarte-zerbitzuen bidez), ondorengo legeek ezarritako eskubide eta betebeharrak betetzen direla bermatuko da. Hona legeak: apirilaren

25eko 14/1986 Legea, Osasunaren Lege Orokorra; uztailaren 26ko 8/1997 Legea, Euskadiko Osasun Antolamenduarena, eta urriaren 18ko 5/1996 Legea, GizarteZerbitzuena.

1.3) GIZARTERATZEA

33. ARTIKULUA.— Oinarrizko printzipioak eta jarduteko irizpideak

- Drogamenpekotasuna dutenez dituzten gizarteko premiei erantzuteko eginkizuna eta pertsona horiei gizarteratzen laguntzeko neurriak aurrera eramateko eginkizuna gizarte-zerbitzuena izango da, eta gizarte-zerbitzuek lan hori urriaren 18ko 5/1996 Legean, Gizarte Zerbitzuenean, orokorrean jasotako printzipioekin bat eraman beharko

dute aurrera.

1.4) ERAKUNDE ANTOLAMENDUA ETA GIZARTE EKIMENAREN SUSTAPENA

36. ARTIKULUA.— Eskumenak.

- Lege hau aplikatzearen ondorioz burutu behar diren jarduera publikoak eta arau-garapena Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek burutuko dituzte, zeinek bere eskumenaren arabera, hezkuntzan, kulturen, herri-segurtasunean, merkataritzan, osasunean, gizarte-zerbitzuetan eta abarretan.

– Edonola ere, Eusko Jaurlaritzaren esku geratuko da lege honetan arauturiko jardueren plangintza eta koordinazioa egitea.

– Foru-aldundien esku geratuko da drogamenpekotasunei aurrea hartzeko programak eta gizarteratzeko jarduerak prestatu eta garatzea, lege honen 37.1 artikuluan arauturiko Drogamenpekotasunen Planean jasotako xedapenei jarraiki.

– Udalei, banaka edo partzuergoan, Drogamenpekotasunen Udal Plana prestatu eta garatzea dagokie, 37.1 artikuluan arauturiko Drogamenpekotasunen Planean jasotako xedapenei jarraiki.

37. ARTIKULUA Plangintza.

– Eusko Jaurlaritzak Drogamenpekotasunen Plana egin eta Eusko Legebiltzarrari bidaliko dio osoko bilkuran edo batzordean eztabaidatzeko komunikazio gisa, hiru urtean behin, onar dezan. Plan horretan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek epealdi jakin batean burutu behar dituzten programak eta ekintzak jasoko dira modu koordinatu eta orokorrean. Jarduera horiek aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeko arlokoak izango dira, eta arlo horietan diharduten administrazio eta elkarteei aukera

emango zaie, plana prestatu bitartean, beren iritziak azaltzeko. Eusko Jaurlaritzak urtero bidaliko dio txosten bat Legebiltzarrari planaren ebaluazioarekin.

– 36.4 artikuluan arauturiko Drogamenpekotasunen Udal Planean programak eta ekintzak jasoko dira egoki antolatuak. Programa eta ekintza horiek drogamenpekotasunen arloari dagozkion gizarte-ekimeneko egiturek estrukturatuak eta planifikatuak egongo dira eta egitura horien aholkularitzaz eratuak, dagokien udal-esparruan eta Drogamenpekotasunen Planari buruzkoan.

42.ARTIKULUA.– Drogamenpekotasunen tokiko batzordeak. Foru-aldundiek eta udalek, zeinek bere eskumenaren barruan, drogamenpekotasunen foru batzordeak eta udal batzordeak eratu ahal izango dituzte. Batzorde horiek Drogamenpekotasunen Aholku Batzordearen eginkizunen antzekoak izango dituzte.

54. artikulua.– Erabakia hartzeko eskumena duten organoak.

– Zigortzeko ahalmena hurrengo organo hauei ematen zaie:

a) Alkateei, hurrengo artikuluetan ezarritakoa ez betetzeagatik jarritako zigorra dela—eta

b) Drogamenpekotasunen arloan eskumena duen saileko organoari

c) Osasun Saileko dagokion organoari, hots, 31.1 artikuluan ezarritakoa ez betetzeagatik zigorra jartzea dagokion organoari.

d) Gobernu Kontseiluari, 15.000.000 PTAtik gorako isunak ezartzea, eta establezimendua, zentroa, lokala edo enpresa, erabat edo zati batean, aldi baterako ixtea.

2) 28/2005 LEGEA, abenduaren 26koa, Tabakismoaren aurkako osasun neurriei eta tabako produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen duena:

Legeak, bost artikulua nagusi bereizten ditu, xedapen orokorren erregulazioa, tabakoaren produktuen salmenta, horniketa eta kontsumoa; publizitatea, sustapena eta babesaren erregulazioa, tabakismoaren prebentziorako neurriak, osasunaren promozioa eta erretzeari uzteko erraztasunak, baita arau-hauste eta zigorrak. 1go kapitulua xedapen orokorretan datza, objektua mugatzen du eta definizioez baliatuz, legeak jasotzen dituen

funtsezko kontzeptuak. II. kapituluak tabakoaren produktuen salmenta, horniketa eta kontsumoa erregulatzen dira.

III. kapituluak Kontseilu eta Europako Parlamentuko 2003/33/CE "Direktiba" eranstean du gure ordenamendura, 2003ko maiatzaren 26koa, Estatu kideek tabakoaren produktuen publizitate eta sustapenaren inguruan dituzten lege-mailako, erregelamenduzko eta administrazio-xedapenen hurbilketa egiten du. Legea ez da, araudi komunitarioaren transposizioa egitera mugatzen soilik, baizik eta produktu, ondasun edota zerbitzuen doako banaketaren debekua erregulatzen du, baita tabakoaren produkturen baten sustapenerako den edozein helburu edota ondorio zuzena edo zeharkakoa, nagusia edo bigarren mailakoa; baita tabakoaren produktuen edozein publizitate mota, sustapen eta babes komunikabide guztietan, informazio gizartearen zerbitzuak barne, salbuespen batzuekin.

IV. kapituluak tabakismoaren prebentziorako neurriak eranstean ditu, osasunerako hezkuntza eta informazio sanitariorako jarduerak bultzatuz. Tabakoa uzteko programen sustapena ere biltzen da bertan, Estatuko Osasun Sistemako asistentziako sarean. Tabakismoaren prebentziorako Behaketa sortzen da, legea hobeto betetzeko. Legea osatzeko, V. Kapituluak arau-hauste eta zigorren erregimen zehatza jasotzen da, eskuduntza zigortzaileak argi eta garbi zehaztuz.

3) 12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa:

Lege honek ez ditu zehazki drogen mendekotasunak arautzen, baina herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzen duen legea denez, drogen arloarekin sare elkarlana bultzatzen du.

Honela, adibidez, 6. artikuluan, helburuetako batzuk, babes gabetia-egoerek eragiten dituzten beharrezkoak aurre hartu eta erantzutea da. Beste bat, bazterketa-egoerei aurre hartu eta erantzutea, eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

Horretarako, 3. Atalean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak bermatu behar dituen prestazio eta zerbitzuen katalogoa eta kartara adierazten dira. Besteak beste, jasota dauden zerbitzu eta diru-laguntzen artean, gaueko harrera-zentroak daude, ostatu-zerbitzuak, bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak, familian esku hartzeko eta bitartekaritza egiteko zerbitzuak...

4) 1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa:

1. ARTIKULUA

- *Lege honen bidez arautu nahi dira adikzioen gaian, hala droga-mendekotasunetan nola jokabide-adikzioetan, hartu beharreko arreta integraleko neurri eta ekintzak honako arlo hauetan: osasunaren sustapena, prebentzioa, eskaintzaren murrizketa, asistentzia, gizarteratzea, prestakuntza eta ikerketa eta erakunde-antolakuntza. Halaber, ekintza batzuk arautzen dira, hirugarren pertsonak babesteko bai drogak eta adikzioa eragin dezaketen beste substantzien kontsumoak bai jokabide-adikzioek sorraraz ditzaketen kalteetatik. Bereziki aintzat hartuko dira adingabeak eta gazteak, baita kalteberatasun bereziko egoeran dauden pertsonak ere.*

OSASUNAREN SUSTAPENA ETA ADIKZIOEN PREBENTZIOA

8. ARTIKULUA

- *Osasuna sustatzeko eta adikzioei aurrea hartzeko jarduerak lehenetsiko dira eta lehentasuneko ekintza-eremutzat hartuko dira.*

9. ARTIKULUA

- *Osasunerako hezkuntza oinarritzko estrategia bezala.*

11. ARTIKULUA

- *Ikuspuntu indibidualetik zein komunitariotik, erabilera eta jokabide arduratsuak eta osasunaren kultura sustatzea.*

12. ARTIKULUA

- *Osasuna sustatzeko garatzen diren jarduerak herritar guztiei zuzenduko zaizkie, eta arreta berezia jarriko da adin txikikoengan eta gazteengan eta pertsona eta kolektiborik ahulenetan.*

13. ARTIKULUA

- *Administrazio publikoek prebentziozko neurriak ezarriko dituzte, dagozkien eskumenen esparruan eta, oso bereziki, osasunaren, gizarte-zerbitzuen eta hezkuntzaren sistemetan, herritarrak sentsibilizatu eta informatzeko.*

- Botere publikoek, haiei dagokien jarduera-eremuen barruan, prebentziozko jarduerak bultzatuko dituzte bizi-baldintzak hobetzeko, adikzioetan eragiten duten bazterkeria-faktore pertsonal, familiar edo sozialak gainditzeko eta egoera horrek eragiten dien pertsonak era normalizatuan gizarteratu daitezen errazteko.

15. ARTIKULUA. Prebentzioa familiaren esparruan.

- Programa batzuk erabiliko dira gurasoak edo tutoreak sentsibilizatze aldera, ohar daitezen zer-nolako garrantzia duen beren rola haurtzaroaren eta nerabezaroaren garaian babes-faktoreak sustatzeko orduan.

16. ARTIKULUA. Prebentzioa esparru komunitarioan

- Lehentasunezkoa izango da eta biltzen ditu populazioan edo interes handiko taldeetan eragin handiena duten baliabideak eta pertsonak, hala nola ikastetxeak, gizarte- eta kultura-zerbitzuak, gazte-, kultura-, kirol- eta boluntariotza-elkarteak, profesionalen kolektiboak eta lantokiak. Udalek eta mankomunitateek, haien eskumenen arabera, egingo dute.

17. ARTIKULUA. Hezkuntzaren esparruan

- Adin guztietako ikasgelak informatu eta sentsibilizatzea substantzien kontsumoari eta neurrigabeko portaerei lotutako arriskuei buruz, Kurrikulumean adikzioei buruzko gaiak sartzea, gurasoei eta irakasleei zuzendutako prestakuntza programak garatzea. Tokiko adikzioen planetan aurreikusitako jarduerak koordinatuko dira.

18. ARTIKULUA. Prebentzioa arrisku handiko egoeretan dauden adingabeen eta gazteen eremuan.

- Haien egoerara egokiturako prebentzio- eta interbentzio-programak garatuko ditu. Ahal dela, esku-hartzeak adingabearen familiarekin egingo dira, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuekin koordinatuko dira.

22. ARTIKULUA. Prebentzio kirol, aisia eta denbora librearen esparruan

- Denbora librea erabiltzeko ereduaren inguruko politika integrala sustatuko dute, substantzien kontsumoaren, jokabide adikzio-eragileen eta jokabide-adikzioak sor ditzaketen beste arrisku edo portaera neurrigabeen ordezkariak aukerak eskaintzeko, bereziki gazte eta nerabeen artean.

ESKAINTZAREN MURRIZKETA

26. ARTIKULUA

- Publizitatea ezingo da adingabeei eta haurdunei zuzenduta egon, eta bertan ezin izango dira adingabeak edo haurdunak edari alkoholodunak kontsumitzen agertu.

27. ARTIKULUA

- Edari alkoholodunen gehiegizko kontsumoa eragin dezaketen sustapenak debekatuta egongo dira; batez ere, edari alkoholodunak bertan kontsumitzeko saltzen diren establezimenduen barruan egindako eskaintzak, sariak, zozketak, konkurtsoak edo prezio-murrizketak.

28. ARTIKULUA. Edari alkoholodunen publizitatea egitea barruan eta kanpoan

- Debekatuta egongo da 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholodunen kanpoko publizitatea egitea. Gainera debekatuta egongo da edari alkoholodunen kanpoko publizitatea Haur Hezkuntzako eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen sarrerako atetik 100 metro linealetik behera dagoen distantzia batera kokatutako euskarrietan.

30. ARTIKULUA

- Debekatuta egongo da edari alkoholodunen publizitatea egitea hezkuntzako edo gizarteko ekitaldietan edo haiek babestekoetan.

- Debekatuta egongo da kirol- edo kultura-ekitaldietan eta haiek babestekoetan 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholodunen publizitatea egitea.

31. ARTIKULUA. Edari alkoholodunen banaketa eta salmenta

- Debekatuta dago adingabeei edari alkoholodunak saltzea.

- Debekatuta dago alkohola saltzea: 18 urtera arteko ikasleentzako ikastetxeetan, kirol-lehiaketak egiten diren instalazioetan eta zentro sanitario, soziosanitario eta zerbitzu sozialetakoetan, kalean, salbu eta udalek baimendutako terrazetan, mahai hankabakarretan edota ekintza eta jardueretan.

- Alkohola saltzen EZ den lokaletan debekuaren berri agertuko da. Saltzen lokaletan, adingabeei saltzeko debekua agertu beharko da.

32. ARTIKULUA. Edari alkoholodunak zerbitzatzen diren establezimenduetan sartzea eta egotea

- Debekatuta egongo da 16 urte baino gutxiagokoak edari alkoholodunak zerbitzatzen dituzten establezimendu publiko itxietan sartzea eta egotea, hala nola tabernetan, dantzalekuetan, diskoteketan, ikuskizunetan, jolas-areto publikoetan eta, oro har, edari alkoholodunak saldu edo

kontsumitzen diren leku edo establezimendu guztietan, baldin eta guraso, tutore edo arduradunekin ez badaude.

33. ARTIKULUA

- Debekatuta egongo da 18 urtez azpiko pertsonen edari alkoholduak kontsumitzea

34. ARTIKULUA

- Debekatuta dago tabako-produktuen publizitate guztia, kasu zehatzak izan ezik

38. ARTIKULUA

- Tabako produktuen txikizkako salmenta eta banaketa tinbre-saltokien sarean edo tabako makinaren bitartez baino ezin izango dira egin.

- Debekatuta dago 18 urtetik beherako pertsonei saltzea edo banatzea.

40. ARTIKULUA

- Baita ere kirol-instalazioetan, baita erantsitako eremu itxi, erdi-itxi eta aire zabalekoetan ere. Aire zabaleko gune horietan ostalaritzako espazioen ondoko gelak jarri ahal izango dira, behar bezala mugatu eta seinalatuko direnak.

- Debekatuta egongo da erretzea erabilera publikoko gune itxi eta erdi-itxi guztietan eta herri-tarrentzat zabalik dauden edo erabilera kolektibokoak diren lekuetan, titulartasuna publikoa zein pribatua izan.

- Nikotina aske dezaketen gailuak: tabakoa bezala jartzen dute legeari begira.

JOKAERAZKO-ADIKZIOAK

50. ARTIKULUA

- Nahitaezkoa izango da joko-establezimenduetan eta joko-makinak dituzten ostalaritzako establezimenduetan informazio argia eta zehatza ematea erabiltzaileek jakin dezaten jokoak ez dela diru-iturri edo ogibide bat.

- Establezimenduak, makina kopurua eta lokalen eraketa kontuan hartuko dituen joko-eskaintza orekatua eta koherentea planifikatzea, arreta jarrita bereziki adingabeak sarri ibiltzen diren tokietan.

- Ausazko jokoen publizitatea mugatzeko neurriak

- *Jokoa debekatzea adingabeei, legez ezgaitu direnei, jokoa debekatuta dutenen zerrendan agertzen direnei –debekatuta duten jokorako– eta ordena, lasaitasuna eta jokoan aritzea eragozten dutenei.*

- *Joko arduratsuari eta joko-debekuei buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egitea.*

- *Teknologia digitalen eta aplikazio berrien gehiegizko erabilerak eragin ditzakeen arriskuak prebenitzeko, administrazio publikoek neurri hauek hartuko dituzte*

Bereziki Hezkuntza Administrazioak, eragile pribatuekin koordinatuta, haur eta gazteak babesteko jarduera eta programak gauzatuko ditu

ASISTENTZI SANITARIO ETA SOZIOSANITARIOA

52. ARTIKULUA

– *Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Administrazioari dagokio osasun-arreta ematea adikzioak dituzten pertsonen edo sufritzeko arriskua daukatenei, eta kolektibo horri zuzendutako arreta soziosanitarioa gizarte-zerbitzuen sarearekin koordinatzea ere badagokio.*

– *Euskal osasun-sistemaren zerbitzu-eskaintzaren osasun-prestazioak eta Euskadiko Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitako zerbitzuak aintzat hartuta, arreta osoa emango zaie adikzioen bat (substantziarekiko adikzioak zein jokabide-adikzioak) dutenek izan ditzaketen behar indibidualei. Arreta hori modu ekitatiboan emango da lurralde osoan, komunitatearen parte-hartze aktiboarekin eta, betiere, eremu eta zerbitzuen arteko lankidetzara eraginkorra bermatuz.*

57. ARTIKULUA

- *Gizarte-zerbitzuen euskal sistemak erantzuna emango die adikzioak dituzten edo izateko arriskuan dauden pertsonen beharrei –substantziekiko adikzioak zein jokabide-adikzioak–, gizarte-arretaren arloan. Horretarako, beharrezko diren lehen edo bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak eratuko dira, eta, zehazki, pertsonen, familien eta taldeen bazterketa-egoerak prebenitzeko eta artatzeko eta egoera horietan dauden gizarteratzea bultzatzeko zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitakoari jarraikiz.*

58. ARTIKULUA.

– *Gizarte-zerbitzuen eremuan adikzioak dituzten edo izateko arriskuan dauden pertsonen arretan aplikagarri diren jarduera-eremuak eta irizpideak.*

- *Gizarte-zerbitzuen euskal sistemak, adikzioa duten edo izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako arreta ematerakoan, honako lehentasun hauek izango ditu: Adikzioa duten edo izateko arriskuan dauden pertsonen gizarte-bazterketa eragiten duten kausak prebenitzea, eta pertsona horien autonomia mugatzen duten kausei aurrea hartzea, arreta berezia jarrita zenbait faktoreri, hala nola adinari eta generoari, autonomia eta gizarteratzea sustatzea, gizarte-zerbitzuen euskal sistemak ekimenak sustatuko ditu adikzioen fenomenoaz gizartean dagoen ikuspegia pixkanaka aldatzeko*

EUSKADIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARTEKO ESKUMEN-BANAKETA

68. ARTIKULUA.— Udalen eskumenak.

1.— Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, beren lurralde eremuan:

- a) Adikzioen udal-plana eta, oro har, adikzioen inguruko programak eta jarduerak egin, garatu eta exekutatzea, lege honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Planean eta, hala badagokio, foru-planean xedatutakoari jarraikiz.*
- b) Lurralde-eremu bakoitzean, adikzioen arloko aholkularitza- eta koordinazio-organoak sortzea eta horien funtzionamendu-araubidea egitea.*
- c) Dagokien lurralde-eremuan, adikzioen arloko sariak eta aintzatespenak kudeatzea.*
- d) Lege honetan aurreikusitako kontrol-neurriak betetzen diren ikuskatzea eta behatzea.*
- e) Ikuskatu eta zehatzeko ahala erabiltzea, lege honetan ezarritakoari jarraikiz.*

2.— Emandako zeregin hauek burutzeko, udalek beren kabuz edo mankomunitateetan elkartuta jardun dezakete.

95. ARTIKULUA.— Ikuskatzeko eta zehatzeko eskumena

a) Alkateek:

a.1.— Edari alkoholdunei dagokienez, arau-hauste arinak eta larriak, publizitateari eta sustapenari dagozkien arau-hausteak izan ezik.

a.2.— Tabakoari eta nikotina aska dezaketen gailuei dagokienez, arau-hauste arinak

1.3 Diagnostikoa eta beharren hautematea

Usurbilgo errealitatera gerturatzeko ezinbestekoa da diagnostiko bat egitea. Horrela, kontsumoen egoera, abusua eta hauengandik eratorritako arazoen inguruko informazioa lortzeko eta eremuaren errealitatearen mapa bat lortzeko.


Udalerriaren errealitatera gerturatzeko ezinbestekoak diren datuak jaso ditugu, hau da, honen bentako beharrak ezagutu ahal izateko (udalerriaren berezitasunak ezagutzeko), alde batetik, datu orokorrak (ikerketa estatu mailan eta autonomikoak) eta bestalde, udalerriaren datu zehatzak bildu ditugu (udalerriaren ezaugarriak, baliabideak, prebentzio-jarduerak, egindako ikerketak). Udalerriko eragile sozialetatik datu kuantitatiboak ere jaso dira (asistentzi zentroak, aisi eremuak, osasun teknikariak, zentro eskolarrak, Ertzaintza etab.). Baita udalerriaren datu kualitatiboak (biztanleriari elkarriketak, bertako eragileei zuzendutako saio parte-hartzaileak eta hiritarren ordezkariak ere galdetuko zaie).

Hauek izan dira informazioa biltzeko jo ditugun ateak eta hemen adierazitakoa, beraiekin bildu eta eztabaida talde edo elkarriketetatik atera ditugun ondoretan oinarritu gara.


- Gaztelekuko teknikaria
- Udaleko gazteri teknikaria
- Udaltzaingoa
- Gizarte zerbitzuetako teknikaria
- Gizarte zerbitzuetako zinegotzia
- Osasun zentroko medikua
- Lanbide hastapeneko koordinatzailea.
- Aisialdi taldekoa.
- Udarregi Ikastolako zuzendaria.
- Zubietako festa batzordeko kideak.
- Jubilatuen ordezkaria.

EUSTAT (DATU SOZIO-DEMOGRAFIKOAK)

Usurbilgo biztanleriaren datuak dira hemen azaldutakoak. 60. hamarkadatik 80.era biztanleak asko egin zuten gora ondoren beherako bidea hartzeko. Hala ere azken urteotan (2000. urtetik) gorazko bidea hartu du eta gaur egun 6.305 biztanleko herria da, azken datuen arabera. Hemen biztanleen datuak modu piramidalean adierazita, ikusten denez, emakume eta gizonezkoen kopurua nahiko antzekoa da, gizonezkoak 103 biztanle gehiago izanik.



Lan egoerak adikzioen inguruan zer esana duela adierazi digute ikerketa askok, langabe egoerak sortutako frustrazio eta ondoezaren aurrean ematen den erantzun posibleetako bat izaten baita, kontsumo edo jokaerazko arazoetan sartzea. Hemen sexuaren araberako ezberdintasunak (16-64 urte bitartekoenak dira).



Ohikoa den bezela, emakume gehiago dira langabezia egoeran daudenak. 2008tik 2013 bitartera langabezia tasak asko egin zuen gora (krisi egoera itzelaren erdian ginela adierazten dute estatu mailako datuek) eta 2013tik honuntza beherako joera hartu du, azken datuak izanik aspaldiko daturik baxuenak (271 langabe, 2013an 382 biztanle izatera heldu zirelarik).

Urtea	Sexua	Langabetuak	Langabetuak %
2017-V	Guztira	271	100,0
2017-V	Emakumezkoak	146	53,9
2017-V	Gizonezkoak	125	46,1

Hala ere Usurbilgo datuak Buruntzaldean dagoen egoerarekin alderatuz gero datu oso parekoak adierazten ditu, baita Euskal Autonomia Erkidegoko datuekin ere. Esan daiteke Usurbilgo errealitatea euskal gizarteak jasan dituen aldaketen isla dela.

Hala ere ikusten da, Usurbilgo jaiotza tasa heriotzena baino handiagoa da, kontuan izan behar dugu, Donostia bezelako hiria hain gertu izatean, jende helduak bizitza (lana, aisia...) herritik kanpo egiten duela ikusten da, baina geroz eta haur eta nerabe gehiago dagoenez behar hauek asetzeko esfortzu bat egiten ari dela ere ikusten da, batez ere, kale hezitzaile eta asialdi taldeen agertzea nabaria baita.

ADINA	GIZONEZKOA	EMAKUMEZKOA	GUZTIRA
10-14	188	193	381

15-19	155	152	307
-------	-----	-----	-----

Usurbil hala ere auzo askotan banatutako herri bat dela esan beharra dago (Aginaga, Santuenea, Urdaiaga, Kalezar, Txikiendi eta Zubietako) auzo bakoitzak bizitza propioa du eta baita festa propioak ere. Honek eragina dauka herrian bertan dauden zerbitzuetan, azkenean auzoka zerbitzuak errepikatu egiten baitira. Herriaren irudi bat egin ondoren, Usurbilek bere biztanleari egokitutako zerbitzu kopuru ona daukala esan dezakegu, errealitatearen kontziente direlarik. Zerbitzu hauen berri izan dezazuen hemen azkenengo datu bezela adierazi diren zerbitzu kopurua, ikastetxeetatik hasita sendagile edo udaltzaingora arte:

- Guraso elkarteak: Hitz Aho, San Praxku, eta Zubietako guraso elkarteak
- Aisialdi taldeak: ziortza gazte taldea
- Gaztelekua
- Bihurri ludoteka
- Hezkuntza zentroak: haur eskola, udarregi ikastola, aginagako eskola txikia, zubietako eskola txikia, usurbilgo lanbide eskola, lanbide hastapena
- AEK euskaltegia
- Helduen hezkuntza iraunkorraren ikastetxea
- Oiardo kiroldegia
- Ertzaintzako komisaldegia, Hernanikoa dagokio Usurbili
- Udaltzaingoa
- Herriko osasun zentroa

Herri kirolaria da Usurbil eta antzematen da dituen kirol talde guztiak ikusirik, positiboki baloratzeko faktore bat dela iruditzen zaigu kirola beti hartu izan baita prebentzio eragile garrantzitsu bezela:

- Pagazpe pilota elkarteak
- Usurbil kirol elkarteak, eskubaloia
- Usurbil judo taldea
- Usurbil futbol taldea
- Tximeleta gimnasia erritmikoa
- Buruntzazpi txirrindulari eskola
- Makaxareto fubola


- Basurde txiki UTT triatloi taldea
- Boloak
- Andatza mendi elkarte
- Zubieta pilota elkarte

Zerbitzuez gain, herri batean dauden taberna, jatetxe edota sagardotei kopuruak, jendearen aisialdi ereduaren islada izaten direla ikusi izan dugu, hau horrela oso adierazgarria iruditzen zaigu Usurbil bezelako herri txiki batek, 16 taberna eta 20 jatetxe dituela ikustea. Gainera adikzioen plana izanik, loteria administrazio bat, estanko 1 eta bi farmazia daudela ere garrantzitsua da. Gaur egun harritu gaituen arren, kirol apostuak egiteko makinarik ez dagoela adierazi digute.

ESTUDES 2016-2017


Inkesta honek kontuan hartzen dituen lagina 14-18 urteko bitarteko gazteek osatzen dute, Espainia guztiko ikasleak izanik. Ikusten denaren arabera, eta gizartearen islada direla esan daiteke, gazteen artean gehien kontsumitzen den sustantzia alkohola da (%75.6ak) ondoren tabakoa (%34.7) eta Kanabisa (%26.3) izanik. Hala ere, azken bi inkestetako datuak aurrez aurre jarrita, alkoholaren kontsumoa puntu batean jetsi egin den bezalaxe, tabakoa eta kanabisaren kontsumoak gora egin dute, puntu batean ere.

Prevalencia de consumo (%) por sexo. Últimos 12 meses. Estudiantes 14-18 años.



Emakume eta gizonezkoen kontsumoak nolakoak diren ikustea oso aberasgarria izan ohi da, batez ere ezberdintasuna zenbatekoa den ikusteko, askotan kontsumitzearen arrazoiak ezberdinak izaten dira, eta honek kontsumo ezberdinak egitera eramaten baitituzte.

Estatu mailako datuak izanik hemen bildutakoak honako taula honek estatu mailan autonomia erkidego ezberdinetan egiten diren kontsumoak adierazten ditu, kanabisa, alkohola (kontsumo eta mozkorraldiak) eta tabakoa.



Ikusi daitekeen bezala, kanabisaren kontsumo oso ezberdinak egiten dira estatuko gune ezberdinetan eta EAE da kanabisa kontsumo altuenetakoa duena (Kataluniarekin batera). Alkohola aldiz errealitate homogeenago bat da, estatu guztian nahiko antzeko baitira datuak (Galizia eta kataluniako datuak Madrilekoarekin batera dira baxuenak).

Nahiz eta tabakoaren datuak ere denbora gutxian asko aldatu diren, kontsumoak irauten duela ikus dezakegu, nahiz eta irudipena kontsumoak asko jetsi direnekoa den.

TABAKOA

Tabako erretzaileen %52,2a emakumezkoa da, eta erretzaileen %30,4aren gurasoak jakinen gainean daude seme-alabak erretzaileak direla. Gaur egungo errealitatea aldatu egin dela ikus dezakegu, lehen kajetan saldutako tabakoaren kontsumoa altuago zen eta "liatzeko"ren erabilera baxuagoa, datuak norabidez aldatu egin dira, nahiz eta "liatze"ko tabakoaren kontsumoa baxuago izaten jarraitu (%10,2a) gora egin du azken urteetan, kajetako tabakoa erretzen dutenak %45,6ko portzentaia dauka.

50.000 ikasle baino gehiagon igo da erretzaile kopurua 2014ko datuekin alderatuta, eta nahiz eta ez izan ezberdintasun oso esanguratsuak (inkestatetan parte hartu duten ikasleak kontuan harturik) emakumezkoak oraindik tabako gehiago kontsumitzen dute gizonezkoekin alderatuz (%53 emakumeak, %47 gizonezkoak), ez dugu ahaztu behar adintxikikoetaz ari garela hitzegiten.

Gaur egungo beste fenomenoak, eta kontuan hartu beharrekoa, (batez ere adintxikikoetaz ari garenean) zigarro elektronikoen inguruko datuak dira. Fenomeno berria

izanik, adingabetan eragina izan duela ikus dezakegu, kuriositatea asetzeko edota hain “txarrak” ez direlako baieztapenak erabiltzen baitituzte, kontsumoaren arrazoi bezala.

20,1% de los **estudiantes** de 14 a 18 años han usado **cigarrillos electrónicos** alguna vez en la vida

Prevalencia de consumo (%)

Alguna vez en la vida




Perfil consumidores

14-18 años alguna vez en la vida

→ **Sexo:** 56,9% son hombres

→ **Consumo de tabaco alguna vez:** 78,7%

→ **Permisividad padres para fumar:** 26,0% sus padres lo permiten (12,3% en total estudiantes)



En este grupo el 69,8% ha fumado tabaco alguna vez


■ Cigarrillos electrónicos con nicotina
■ Cigarrillos electrónicos sin nicotina
■ De los 2 tipos

ALKOHOLA


Alkohola gure gizartean oso onartua dagoen sustantzia da, eta estatu mailan ematen diren kontsumoak ere, lehen esan bezala oso antzekoak dira.

Azken datuek esaten digute hala ere, kontsumoak jetsi egin direla, eta nahiz eta datu altuak izan berantzako norabidea hartua dutela (84.1tik 76.9a jetsi da). Gainera emakume eta gizonezkoen datuak oso antzekoak dira.

Consumo últimos 30 días; estudiantes 14-18 años



Consumos intensivos últimos 30 días según sexo y edad




Obtención últimos 30 días; estudiantes 14-17 años

El **34,9%** las han obtenido **por ellos mismos** en:



Binge drinking




Honako tauletan azaltzen diren datuak oso esanguratsuak direla iruditzen zaigu, batetik alkohola nondik lortzen duten adierazten da, baita ze alkohol mota kontsumitzen duten ere. Gainera mozkor kopuruak ere agertzen dira gehiegizko kontsumoa denbora laburrean

(Binge Drinking fenomenoa, 2-3 ordutan kontsumitzea modu konpultsiboan). Ezberdintasunak 14 eta 15 urte bitartean dira oso adierazgarri (DBH2 eta DBH3ko tartean).


KANABISA

Adin tarte honetan ere sexuaren araberako kontsumo ezberdintasun handirik ez da antzematen neska (%43) eta mutilen (%57) artean, baina ikasketa porrotarekin zuzenki erlazionatuta dagoen faktore bezala ere adierazten da (ikasle kontsumitzaileen %44.2ak kurtsoaren bat errepikatu du, ikaslegoaren %27.8a izanik). Gainera kontsumitzaileen %89.9ak polikontsumoa egiten du (ez dute kanabisa bakarrik kontsumitzen).

Azken urteetan kanabisaren kontsumoak ere bere eboluzioa izan du, 2014an daturik baxuenak jaso zirela adierazi zen, eta datu hauek ere zertxobait gora egin duten arren azken urteetako joera baxuarekin jarraitzen du (ahaztu gabe inoiz adintxikikoetaz eta legez kanpoko sustantzia baten inguruan ari garela).



Mutilen kanabisaren kontsumoa erlazionatuagoa dago jarrera eta ekintza arazotsuekin nesken kontsumoan baino, honekin esan nahi duguna honakoa da, nota, kurtsoa errepikatzea, gurasoekin arazoak izatea... gehiago eragiten die mutil kontsumitzaileei neska kontsumitzaileei baino. Azken urteetan kanabisa kontsumitzen hasi den %4.2ak kontsumoa arazotsu bat egiten duela diote datuek. Gainera, alkohola edateari ez die uzten (mozkortu eta BingeDrinkinga praktikatzen jarraitzen dute).



Kanabis kontsumoaren ondoren gertatutako egoerak ere isla dira kontsumo honek sortu ditzakeen ondorioena. Ondoreko taulan lehen ilaran kontsumitzaile ez direnek eduki dituzten arazoak dira, bigarren ilaran azken 12 hilabetetan kontsumitu dutenak eduki dituzten arazoak, hirugarren ilaran azken 30 egunetan kontsumitu dutenean eta azken ilaran kontsumo arazotsu bat dutenena.

	PELEA O AGRESIÓN FÍSICA	RELACIONES SEXUALES DE LAS QUE ME HE ARREPENTIDO AL DÍA SIGUIENTE	RELACIONES SEXUALES SIN PRESERVATIVO	NO RECORDAR LO SUCEDIDO LA NOCHE ANTERIOR DESPUÉS DE HABER SALIDO	RESACA AL DÍA SIGUIENTE DESPUÉS DE SALIR	CONFLICTO O DISCUSIÓN IMPORTANTE CON PADRES O HERMANOS
						
Total alumnos	14,1	5,9	13,4	19,0	29,7	35,7
Cannabis U12M	27,7	13,7	31,1	39,1	60,8	49,1
Cannabis U30D	31,3	16,0	34,4	39,8	61,0	50,1
Cannabis CP** (CAST>=4)	54,5	26,0	51,1	49,4	68,9	63,1

EDARI ENERGETIKOAK

Fenomeno berria da nerabeen artean, batez ere egarria kentzeko sustantzia bezala erabiltzen dute, baita alkoholarekin nahastuta ere kontuan hartu gabe sortzen dituen ondorioak. %42,7ak edan ditu noizbait mota honetako edariak, eta %15ak alkoholaren nahastu izan ditu. Edaten dutenen %62.a gizonetzkoa da.


BESTE SUSTANTZIAK

Kokainari begiratzuz, gizonezkoen droga dela esan dezakegu eta oso gutxitan izaten da kontsumitzen den sustantzia bakarra, beti beste sustantzia batekin nahastuta (kontsumitzaileen %96.3ak). Kokainaren kontsumoak nahiz eta beste drogekin alderatuta kontsumoa txikia izanik ere (%3,2 probatu du), adin txikikoetaz ari garela ohartarazi behar dugu, azken urteetako beherakako dinamika mantenduz.

Estasia, anfetaminak, metanfetaminei dagokionez ere kontsumitzaileak %1-2a ez dira iristen baina presente daude, haluzinogenoak, heroina, Onddo haluzinogenoak, arnasbidezkoak bezelaxe.


ESKURAGARRITASUNA

Jetsi egin da eskuragarritasun pertzepzioa 2010. urtetik, alkohola eta kokainan izan ezik, eta legez kanpoko sustantien artean eskuragarritasun handiena duena kanabisa da.




ARRISKU PERTZEPZIOA

Emakumeak gizonezkoak baino arrisku gehiago ikusten die sustantzi guztiei alkohola izanik arrisku pertzepzio gutxien duen sustantzia, eta tabakoak kanabisak baino arrisku gehiago duela adieraziz.




INTERNETEN ERABILERA KONPULTSIBOA

Gaur egungo adikzio berrien fenomenoak ikusita kontuan hartu beharreko egoera berriak daude eta interneten erabilera hauetako bat da.



Sexuaren arabera, erabilera konpultsiboari begira neska eta mutilek ezberdin erabiltzen dute, eta neskak dira arazo gehien dituztenak (%23.8, %18.3 aldean).

Ikasketetan egiten duen eragina ere izugarria baita gurasoekin edukitzen dituzten eraginak ere, eta honako taula adierazten dira, abusua egiten duten eta erabilera egokia egiten dutenen arteko konparazioa egiten du, oso datu adierazgarriak dira ikasketetan duen eragina ikusten batez ere.



APOSTUAK (INTERNETETIK EDO INTERNETETIK KANPO)

Mutilek apustuak egiteko joera gehiago dute emakumezkoak baino, bai internet (%10.2 %2.5n aldean) eta baina internetetik kanpo ere (%21.6 %5.4n aldean). Eta adin tarteari begira ere, adinean aurrean joanda apustu egiteko ahalbidetasun gehiago dute, 18koek 14koak baino diru gehiago jokatzen dute.

EDADES

Inkesta honetan ESTUDESen ez bezala 15tik 64 urte bitartearakoa da lagin moduan hartutako perfila, honek gizartean eta oraingoan ere estatu mailan eginiko lanketaren datuak dira.

Azkeneko datuek diotenez alkohola eta tabakoa dira kontsumo goiztiarrena adierazten duten sustantziak, (16,6 eta 16,4 urte) azkenengo datu onenak direlarik, goiztiartasuna atzeratzen ari den seinale. Kanabisa da legez kanpoko sustantzien artean lehen kontsumitzen dena 18 eta 19 urte bitartean adierazia.

Adin tartera zatituko bagenitu datuak, tabakoak eta kanabisak ditu ezberdintasun handienak, 34 urte bitartean %65.4ak onartzen du noizbait tabakoa erre duela, 34-65 urte bitartean portzentai hau %76.2ra igotzen da. Joera oso ohikoa izan ohi da 2005tik aurrera mantendu dena. Kanabisaren kasuan aldiz, 15-34 urte bitartean %38.8ak dio kanabisa probatu duela, 35-64 urte bitartean kopuru hau %27.8^a jetsiaz. Nahiz eta zenbakiak baxuagoak izan, azken urteetan 35-64 urte bitartean dauden kanabis kontsumitzaileak gehiago direla ikus dezakegu (2003an kontsumitzailea %16^a ziren).

Prevalencia de consumo de drogas en los últimos 12 meses en la población de 15-64 años, según sexo (porcentajes). España, 1995-2015.

	1995		1997		1999		2001		2003		2005		2007		2009		2011		2013		2015	
	H	M	H	M	H	M	H	M	H	M	H	M	H	M	H	M	H	M	H	M	H	M
Tabaco	-	-	55,0	38,7	50,3	39,2	51,5	40,5	53,0	42,6	47,2	37,5	46,0	37,6	48,4	37,0	44,2	36,0	44,2	37,2	44,4	36,0
Alcohol	79,3	58,0	86,4	70,5	83,2	67,2	85,2	70,9	84,5	68,4	84,0	69,2	80,4	66,4	84,4	72,7	83,2	69,9	83,2	73,4	82,9	72,1
Cannabis	10,7	4,4	10,7	4,7	9,6	4,3	13,0	5,5	16,2	6,3	15,7	6,6	13,6	6,6	14,8	6,2	13,6	5,5	12,9	5,4	13,3	5,6
Éxtasis	1,9	0,7	1,2	0,5	1,2	0,5	2,8	0,7	2,0	0,8	1,8	0,6	1,6	0,5	1,4	0,3	1,0	0,4	1,0	0,3	0,9	0,3
Alucinógenos	1,1	0,4	1,4	0,4	0,8	0,4	1,2	0,2	0,9	0,3	1,1	0,4	0,9	0,3	0,7	0,2	0,6	0,2	0,5	0,1	0,8	0,3
Anfetaminas/speed	1,3	0,7	1,4	0,4	1,0	0,4	1,6	0,6	1,1	0,5	1,4	0,5	1,3	0,3	1,0	0,3	0,9	0,3	0,8	0,4	0,8	0,3
Cocaína en polvo	2,7	1,0	2,6	0,6	2,3	0,8	3,8	1,3	4,1	1,2	4,6	1,3	4,4	1,5	4,2	1,0	3,6	0,9	3,3	0,9	2,9	0,9
Cocaína base	0,2	0,0	0,2	0,0	0,4	0,0	0,2	0,0	0,2	0,0	0,3	0,0	0,7	0,1	0,2	0,1	0,2	0,1	0,1	0,1	0,3	0,1
Cocaína (polvo y/o base)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	4,7	1,6	4,2	1,0	3,6	0,9	3,3	1,0	3,1	0,9
Heraína	0,8	0,3	0,4	0,1	0,2	0,0	0,2	0,0	0,2	0,1	0,2	0,1	0,1	0,0	0,1	0,0	0,2	0,0	0,1	0,0	0,2	0,0
Inhalables	0,2	0,1	0,3	0,0	0,1	0,1	0,2	0,1	0,1	0,1	0,2	0,1	0,3	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1	0,1	0,0	0,1	0,0
Hipnosedantes con o sin receta	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	3,5	6,7	6,8	11,5	4,6	9,3	7,6	15,3	8,5	16,0	8,3	15,8
Tranquilizantes con o sin receta	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2,6	5,2	4,7	9,1	3,4	7,6	6,4	13,2	7,3	14,0	-	-
Somníferos con o sin receta	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2,0	3,5	2,8	4,3	2,6	4,6	3,1	5,9	3,7	7,3	-	-
Hipnosedantes sin receta	-	-	2,3	2,4	2,3	2,4	2,5	3,1	2,9	3,3	1,1	1,3	1,2	1,4	1,9	1,9	1,1	1,2	1,1	1,3	1,6	2,9
Tranquilizantes sin receta	-	-	2,0	2,1	1,9	2,2	2,2	2,8	2,5	2,5	0,8	1,0	0,9	0,9	1,5	1,7	0,9	1,0	0,8	1,0	-	-
Somníferos sin receta	-	-	1,2	1,2	1,4	1,2	1,4	1,8	1,5	1,9	0,7	0,9	0,6	0,8	1,1	1,0	0,5	0,7	0,6	0,7	-	-


FUENTE: OEDT Encuesta sobre Alcohol y Drogas en España (EDADES 1995-2015)

Sexuen araberako kontsumoak begiratu bagenitu ohartu gara, gizonezkoak orokorrean emakumeak baino gehiago kontsumitzen dutela (hipnosedanteak izan ezik, emakume kontsumitzaileak gizonezkoen bikoitza dira). Tabakoa eta alkohola bezelako kontsumoetan ere azken urteetako ezberdintasunik handienak antzematen dira (alkoholaren kasuan 10 puntuko ezberdintasuna). Hala ere, datuak ez dira gehiegi aldatu kanabisari dagozkenez, gizonezkoen kasuan kontsumitzaileagoak izaten jarraitzen baitute (%5.6tik %13.3ko ezberdintasuna).

ALKOHOLA

Alkohola da sustantzia psikoaktibo kontsumituena 15-64 urte bitarteko herritarren artean, ikusten dugunaren arabera %90ak egin du alkoholaren kontsumoa bere bizitzan noizbait, eta lehen esan bezala, lehen kontsumoa 16 urte inguruan finkatzen da.

Evolución de la prevalencia de consumo de alcohol y edad media en el inicio de consumo de alcohol en la población de 15-64 años (porcentajes). España, 1997-2015.



Adin tarte guztiak kontuan hartuta ere gizonezkoak dira alkohol kontsumitzaileagoak emakumezkoak baino, baina adin txikikoak (15-24urte bitartean) eta gazteak dira ezberdinatasunik txikienak adierazten dituztenak, eta 55-64 urte bitarteakoak ezberdinatasunik handiena adierazten dutenak.

Egunerokotasunean egiten den kontsumoari begiratu gero ere, gizonezkoen 3,5 aldiz gehiago dira alkohol kontsumitzaileak, baina adinean aurrera doazen bezela egunero kontsumitzen duten emakume kontsumitzaileak gehiago dira (10 gizonek kontsumitzen


gutunean emakume 1 kontsumitzen du 35-44 urte bitartean, 55-64 urte bitartean emakumeen zenbakia 3a igotzen da).

Prevalencias de consumo de alcohol entre la población de 15-64 años, según sexo y edad (porcentajes). España, 2015.																		
	15-64			15-24			25-34			35-44			45-54			55-64		
	Total	H	M	Total	H	M	Total	H	M	Total	H	M	Total	H	M	Total	H	M
Alguna vez en la vida	93,5	95,3	91,7	87,5	89,0	86,0	93,9	95,8	91,9	94,5	95,7	93,2	95,6	97,0	94,3	94,0	97,3	90,5
Últimos 12 meses	77,6	82,9	72,1	78,4	80,5	76,1	79,8	86,1	73,4	77,8	82,6	72,6	79,1	84,2	74,5	72,3	80,5	63,7
Últimos 30 días	62,1	71,3	52,8	59,5	63,8	54,9	63,1	73,0	53,2	62,5	70,6	53,8	65,2	75,3	56,1	58,7	71,8	44,9
Diariamente en los últimos 30 días	9,3	14,5	4,1	1,4	2,0	0,9	4,5	7,4	1,7	7,6	11,8	3,0	12,1	18,8	6,1	19,6	30,2	8,2
Nunca	6,5	4,7	8,3	12,5	11,0	14,0	6,1	4,2	8,1	5,5	4,3	6,8	4,4	3,0	5,7	6,0	2,7	9,5

Garagardoa da edari kontsumituena, bai aste tarte eta asteburuetan ere, nahiz eta asteburuetako kontsumoak nabari igo. 15-34 urte bitartekoak eta 35-64 urte bitartekoak datu antzekoan adierazten dituzte. Hurrengo edaria ardoa izango litzake, eta oso nabaria da otorduekin erlazionatutako kontsumoa dela, kontsumo altua baino gehiago maiztasuna baita datu altuagoa. Konbinatuak edatearena, asteburuan egin ohi den kontsumoa dela ikus dezakegu, bereziki 15-34 urte bitartean dago ezberdintasun handienak (aste tartean %6ak kontsumitu ditu asteburuan aldiz %61,6ak), 35-64 urte bitartean aldiz datuak asko jetsiaz (aste tartean %4.6an kontsumitu ditu eta asteburuetan %27.4ak).


Ondorengo taula intoxikazio etilikoak adierazten dituen da, ikusi daiteke, 15-24 urte bitartekoak direla kaltetuenak eta gizonezko eta emakumezkoen datuak alderatuz, gizonezkoak egoera latz gehiago jasan dituztela.

Prevalencia intoxicaciones etílicas (borracheras) en los últimos 12 meses en la población de 15-64 años, según sexo y edad (porcentajes). España, 2015.




BingeDrinking fenomenoari begiratzten badiogu, (gizonezkoen kasuan 5 unitate eta emkumezkoetan 4 unitatetik aurrera denbora laburrean), denbora aurrera doan heinen hau praktikatzen dutenak geroz eta gehiago direla ikus dezakegu, eta ikusgarria da, azken 30 egunetan mozkortu direla esaten dutenak baino 3 aldiz gehiagok dio BingeDrinkinga praktikatu dutela. Sexuaren arabera ere ezberdiontasunak ikus daitezke.

Evolución de la prevalencia de consumo de alcohol en atracón o binge drinking en los últimos 30 días en la población de 15-64 años (porcentajes). España, 1999-2015.



Prevalencia de consumo de atracón de alcohol (binge drinking) en los últimos 30 días según sexo y edad en la población de 15-64 años (porcentajes). España, 2015.




TABAKOA

Tabakoa bigarren sustantzia psikoaktibo kontsumituena da, 15-64 urte bitartean %72.5ak noizbait kontsumitu duelarik, eta datu oso konstanteak izan dira 2009a geroztik. Egunoroko kontsumoari begiratzen badiogu, 10tik 3k egunero kontsumitzen dute, 2011 geroztik mantendu diren zenbakiak izanik, nahiz eta 2001-2003 urteetan jaso kontsumitzaileenak izan direnen datuak (%36 inguruan).

Azkeneko 12 hilabeteetan datuek diote, 244.000 pertsona hasi zirela tabakoa kontsumitzen, %50 gizonezkoa eta %50a emakumezkoa izanik, eta espero zen bezelaxe, lehen kontsumoa gehien egiten dituztenen adin tarte 15-24 urte bitartean dago (emakumeak gizonezkoen datuak baino 3 puntu beheragotik egonik).

Prevalencia de consumo de tabaco diario en los últimos 30 días en la población de 15-64 años, según sexo y edad (porcentajes). España, 2015.



Nahiz eta lehen kontsumoak 15-24 urte bitartean egon gehienak, beherakada nabaria izan du 2000. urte ingurutik (35 urte beherako %40a izatera iritsi ziren erretzaile zirenak). Eta sexuaren arabera bereizita ere datuak proportzionalak dira, azkenengo hauek izanik emakumeengan jaso diren daturik baxuenak historian.

Zigarriko elektronikoei begiratuz gero, %6.8ak noizbait kontsumitu duela adierazi du, 25-64 urte bitartean izanik datu gehien bildu diren adin tarte. Eta tabako erretzaileak izan dira kontsumo mota hau probatu dutenak (tabako ez kontsumitzaileen %0.5ak probatu baitu).


KANABISA

Kanabisa da legez kanpoko sustantzien artean kontsumituena, 15-64 urte bitarteakoen %31.5 dio noizbait probatu duela, eta lehen kontsumoa ia 12 urte dira 18-19 urte bitartean finkatua dagoela. Eta egunero kontsumitzen dutenak %2.1a dira.

Gazteenak dira kontsumitzen hasten diren gehiengoa, eta gizonezkoak (98.000) emakumezkoekin (61.000) alderatuta.

Sexuari begiratuta gizonezkoetan kontsumo gehiago daude, 15-24 urte bitartean ezberdintasunak oso handiak dira, adin tarte honetako %25.4ak dio kanabisa kontsumitu duela nesketan datu hau 11.2 puntu gutxiago izanik. Eta joera honek ere 25-34 urte bitartean mantendu egiten da, emakume kontsumitzaileen aurrean 2.4 direlarik gizonezko kontsumitzaileak.

Prevalencia de consumo de cannabis en los últimos 12 meses en la población de 15-64 años, según sexo y edad (porcentajes). España, 2015.



Noizbait kanabisa kontsumitu badute 10 pertsonak, hauetatik 3k azken 12 hilabetetan kontsumitu du, eta hauetatik laurdenak azkeneko 30 egunetan kontsumitu du.

Kanabisarekin erlazionatuta arazoak zerrenda baten jarrita, honakoak dira lortutako datuak, zerrenda honetan gertatu zaizkien egoerak adierazten dira, ze kopururen kontsumitzaile diren bezalaxe.

Prevalencia de problemas relacionados con el consumo de sustancias psicoactivas alguna vez en la vida entre la población de 15-64 años, según el consumo de cannabis en los últimos 30 días (porcentajes). España, 2015.

	No ha fumado cannabis nunca	Fuma cannabis pero no diariamente	De 1 a 2 porros diarios	3 o más porros diarios
Problemas familiares	0,7	7,5	14,8	20,2
Problemas con amigos	0,4	6,1	7,4	15,8
Problemas de salud física	0,5	2,9	6,5	8,5
Problemas psicológicos	0,8	3,8	7,2	9,7
Accidentes de tráfico	0,1	2,6	1,1	6,8
Problemas laborales	0,2	1,7	3,4	4,0
Problemas económicos	0,3	6,0	7,1	10,6
Problemas con la policía o la ley	0,2	7,0	11,3	18,3
Relaciones sexuales que en otras circunstancias no hubiera mantenido	0,1	3,7	1,3	10,3
Relaciones sexuales sin protección	0,1	3,7	3,5	9,7
Necesidad de acudir a un centro de urgencias	0,2	2,3	4,1	7,5


BESTE SUSTANTZIAK

Hurrengo datuei beiratzten jartzerakoan honakoa da adierazi nahi duguna, sustantzia asko dira, eta kontsumo datuak izango dira adieraziko ditugunak, batez ere ikus dezazuen kontsumo mailak nola dauden. Errealitate baten parte dira eta datuen berri edukitzea garrantzitsua izango da, ondoren herri mailan ikusi ditzakegun egoerak ulertzeko, ahaztu gabe estatu mailan eginiko inkesta dela.

- KOKAINA


Kontsumitzen hasteko adina beherantza doa, 2013tik ia bi urte jetsi da kontsumo hastapena adierazten duen adina.

Evolución de la prevalencia de consumo de cocaína base y edad media de inicio en el consumo de cocaína base en la población de 15-64 años (porcentajes). España, 1995-2015.



50.000 pertsona hasi dira azken 12hilabeteetan kokaina kontsumitzen, 31.000 gizonetako eta 18.000 emakumezko, batez ere 15-24 urte bitarteko adin tarteari dagokienak (29.000 pertsona), erdia baino gehiago.

Prevalencia de consumo de cocaína polvo y/o base en los últimos 12 meses, según sexo y edad (porcentajes). España, 2015.




- ESTASIA

Noizbait estasia kontsumitu dutenen portzentaia %4a ez da iristen eta 20.7 urte dira kontsumo hastapena adierazten duen adina.

Estasiak arriskuak dituela ez kontsumitzaileen %95.2ak adierazten du, kontsumitzaileen %75.6ak ikusten duelarik arriskuren bat. Ikus daiteke kontsumitzaileek arrisku gutxiago ikusten dutela ez kontsumitzaileek baino.


Prevalencia de consumo de éxtasis en los últimos 12 meses, en la población de 15-64 años según sexo y edad (porcentajes). España, 2015.



- ANFETAMINAK

Azkeneko datuen arabera %3.6ak noizbait anfetaminak kontsumitu izan dituela adierazi dute, nahiz eta azkeneko urteetan beheraka joan, berriz goranzko bidea hartu du. Baina azken 12 hilabetean eta 30 egunetan jaso diren datuak residualak dira (%0.5eta %0.2a). Gizonezkoak dira kontsumitzaileagoak emakumezkoak baino, eta kontsumo gehien agertzen diren adin tarteak 15-24 urte bitarteak dira.

Prevalencia de consumo de anfetaminas en los últimos 12 meses, en la población de 15-64 años, según sexo y edad (porcentajes). España, 2015.




Estasiaren kontsumitzaileak bezelaxe, anfetamina kontsumitzaileak arrisku pertzepzio baxuagoa dute ez kontsumitzaileak baino (kontsumitu dutenen %78ak ikusten du arriskua, eta ez kontsumitzaileen %96.6ak ikusten du arriskua).

- HALUZINOGENOAK

Datu hauetan, onddo haluzinogenoak, eta ketaminaren kontsumoak ere bateratuta daude.

Sustantzia haluzinogenoak %3.8ak noizbait kontsumitu dituela adierazten da, oso egonkortua dagoen datuak izanik. Ea datu residualak dala bai azken 12 hilabete eta azken 30 egunetan kontsumitu dutenak zenbat izan direnaren datuak. Mutilak dira kontsumitzaile nagusiak nesken kasuan %1 15-24 urte bitartean bakarrik pasaz.

Prevalencia de consumo de alucinógenos en los últimos 12 meses, en la población de 15-64 años según sexo y edad (porcentajes). España, 2015.




Eta arrisku pertzepzioari dagokionez, ez kontsumitzaileen %96.9 ikusten die arriskua aldiz kontsumitzaileen %83.8ak.

POLIKONTSUMOA

Sustantziak elkarrekin nahasteko ohitura daukagu eta interesgarria iruditzen ziagu datu hauek ere adieraztea. 25-34 urte bitartean ematen da polikontsumo gehien eta emakume eta gizonetako ohitura ezberdinena ere hemen adierazten da, ondoren zenbat eta adinean aurrerago, polikontsumoak modu parekatuagoan egiten dira gizon eta emakumeen artean.

Prevalencias de consumo de diferente sustancias psicoactivas* en los últimos 12 meses en la población de 15-64 años, según sexo y edad (porcentajes). España, 2015.



Polikontsumoa egitean, ia beti, alkohola presente dagoen sustantzia bat da. Sustantzia bakarra kontsumitu dutela dioten %4.7a hipnosodanteetaz ari dira, %85.2a alkoholaz eta %9.7a tabakoaz. Ondorengo taulan garbi eta argi ikusten da, zein diren nahasterako orduan

jarraitzen diren irizpideak (gogoratu hipnosedanteak, errezetatuak edota ez errezetatuak izan daitezkeela eta lagin berdinean sartuak daudela).

Prevalencia de consumo de sustancias psicoactivas según el número de sustancias consumidas en los últimos 12 meses* (porcentajes). España, 2015.

	Una sustancia	Dos sustancias	Tres sustancias	Cuatro sustancias	Cinco o más sustancias
Alcohol	85,2	94,9	98,2	99,8	98,4
Tabaco	9,7	81,5	97,8	95,8	90,0
Cannabis	0,2	5,6	59,3	93,7	95,2
Éxtasis	0,0	0,1	0,4	4,3	49,6
Hipnosedantes con o sin receta	4,7	17,3	40,2	45,1	40,6
Cocaína en polvo	0,0	0,4	3,1	44,2	87,9
Cocaína base	0,1	0,2	0,2	1,5	5,8
Anfetaminas	0,0	0,0	0,2	8,2	42,7
Alucinógenos	0,1	0,0	0,4	6,6	40,2
Heroína	0,0	0,0	0,2	0,9	5,4
Inhalables volátiles	0,0	0,0	0,0	0,0	3,6

SUSTANTZIA BERRIAK

Beti ateratzen dira, aurreko estadistiketan agertzen ez diren eta azaldu behar diren sustantzia berriak, nahiz eta kopuru txikiak izan, kontuan hartu beharrekoak direla iruditzen zaigu.

Prevalencia de consumo de nuevas sustancias alguna vez en la vida en la población de 15-64 años, según sexo y edad (porcentajes). España, 2015.

	15-64			15-24			25-34			35-44			45-54			55-64		
	Total	H	M	Total	H	M	Total	H	M	Total	H	M	Total	H	M	Total	H	M
Nuevas sustancias	3,4	5,0	1,8	3,9	4,8	2,9	5,5	8,4	2,6	4,6	6,8	2,3	2,2	3,6	1,0	0,6	0,9	0,3
Ketamina	0,7	1,1	0,3	0,7	0,8	0,5	1,2	1,9	0,6	1,2	1,9	0,5	0,3	0,6	0,1	0,0	0,0	0,0
GHB	0,6	1,0	0,2	0,4	0,6	0,2	0,9	1,5	0,4	1,1	2,0	0,2	0,3	0,5	0,1	0,2	0,3	0,0
Spice	0,8	1,1	0,5	0,5	0,7	0,3	1,2	1,9	0,6	1,1	1,6	0,7	0,7	1,0	0,5	0,2	0,2	0,2
Mefedrona	0,2	0,2	0,1	0,1	0,1	0,2	0,2	0,3	0,2	0,2	0,4	0,0	0,1	0,2	0,1	0,0	0,0	0,0
Salvia	0,5	0,8	0,1	0,6	1,1	0,0	0,7	1,2	0,3	0,8	1,3	0,3	0,2	0,4	0,1	0,0	0,1	0,0
Esteroides anabolizantes	0,2	0,3	0,0	0,3	0,6	0,0	0,3	0,5	0,1	0,1	0,2	0,1	0,1	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0

AGIPADEK EGINIKO EKINTZEN LABURPENA

Puntu honetan, Usurbil herriaren argazki bat egiteko erabili ditugun bide ezberdinak agertuko ditugu, kasu honetan, orain arte bilduta dauden datuak objektiboak eta zenbakizkoak diren arren, hemendik aurrera, Usurbilgo eragile ezberdinekin bildu eta haiek emandako informazio, datu eta uste zein ardurak izango dira hemen adieraziko direnak. Honetarako hasieran, herri mailan eginiko talde eztabaidako transkripzioan adierazitakoak azalduko ditugu, ondoren, talde bakoitzarekin (eta esateko edota esku-hartzeen berri zehatzago bat eman nahi zuten eragileekin) eginiko elkarrizketetan bildutakoak azaltzeko.

HERRI MAILAKO EZTABAIDA TALDEA

- 1) Udarregi Ikastolako DBHko orientatzailea
- 2) Hitz Aho guraso elkarteko kidea
- 3) Anbulatorioko medikua
- 4) Aginagako Jubilatuen taldekoak
- 5) Usurbilgo Udaletxea, Kultura eta Gazteria eta Gizarte Zerbitzuak
- 6) Oinarrizko Lanbide Heziketa
- 7) Gaztelekuko Hezitzaileak
- 8) Ziortza Aisialdi Taldea
- 9) AGIPAD elkarteko kideak

Hemen aurkeztutakoak izan ziren mahai ingurura gerturatu zirenak eta hauen ahotik entzun nahi genuen orain arte Usurbilen egindakoaren zantzuak zeintzuk ziren, lehen eskutik eta herritarren ahotik entzuteko herrian zer gertatu izan den eta zeintzuk diren herriak dituen eta landu beharko liratekeen puntuak.

Lehenik eta behin sarrera bat egin genuen AGIPADeko teknikariak eta Usurbilgo Gizarte Zerbitzuetako langileak, bertan egin nahi duguna eta egiten ari garena nondik eta norako den azaldu diegu, beraiek lasai eta konfiantza guztiarekin hitzegin dezaten. Honetarako AGIPADeko teknikariak eta Gizarte Zerbitzuetako kideak aurrez prestatutako galderak adierazi dizkiete. Honakoak izanik jarraibide bezela erabilitako galderak alde batetik, orain arte egindakoa zer izan den, eta **balorazio** moduan aurkeztu ditugu (*Azken urteetan, zeintzuk izan dira adikzioen prebentzioan egindako ekintza eraginkorrenak? Pertsonalki, ekintzaren batean partehartu al duzu? Ze ekintzan? Prebentzioan egindako ekintzak,*

*nola baloratuko zenituzke? (partehartu edo EZ partehartu)). Ondoren gaur egunean Usurbilen dagoen errealitatea zein den ikusteko edota ohartzeko baliagarriak iruditu zaizkigun galderak, **diagnosi** egokiago bat egiteko (zure ustez, zeintzuk dira adikzioekin lotuta dauden arazo handienak Usurbilen? ze taldeetan adikzioek eragiten dute gehienbat? zure ustez, adikzioekin lotuta dauden arazoak gutxitu, mantendu edo handitu egin dira?). Azkenik etorkizun batean adikzioen plan berriarekin jarraitu nahi diren **ildo estrategikoak** finkatzen lagunduko diguten galderak planteatuz (zure ustez, datorren 5 urteetan, zeintzuk dira esku-hartzeko lehentasuna duten esparruak?? datorren urteetan, ze 3 kolektiboekin egin beharko zen lanketa handiena? zure ustez, zeintzuk izango ziren lehentasuna duten 3 ekintzak?)*

Sarrera egin ondoren adikzioak zer diren azaldu diegu eta zer nolako zailtasunak izaten ditugun askotan definizio hau finkatzeko, gaur egun pilpilean eta korriente ezberdinek modu ezberdina batean azaltzen dutela garbi adieraziz eta askotan eduki ditzakegun kezka ohikoak direla garbi utziaz, sustantziei haratago adikzioa edukitzea posible dela adieraziz, adikzio konportamentalak direlakoak, mugikorren eta apostu edota teknologia berriak ere abuso hitzaren azpian sartzen ditugula adikzioa izan gabe ere.

Lehen galderari helduta, taldekideetako askok zailtasunak ikusten dituzte orain arte Usurbilen eginiko ekintza prebentiboak zeintzuk izan diren identifikatzen. Gauza oso puntualak eta festa testuinguru izanik egiten diren lanketak adierazi dira. Kilometroak egunaren aitzakipean herri mailan, gurasoentzat formazio saioak eta herri mailan gauzak egin zirela adierazi dute gehiengoak. Udaletxeko Gazteri eta Festa sailetik adierazten duena honakoa da, *jaietan gazteentzat antolatutako egunean, karpa bat jartzen da, alkoholemiak eta drogen inguruko informazioa emateko. Baina gazteek herri mailan bazkari ondorenean egiten diren "olinpiada" estiloko jokuetan "txupito karrera" bezelako ekintzak egiten dituzte, aurtengoan joku horien inguruan erabakiak hartu ditugu, baina mezu kontrajarriak ematen dizkiegu gazteei "Ez, ez, ez, ez baina gero egiten ditugun ekintza gehienak bai, bai, bai diotela".*

Ikastolatik, DBH3ko ikasleekin tutoreek maila informatiboan lanketa bat egiten dute sustantzien inguruan, zer da droga eta ikasleekin gaiaren inguruan jardun. Eta DBH4an kanpoko aditu bat sartzen da gelara, ukitu psikologikoa ematen diona eta dena borobiltzeko intentzioarekin gurasoentzat irekitako saio bat antolatzen da, nahiz eta deialdiak ez talde haundia bildu. Kilometroak jaiaren aitzakipean ere, DBH2koekin lanketa txiki bat ere egiten da Ziortzako kideekin, nahiz eta azken urtean ez eman aurrera. Konfiantzaren Pedagogiak ere

asko laguntzen digu, adikzioei dagozkien arrisku faktore asko lantzen, emozioen munduarekin oso erlazionatua dagoelako, egin daitekeen prebentzio lan onena dela adierazten digu.

Anbulategiko sendagileak Osakidetzan egunero egiten dugu lan horrelako gaiekin batez ere Tabakoa eta Alkohola bezelako sustantziei dagokienez. Orain arte jende helduarekin esku hartu dugu, baina orain dela gutxi nerabeekin Programa bat martxan jarri dugu, kontuan hartuz zenbat kontsumitzen duten, eskuhartzeko modu bat edo beste bat planteatzeko, nabarmena da alkohola dela nerabeekin gehien landu behar duguna. Urgentzitan eta aplikatzen hasi diren programa bat da, eskuhartzeko protokolo bat eraikia dago, orduan kasuak erantzun antzekoa izaten dute. Pediatrak ere Programa honetan parte hartzen du, 10-14 urte bitartekoak ikusiaz. Tabakoaren kontsumoa uzteko Programa ere aurrera eramaten dugu, baina ia da ez da lanketa Prebentzibo bat baizik eskuhartze eta kontsumoa albo batera uzteko Programa. Sendagilearen hitzen aurrean Gizarte Zerbitzuetako langileak zertan datzan programa hori gehixeago zehazteko eskatzen dio, beste taldekideen harridura arpegiak ikusirik. Ze kontsumo duen neurtzen da eta horren arabera interbenztio bat edo bestea egiten da. Baina jende gutxi izaten da horretara gerturatzen direnak, bakarrik gerturatu behar baitute, eta medikuen denbora faltan ere oztopo izan dezake horrelako gauza bat planteatzeko.

Usurbileko Oinarrizko Lanbide Hastapen eskolakoak, beraien zentruan Modu transbertsal batean lantzen dugu gaia, baita modu zehatzean ere, baina bereziki transbertsalean, parekidetasun sailetik. Adikzioak alderdi psikologikoarekin erlazio zuzena duela ikusten dugunez, autoestima etab. udaletxearen bitartez “HarremOnak”, “Sexualitatea” eta “Pantallas Amigas”ekin lan egiten dugu, nahiz eta drogak ez izan, egiten duten lana polita eta interesgarria dela iruditzen zaigu. Hor Udarregi ikastolatik Ikastolan ere Pantallas Amigasekoekin gaia landu dugu DBH4ko ikasleekin abusu asko daudela arduratuta baikaude.

Horrelako ekintzen aurrean harrituta adierazi dira, beste elkarrekin egiten denaren berri ez dutela adieraziz, norberari eragiten dieten gauzetan asko fijatzen gara eta horren inguruko informazioa izaten dugu. Batez ere, alkohola eta tabakoaren ingurukoak ezagutzen ditugu dute ikastetxeeako arduradunak.

Ekintza hauekiko egiten duten balorazioa positiboa dela adierazi dute, hala ere herri mailan zerbait proposatzen denean (guraso eskolak edota udaletxetik eginiko hitzaldiak edo) geroz eta indar gehiago hartzen ari diren saioak dira eta ongi dago hori, baina jende asko ez da gerturatzen horrelako ekintzetara, da errealitatea ondoen islatzen duen esaldia. Udarregi Ikastolatik “gurasekin modu bolondres batetara etortzeko ekintzak antolatzen dituzu inoiz ez

dakizu zenbat jende gerturatuko den, gora behera izugarriak izaten ditugu, batzuetan gelak bete egin zaizkigu eta beste batean 12 pertsona ere ez dira gerturatu. Hori bai, gerturatzen direnen balorazioa beti zoragarria eta oso eskertuta azaltzen dira. Eta badaude guraso batzuk saio guztietara agertzen direnak, arduratuta daudenak edota gaiarekiko izugarritzko interesa ere dutenak (edozein gaia dela ere e?). Zailtasunak izaten ditugu premia gehien dutenak hurbilarazteko, eta “faena” bat da”.

Usurbileko Lanbide eskolako arduradunak beste hau dio “jarraipen bat faltan botatzen dut, saioak egiten dira eta gero “desagertu” egiten dira, buelta gehiago eman behar zaizkio, eta askotan guk ditugun ikasleen perfilak ezberdinak dira eta interesa edota momento guztietan ez daude informazioa “jasotzeko” moduan. Gainera ikasleei zerbait esan eta ondoren beste non baitera joan, kontrakoa entzun eta komeni zaiena ikasten dute, bizi garen gizartea kontraesan konstantean dago, eta kontraesan hori normala dela irakasten ari gara, tradizio, ohitura eta horrelako argumentuekin, askotan debekuaren atzetik. Legeak esaten duenari kasorik ere ez egiteraino.”

Aginako jubilatuek behin eta berriz aipatzen dute “drogen ondorioak min handia eragin dute herri mailan eta askotan sustantzia “arraroetaz” arduratzen gara kontuan hartu gabe alkoholak eragiten dituen ondorioak (batez ere familiarrak) oso latzak dira eta uzteko dauden arazoak, gizarteak onartutako kontsumoak direlako”. Baieztapen honen aurrean ados adierazi dira guztiak, eta nahiz eta kontsumoak beti egon diren gaur egun dauden sustantziak eta egiten diren nahasketekin ardura adierazi dute guztiek.

Adikzioekin Usurbilen dauden arazoak zeitzuk diren galdetzean nahiko ados eta ahots berean esan dute alkohola dela ardura gehiena sortzen dutenak sendagileak dioenarekin bat eginik “alkohola lehen sustantzia da eta beste sustantziak ondoren datoz, hastapeneko sustantzia dudarik gabe alkohola da. Egoera urteetan asko aldatu da, ze kontsumitzen dutenaz aparte asko arduratzen gaitu kontsumitzeko moduak eduki duen aldaketa nabaria. Eta nerabeak ez dira gai ikusteko beraierengan sortzen dituzten ondorioak (gorputza, garapena...) eta kontrolaren gaitasun handia dutelako sentsazioa, eta gure kezkak beraierengan jartzen ditugu, gure kontsumo eta gure ereduak zeintzuk diren hausnartu gabe. Euskaldunon ohitura eta tradizioak alkoholaren kontsumoa bermatzen du”

Ziortzako begiraleak kritika nerabeengana gerturatu eta gizatera zabaltzen du “nerabeek zenbat eta burua lurretik gertuago eduki hobeto pasatzen dutela diote, eta pertsona helduen aurrean berdin jokotuta ere gizarteak ez du erantzuten”. Nerabeek sagardo egunean edota festetan txosna gunean egiten duten alkohola “salmentarekin” kritiko azaltzen dira,

honek azkenean beraien arteko kontsumoa onartu eta babesten baitu. Berak jarraitzen du *“Lokalak eta Kilometroak bezelako festak erregulatu behar dituzte, egun handia izaten da horretarako eta, hartzen diren neurriak efektiboak al dira?”* galdera airean utziz.

Udaletxeko teknikariak *“udaletxetik lokalen erregistro antzeko bat egitearen plana dago, nortzuk nondik nora ibiltzen diren kontrtolarazeko eta baita espazio seguruak izatea bermatzeko”*. Ziortzakoa lokalekiko dagoen egoeraren kritika azalduz *“Gurasoek lokalaren “alkilerra” patzen dute eta ez dira kontuatzten beraiek direla bertara joan eta ezkutuan egotea bermatzen dutenak, kexa asko daudela baina “ez badiot dirua ematen lokalerako kalean bakarrik geratuko dira?” bezelako baieztapenak entzuten dituzte, Usurbilen dagoen lokala edukitzearen ritoa izugarria dela adierazi nahian eta askotan presio handia egiten direla elkarri.*

Adikzioek gehien eragiten duten taldeei buruz galdetzean Ziortzakoa oso zuzena da *“lokaletan ibiltzen direnak”* erantzunda. Oinarrizko Lanbide Heziketako arduradunak dio *“nerabe guztiak berdinak izan nahi dute eta kontsumo inguruan badabiltza kontsumitzaile izango dira, identitate “zigilu” izan arte”*. HitzAho guraso elkartekoak *“helduak dira kontsumitzaileenak, baina ez da mugimendu finko bat, guneak eta kuadrilak aldatu egiten dira, taberna jakin batean, parke jakin batean, garai finko batean... variable asko azaltzen dira horrelako momentuetan, baina helduak dira kontsumitzaileenak”*. Sendagileak dio askotan nerabeei begiratzten pasatzen ditugula orduak *“eta helduena ahaztu egiten dugu, eta hauek ere sortzen duten eragina handia izan daiteke, badirudi nerabezaroan eginiko kontsumoak direla arriskutsuak, baina heldutzen ari garenean ere kalteak sortzen ditu, eta larriak.”*

Errealitatea azken urteetan asko aldatu dela adierazi dute adibidez *“nerabeek duten edateko modua baino edaten dutenak gehiago arduratzen digu, ez zaie edatea gustatzen, alkohola ez zaie gustatzen, orduan efektu baten bilaketa horretan graduazio altuko edariak bilatzen dituzte, efektu azkarrago eta “efektibogo” bat izateko”*. Kirolak duen eragin prebentziboa ere aipatu da, *“Nerabe batek kirola egiten duen momentuan babestuago dago, asteburuetan zer eginga eta konpromezu bat duelako, eta herri mailan ere egutegiak ezagunak dituztelako”*. Beste herri batzuekin konparatzen jarriz gero Usurbilen dagoen tabako kontsumoa baxuago dela adierazi du sendagileak, *oso herri kirolaria dela eta hori izan daiteke tabakoaren kontsumo baxuago izatea?*galdera ere bota diete, Ziortzako hezitzaileei barre txiki bat ateraz *“kirola izan daiteke prebetzio eragile baina zenbaitetan kirola bera izaten da kontsumitzen hasteko eremua”*

Azken urteetan arazoak gutxitu, mantendu edota handitu egin diren galderaren aurrean eztabaida txiki bat sortu da, hasieran handitu egin direla adierazi duten arren gero,

puntualizazioak azaldu baitira. Sendagileak dio osasun alorrean ikusi duenaren arabera *“adiktoak jetsi egin dira, baina kontsumitzaileak igo egin direla esango genuke”*.

Agiñako Jubilatuek *“kontsumitzen dena aldatu da”* .aderazi dute, heroinaren arazoak izan ziren garaian heroina kontsumitzaile eta adiktoen guraso edota izeba-osaba izatea tokatu zitzaien eta asko ikasi zuten garai hortan, hala ere gaur egun heroina ikusten ez den arren alkoholikoz inguratzea tokatu zaiela diote, sustantzia izanik ezberdina *“baina beti arazo dira”*.

Oinarrizko Lanbide Heziketakoak dio beraien ikasleen artean *“haxixa eta marihuanarekin dugun arazoa izugarria da, honek gora egin duela garbi ikusten dugu. Funtzionatzen hasteko erre egin behar dute, alkohola askok ez dute kontsumitzen baina erre bai. Eta mariahuanaren kontsumoa emozioekin oso erlazionatua dagoela esango genuke, frustrazio, aspertuak kudeatzeko erabiltzen baitute. Mobila, sare sozialak, familien estruktura, berriak min handia egin dute, ez dutelako jakin hau kudeatzen”*. HitzAhokoek *“0-3 urte bitartean gurasoei ematen zaien formazioak egiten dute etorkizunean sor daitezkeen arazoei aurre egiteko tresnak ematea. Garrantzitsua egiten zait hau asko indartzea. Barrutik deskolokatuta eta familiatik babesa edo muga argiak ez dituen gazte bat aurkitzen duzunean arazoak babesa ez dutelako dela ikusten da”*

Etorkizunera begira zeintzuk diren adikzioen prebentzio gisara finkatu nahiko lituzketen oinarrien inguruan galdetzean garbi adierazi dute,, batez ere hezkuntza zentruetako arduradunak emozioen lantzearen garrantzia izugarria dela *“familiarrentzat babes gehiago egotea”, “eskuhartzeek jarraipena izatean denboran, eskuharzte puntuala ez izatea.”, “helduentzat ere gaiaren inguruko saioak egitea, ez izatea dena nerabeentzat”, “kontzientzazio kanpaina gehiago egitea” eta “legea betetzeko esfortzua egitea (interbentzioak infrakzioak daudenean)”* bezelako ideiak azaldu dira, batez ere azkenengo honetan indar berezia eginik, legeak ez dela beterarazten adierazita *“beste interes batzuekin txoke egiten dute ordea”* dio Ziortzakoak.

Behin talde eztabaida amaitu ondoren, beraiekin hitzegin eta zenbait eragile edota elkarteekin zuzenean hitzegitea interesgarri iruditzen zaigu, hau horrela pertsona zehatzengana jo dugu, Usurbileko argazki orokorra eduki ondoren norberak beraien elkarte edo inguruan ikusten eta bizi izan dituzten egoeren berri izateko. Honek azkenean taldean esan gabekoak esateko aukera izaten amaitu du. Horretarako, eta lehen eskuko informazioa jasotzeko, zuzenean Udarregi Ikastolako Zuzendaria, HitzAho guraso elkarte, Ziortzako Hezitzaileak, Lanbide Hastapeneko koordinatzailea, Gaztelekuko hezitzaileak, Zubietako Festen

Batzordekoak, Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoari luzatu dizkiegu galderak, batzuei modu fisikoan (aurrez aurre beraiekin geratuta) eta beste batzuei modu telematikoan.

Hauek adierazteko bakoitzak modu banatuan esandakoak adieraziko ditugu.

UDARREGI IKASTOLA

Ikastolan egin diren ekintza eraginkorrenak:

*“Ekintza batzuk aipatuko ditut, baina nolako eragina izan duten esatea ezinezkoa egiten zait. Planteatzen ditugunean, gure ustez eraginkorrak direlako da, baina errealitatean hori nola islatzen den ez da erraza esatea. DROGAMENPEKOTASUNA gaiaren inguruan DBH4. mailan **Izar Arregik** emandako saioak eraginkorrak direla esango nuke, ikasleen satisfakzio maila handia izaten delako. Egoera eta arazo pertsonalez hitz egiteko espazioa ematen zaie eta emailak dionez, parte-hartzea interesgarria izaten da, arazo pertsonalak kontatzeko eskaintzen zaien tarteak aprobetxatzen dutelako eta berak ere, profesional bezala, harira datozen bere kontsultako kasuak aipatzeko erabiltzen duelako. Programa hau, urtero KMK egunaren inguruan eskaintzen da, egun horren aurreko eta ondorengo saioak eskainiz, bertan bizi izandakoaren inguruko hausnarketa bultzatzeko aukera emateko.*

HEZIKIDETZA dela eta, Harremanitz taldekoek egiten duten lana ere oso baliagarria da adikzioen prebentziorako, izan ere emozio munduaren lanketak zuzenean eragiten du alor honetan, nahiz eta parekidetasuna ardatzat hartu. Lanketa hau LH 6. mailan eta DBH 1-2 eta 4. mailan gauzatzen da.

Aurtengo ikasturtean (17-18 ikasturtean) “Pantallas Amigas” taldekoek DBH4. mailakoen artean TEKNOLOGIA BERRIEN ADIKZIOEN inguruko ikastaro bat ere eskaini zieten. Hala ere, aurtun kasualitatez emandako egoera batek erraztu zuen hau; berez ez daukagu Tutoretza-programetan txertatuta eta ez litzateke txarra izango, hau zerbait kurrikular bihurtzea.

HH “Konfiantzaren Pedagogia” eta LHn egiten diren “GORPUTZALDIAK” ere oso lagungarriak dira emozio mundua behar bezala bideratzeko. Eta prebentzio mailan paper interesgarria jokatzen dutela esango nuke.”

Ikastolan aurrera eramandako ekintzetako parte-hartzea

“Nire parte hartzea antolaketa mailakoa da. Urte asko dira Orientazioan nagoela eta, hasiera batean, gurasoei eskaintzen zitzaizkien bileretan parte hartzen nuen, bertan

agertzen zitzaienaren berri izateko... Egia esan, niretzat ere baliagarriak izan ziren saio hauek.

Egun, gurasoentzat urtero antolatzen diren "hitzaldi/ikastaroetara" jende gutxi agertzen dela esango nuke, ikasle kopurua kontuan izanda.

Programan emandakoaren berri izateaz gain, aurrez, dugun ikasle perfilaren inguruan ere hitz egiten dut emailleekin, harreman zuzena dudalako. Arazoren bat antzematen bada, ikasle horrekin eskuhartzea egiten da edo, aditu batengana bideratzen da kasuaren arabera."

Balorazioa:

"Beharrezkoak iruditzen zaizkit, alderdi emozionala lantzea ezinbestekotzat jotzen dut eta. Eraginkorrak direlakoan egiten ditugu."

Usurbilek duen errealitatearen berri:

*"Ikasleen inguruan entzuten dudana bakarrik hitz egin dezaket. Ikasleen artean, **Teknologia berriak** asko ari dira zabaltzen eta etorkizunerako kezagarriak izan daitezkeen egoerak eman daitezke. Noizbait izan dugu ikasleren bat etxetik atera nahi ez eta makinitarekin eguna jolasean pasatzen duena eta, baita ere, gauean "gaupasak" egiten dituenak... Alkoholarekin pasatzen direla ere badakigu. Egun seinalatueta (Sagardo eguna, KMK, herriko festak...) gure belarrietara iristen dira zenbait kasu, zenbaitetan txosnetan bertan salduta; beste batzuetan, gurasoren batek ere sagardo kaxaren bat emanda... hau da, helduek gazteei zuzenean emandakoak. Alkohola eskuratzeko erraztasuna dute."*

Talde zahurgarriena:

Puntu honetan adin tarte ezberdinetan banatzen ditu arazoak, arazo orokortu bat ez dagoela adieraziz, hau da ez dela herri guztiarentzat arazoa ekintza edote sustantzia berdina arazo baizik eta adin tarte bakoitzak duela bere errealitatea: *"Mugikorrak gaztetxoengan", "Alkohola nerabe, gazte eta zaharragoengan, herrian asko poteatzen dela adierazten dute", "Droga kontuak talde espezifikotan, baina ezingo nuke zehaztu adina" "Kirolarekiko dependentzia ere aipatzen da: jende asko elikagai konplementarioak kontsumitzen, kirol gehiegikeria..."*

Arazoak handitu, txikitu edo berdin daude?

"Ikastolan ikusten dugunarengatik, talde batzuk (ikasle konfliktiboak, familia arazodunetik datozenak, mugarik gabekoak..) lehenago hasten direla kontsumoan (DBH2n eta noizbait DBH1 bukaeran ere) esan genezake. Lehenago hasteko joera badago, arazoa areagotu egin dela esan dezakegu. Eta kontsumo honi Teknologia berriena gehitu behar diogula ere kontuan hartu behar dugu."

Etorkizunean landu beharrekoak:

"Teknologia berriak eta hauen bitartez egiten duten kontsumoa (Sexu mailakoa ere). Drogamenpekotasuna eta alkoholaren inguruko lanketa, ondo legoke aurreratzea (DBH 2an hasia...) Parekidetasunarekin jarraitu beharra dago ere, hemen egiten den lanketa funtsezkoa da. Komenigarria litzateke ikastolan egiten denari jarraipena ematea gaztaroan (batxilergoan, Lanbide Heziketan...). 16 urte arte jasotzen duten formazioa aurrerantzean ere planteatzea."

Lanketa 3 eragileekin

*"Niretzat **gurasoak** oinarria dira, baina kontzienteak gara hauengana iristea ez dela erraza. Ikastolan antolatzen ditugun hitzaldi/ ikastaroetan... ohituta gaude premia gutxien duten gurasoen presentzia jasotzera. Eta behar handiena dutenak ez dira agertu ere egiten. Eta kalean, behin eta berriz ikusi ditugu eta entzuten dugu gurasoak, ume txikiekin tabernan sartuta ibiltzen direla parkeetan ibili beharrean... Ume horiei egiten zaien transmisioa ez zaigu iruditzen egokiena denik."*

"Badakigu, baita ere, urte batean ikasle talde bati, gurasoren batek, lokalera eraman ziela sagardo kaxa bat Sagardo eguna ospatzeko. Usurbil futbol taldeak ere antolatzen ditu, DBH1etik hasi eta helduengana iritsi arte, futboleko parte hartu duten guztien arteko afaria. Eta afari honetan, helduentzako barrika bat jarri izan dute bertatik edan dezaten, nahiz eta DBHkoak ere bertan izan. Ez dira ekintza oso eredugarriak helduengandik ateratzen direnak."

*"Bigarren kolektiboa **gazteena jarriko nuke (20-30 urte bitartekoak)**: salmentan ibiltzen direnean, erraztasunez saltzen diete gaztetxoei alkohola."*

Lehentasuna duten 3 ekintza

"1- DBH2ra drogamenpekotasuneko programa zabaltzea."

"2- DBH 1ean ere, orain egiten dutenaz gain, Teknologia berrien inguruko menpekotasuna lantzen hasia, (egun sare sozialaren erabilera egokiaren inguruko

lanketa gehiago egiten da). Horrek eskatuko liguke dedikazio gehiago, formazio luzeagoa alegia.”

“3- Adimen Emozionala ere garrantzitsua da, baina gaur egun Hezkidetzaren bitartez asko lantzen den gaia da. Eta ikastolan ere asko indartu dugu gai hau Gorputzaldien bitartez, HHko Konfiantzaren Pedagogia bitartez...”

Egindako eskuhartzeak

“Droga eta alkohol mundua ez da ikastola barruan ematen den zerbait. Gu kanpotik enteratzen gara, batzuetan, eta hala denean denbora dezente pasa eta gero.

Hala ere, bai izan ditugula, aurten, bi ikasle ordenagailuarekiko joera nabaria izan dutenak, egunerokotasunetik ateratzeraino. Kasu horretan murriztu egin zaie erabilera, fisikoki kentzeraino, izan ere beraiek ez ziren bere kabuz ordenagailua alde batera uzteko gai. Esan beharra dago aparteko kasuak direla, kasu bereziak, emozionalki oso desorekatuak (EPIko ikasleak dira) eta harremantzeko besteek baino zailtasun gehiago dituztenak. Hauetako batek, etxean ere muga gutxi du eta gurasoak gainezkatu egiten ditu. “

HITZAHO (guraso elkarteak)

Egiten denaren berri:

Guraso elkarteak bereziki esku-hartu zuen Kilometroaken harira Usurbilen eginiko prebentzio lanetan, baita antolakuntzan ere, baina badakite Ikastolak beraien seme-alabekin eginiko lana ere presente dagoela eta postiboki baloratzen dute, hala ere kexu dira “prebentzio lanketa handirik ez da egiten herri mailan, eta egiten bada gu ez gara horretaz jabetzen.”

Usurbilgo berri

“Alkohola normalizatuta dago eta kalamua ere asko kontsumitzen da”. Tabakoa eta Jokua gorantza doaz, nahiz eta badirudien tabakoa kontsumitzen dutenak gutxiago direla lehen baino. “Nerabeen mugikorren erabilera” ere aipatu dute. “Askok kostatzen zaigu guraso bezala mugikorren ordutegiak mugatzea” eta egiten duten erabileraren jarraipen bat egitea ia ezinezko bezala adierazi dute. Ziortzako udalekuetara joaten

direnean, bertan egun batzuk mugikorrik gabe pasatzen dituztela aipatu zuten eta uste dute, hau onuragarria izaten dela adin txikikoentzat.

Talde zahurgarriena zein den galdetzerakoan *“Taldeen arabera asko aldatzen da ,kontsumoaren aldeko talde presio handia dagoen kuadriletan, arriskua asko handitzen da”*. Arazoak hala ere gutxitu egin direla adierazi digute, *“lokalen kopurua gutxitu egin omen da”* argumentatuaz. Aldiz, alkohol kontsumoa igo egin denaren inpresioa dute, batez ere, beste herrietara joaten direnean.

Etorkizunari begira

“Sare sozialak, mugikorrak, alkohola, jokua, kea” dira landu beharrekoak, gai hauen inguruan jardunda. *“Heziketan dago gakoa.”* Horretarako gazteekin (DBH1-DBH4) eta Batxilergoan lanketa egitea ere ona izango litzatekela uste dute. Baino berandu izan daiteke, mugikorra, Play Station... moduko dispositiboekin lanketa egiteko, hauen inguruan jarduteko, haurrengatik eta Lehen Hezkuntzatik hastea proposatzen dute, *“lan heziketako zentroan (ostalaritza eta ileapandegia) eskuhartzea egitea ahaztu gabe”*. Beraiek antolatutako hitzaldiak, tailerrak eta ekintzetan partehartzea irekia dela adierazi digute, eta horrelako gauzak egitea funtsezkoa iruditzen zaie, hor entzunda eta ikasitako gauzek beraien fruitua emanaz.

ZIORTZAKO HEZITZAILEAK

ZIORTZAko hezitzaileekin biltzean, garbi adierazi ziguten beraiek ez zeukatela herri mailan zegoen Drogamenpekotasunen inguruko Planaren berririk, eta mahai inguruan adierazi ziren ekintza asko arrotzak egiten zitzaizkiela. Hala ere garbi utzi ziguten ez zetozeela bat Talde Eztabaidan azaldutako gauza batzuekin eta ez zutela nahi denen aurrean desadostasuna adierazi eztabaida txoroetan ez sartzeko (ez omen zen lehen aldia izango) horregatik gurekin bildutakoan adierazi digute beraien ustea.

Talde Eztabaidan festetan jartzen zen karparen eraginkortasuna zalantzan jartzen zuten *“gure nerabeetako asko gehien zenbatek ematen duen ikustera joaten dira, prebentzio ekintza lehiaketan bihurtuz”*. Gainera garbi ikusten dute, prebentzio lanketa guztiak hezkuntza formalera egokituta daudela, eta izugarrizko garrantzia ematen zaiola (eman behar zaion bezela), baina hezkuntza formaletik at dauden eragiletaz ahaztutzen direla, *“gutaz ere bai noski”*.

“Nerabeek egiten duten alkoholaren kontsumoa (13 eta 14 urte) izugarria da eta badakigu, badakigu ze festetan eta non edaten duten, gainera guk eskuhartzen ditugun gazte asko,(ikusteko nolako onartua dagoen dena) Sagardo Eguna, igandea izaten dela, eta hurrengo egunean ikastolara ez dira joan ez zirelako “ongi aurkitzen”, hau da, izugarritzko resaka zeukatelako”. “Zaharragoarena egiteko edaten dute, itxura kontua da baina eskuetatik joaten zaie,eta elkar zaintzen bukatzea, ondo pasatzearekin nahasten dute”

Oso kritiko azaltzen dira ere alkohola lortzeko duten erraztasunarekin, nahiz eta udaletxean edota herrian adierazi legea, zenbait kartel badaudelako taberna batzuetan etab. ondoren erraz lortzen dute, eta lortzen dutena kontsumitu egiten dutela adierazi digute.

Beraiek ere talde hezitzaile bezela, autokritika ere egin dute eta erabaki batzuk hartu ere bai *“lehen herriko gazteekin udalekuetara joatean begirale gisara joaten ginenok eta zirenak alkohola eramaten zuten, gazteak ohera sartzerakoan begiraleak parranda egin zezan, baina orain debekatu egin dugu, batez ere begirale askok udalekuak baloratzeko modua parranda asko edo gutxi egin dituenarekin baloratzen zutelako, eta eredu gara eta ahaztu egiten zaigu” “resakak ESTATUSA ematen zuen”*. Taldeko hezitzaile direnek adierazi die (18-25 urte bitartekoak) beraiek ere oraindik, lotsa galtzeko justifikazio bezala erabiltzen dutela alkohola, baita kanabisa ere, arriskuaren maila 0 dela esanik. *“usurbilen edozein sustantzia lortu daiteke, bai legala eta baita ilegal ere, badakigu nora edo norengana jo, eta guk baldin badakigu gartzetxoek ere segituan jakingo du”*.

Adikzio berriekin ere arduratuta adierazi dira, azkenean apustua egitea *“euskalherrian beti izan da tradizio”* eta ez zaio inongo arriskurik ikusten, eta alkoholak hobeto pasatzen laguntzen duen bezelaxe apostuak *“partidua interesarriago bihurtzen du”*

Lokalen fenomenoarekin ere kritikoak dira *“gazteek lokala nahi izaten dute, eta garbi dago nahi dutenak, kontsumoak modu anonimoagoan egiteko ERE erabiltzen dutela, 4 lokal ditugu guk identifikatuta eta zaila egiten zaigu beraingana gerturatzea, batez ere ez dutelako inongo ekintzetan partehartzen”*

Kontsumoak ez direla handitu sentitzen dute baino bai aldatu egin dela zer edaten den *“13-14 urterekin ia da GINKASA bezelako edariak edaten dituzte, eta lehen inguruko herriko/auzoko festetan ikusten ziren usurbilgo gazteen kontsumo gehienak, orain aldiz ez dago inongo lotsarik eta beldurrik herritik edalontziarekin joateko”*. Hala ere konsziente dira gazte asko ez direla berdinak eta ez kontsumitzearen aldeko apostua egiten dutela eta badaudela herrian, festetan seme-alabekin kanpora joaten direnak, hauek babesteko asmoz.

Amaieran ideia bat bota zuen hezitzaileetako batek *“debate bat egin beharko litzake herri mailan, hezitzaile izango garen edo ez, edota herri mailan ze irudi eman nahi dugun eztabaidatu. Zer egiten ari garen esatea oso polita da, baina errealitatea ez da paperean idatzia azaltzen dena, asteburutan edota festetan atera besterik ez dago”*. Adibide bezela Sagardo Egunean egoera kontrolatzeko proposatutakoak sortutako lixkarra jarri dute *“orain basoa erosi eta nahi adina sagardo edan daiteke, eta proposamena egin zen basoarekin tiket estiloko zerbait jartzea, edan daitekeen sagardo kopuru bat finkatuz, erabaki efektiboa litzatekela iruditzen ziagu, baino noski jendea berehala hasi zen kexuka eta atzera bota zen proposamena”*.

Beraientzat ere formazioa eskatzen dute, hezitzaile bezala egoera jakin batzuk bizi izan dituztelako eta beraien artean hartu dituztelako erabakiak, ikuskaritza estiloko zerbait eskertuko lukete, batez ere egoera askoei aurre egiteko, neskek mobilarekin egiten duten erabilera izugarria da *“beldurra ematen diguna da, ez direla gai argazkiak zintzilikatu eta horrekin eman dezaketen informazioa zein den ikusteko gai”*.

Eta galdera batekin bukatu nahi izan zuten gurekin egindako saiotxo hau *“hezitzaileok ze autoritate daukagu guk ezer esateko gurasoak beraien ekintzak babesten dituenen?”* babesik gabe antzematen direla adierazi digute, beraiek esku-hartze bat egin eta ondoren gurasoekin duten erlazio urriak gauza asko oztopatzen dituela.

USURBILEKO LANBIDE HASTAPENA

Lanbide hastapenekoekin biltzeko erabakia hartu genuen Talde eztabaidan, beraiek behar bereziak dituztela garbi dago eta honek azkenean nahiz eta beraiena ere hezkuntza zentru bat den, ikastolarekin alderatuta profil ezberdineko ikasleak dituzte jo muga.

Hezkuntza zentruan parekidetasun sailetik ekintza ezberdinak eramaten dira urtero *“HarremOnakekoekin saioak, Sexualitatea, Pantallas Amigas eta Izar Arregirekin drogomenpekotasunaren prebetzioaren inguruko saioak”*

Errealitate ezberdina aurkitu dute aurtengoan, hezkuntzatik egitura aldaketak izan dira eta honek zuzenean eragin die, mota honetako hezkuntza zentruak, Lanbide Hezkuntzan sartzeko alternatiba berri bat bailitzan aurkeztu baitute. Horrela 16 urte baino gutxiagokoak ere bertara ikastera joateko aukera dute, *“Aurtengoan aldaketak izan ditugu batez ere adin tarteak jesti delako, 15 urteko ikasleak ere baditugu eta oain arte hauek izugarritzko cannabis kontsumoak izan dituzte, kaleratuak izaten dira gelatik erreta etorritz gero eta ondoren beraikin*

tutoretza orduak egiten dira, honen inguruan hausnartzeko". Kontsumo berriak ez diren arren diziplina asko falta zaien ikasleak dira hauek eta, bertan profil antzekoa duten ikasleak batzen direnez zaila izan da hauek danak mendearen hartzea.

Oso kritiko azaltzen da hezkutza zentrua herrian eta inguruan duen famarekin, nahiko txarra dela, ez akademikoki baizik ikasleek duten profilaren harira, horregatik harro adierazi digu, azkenengo urteetan herriko zenbait ekintzetan parte-hartzeko aukera izan dutela., bertan ematen dituen tituluak oinarritzat harturik, *"Sukaldaritza eta Pelukeriakoak ditugu eta oso aktiboak dira herri mailan, herri bazkari udaletxeko lunchak etab prestatzen dituzte, pelukeriakoak aldiz, inauterietan kooperatibakoei laguntzen die makillaje lanetan"* gainera ikasleak oso positibo baloratzen duten ekintzak dira, nahiz eta asteburuetan eta izan oso gustura egiten dute lan eta hau ikasleentzat funtsezkoa da, asko komunitatetik at daudenaren ustea dute eta herriko ekintzetan parte hartzeak asko laguntzen dien autoestimuan ere *"eraikina fisikoki ere oso aislatuta dago"*.

Lan ezberdinak aurrera eramateko moduaren inguruan galdetuz gero oso argi daukate nola egin beharko litzakeen beraiena bezalako zentru batean, *"Eskuharzteak modu transbesal batean egitea gustatuko litzazuke, eskuhartzea egitera datozen teknikariek saioa eman, eta desagertu egiten direnaren sentsazioa ematen baitigu, kurtso guztiko eskuhartzea izatea interesgarri litzateke, hilean behin beraien presentzia edukitzea, bulegoren batean, kurtso hasieran gelan eskuhartu eta beraien presentzia hilean behin ikastetxean edukiaz"*. Lanketa puntualak ikasle hauekin balio ez duela adierazi digu, batez ere. Askok ez dute saioa aurretik inongo hausnarketarik egin eta saioan egondako eztabaidak eta iritzi edo informazio ezberdinak oso "ikututa" uzten die, ondoren galdera askorekin geratuaz, baita mugituta ere. Hori da azkenean lanketa modu jarrai batean egitearen eskaera, gaiak ukitu ondoren ikasleari espazio fisiko eta denborazko bat eman behar zaie hausnartu eta galderak eta kezak adierazteko, eta saioak bukatutzat ematen direnez, galdera asko erantzunik gabe geratzen dira. *"Geletan emozio asko ateratzen dira, eta oso mugituta amaitzen dute ikasleek... AUTOESTIMA falta izugarria dute, porrot egin dutelako baitaude dauden tokian, eskola porrotaen ondorio dira. Familia aberatseko ikasleak ditugu. Perfila aldatu egin zaigu, lehen inguru marginalekoak edo baliabide gutxiko nerabeak ziren bertan zeudenak eta guztia asko eskertzen zuten, orain arte planteatzen ez zuten etorkizun laboral bat edukitzea ekartzen baizien. Aurtengoan aldiz abokatu eta sendagileen seme-alabak ditugu eta errespetu falta, limiteak errespetatzeko gaitasun gutxi... ARAZOAK HANDITU ZAIZKIGU."*

Hezkuntza Zentro guztiek dituzten arazoekin ere aurkitzen dira, *“3 kolektibokin egin nahi dugu lan baina zaila da, nerabe, guraso eta zentroko irakasleekin, baina zaila da gurasoen artean hau egitea ez baitatoz”*

Lanketa psikologiko bat ere eskatzen dute, gizarteaz baztertutzat ematen diren etorkizuneko pertsonekin ari baitira lanean eta honek karga handia suposatzen du bertakoenzat *“Lanketa psikologiko bat egitea planteatzen dugu, autoestima eta beraien irudia lantzeko eta ondoren hemendik prebentziorako izango diren tresnak ematea. Baita HEZKUNTZA MAHAIAN partehartzea ere, bai fisikoki eta baita lanketa eremuan baztertuta daudela sentitzen baitute ikasleek, eta herri mailan egiten diren ekintzetan partehartzean ikasleak oso baloratuak sentitzen dira eta ilusioa izaten dute larunbatetan ere ikastetxera gerturatzeko, zerbait raktikoa eta PROBETXUZKOA egiten dutela sentitzen baitute”*.

Elkarlanean jardutera irekita daude, eta asko eskertuko lukete edozertarako beraiekin ere kontatzea.

ZUBIETAKO FESTA BATZORDEA

Usurbilgo errealitatearen berri edukitzeko gazte talde honetara gerturatu gara, nahiz eta hasiera batean herriko festa batzorde guztiak bildu eta beraiekin talde eztabaida bat egiteko aukera eta nahia adierazi zen, azkenean gonbidapenari uko egin eta Zubietako lau gazterekin bildu ginen, bertako festa batzordeko kide direlarik, hemen adierazitakoa da bertan bildu duguna.

Hasteko eta behin ez dakite herriko Planaren berri ezta herrian egiten diren ekintza asko plan horren barrenean daudela *“nik gogoan daukat herri mailan zerbait egin dela, deialdi ireki bezela honen ignuruan hausnartzeko baina beste ezer ez”*. Festetan egiten den Testingaren postuaren berri zeukaten, baita Udarregi ikastolan egin ohi duten prebentzio saioaren berri ere, hala ere *“Zubietako gazteak gara eta askotan Lasartera edo inguruko herrietara jotzen dugu eta Usurbileko berri bakarrik edukitzeaz gain, inguruko herrietan dagoenarekin konparatzeko joera daukagu, gainera nik Iruñan ikasten dut eta gaur egun Usurbiletik pixkat urruti nago, batez ere parranda kontuan”*dio batek.

Ikastolan edukitako prebetzio saioen inguruan eztabaida sortu da, batez ere noiz egin direnaren inguruan batzuk diote Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza guztian landu dutela eta beste batek kurtso baten bakarrik. Honen aurrean *“gauzak asko aldatu dira urte gutxitan,*

orain saio gehiago egiten dira, eta gertuago lantzen dute gaia, sexualitatea eta drogak izan dira ikastolan landu izan ditugun bi gai potenteenak”.

Usurbilgo errealitatea inguruko herrikoekin konparatzen jarri diren momentuan *“bastante antzeko, hala ere Usurbilen giroa dago, eta giroa dagoen tokian gehiago mugitzen da, hemengo jendea ibiltzen da, badaude herriak gehiago kontsumitzen dena eta badaude gutxiago kontsumitzen dutenak”.* Eta Usurbileko kontsumoen pertzepzioari dagokionez, *“asko eragiten du ze urtetan jaio zaren edo ze giroan mugitzen zaren, gure kinta oso sana da zentzu horretan”.* Jende heldu asko dago kontsumitzen duena, eta hori ikusi egiten dute, eta beti nerabe edota gazteengana jotzen dugu lanketak egiterakoan, helduekin lan egitea proposatzen dute, eredu desegokia diren asko baitaude.

Sagardo eguna eta *“kalexarreko”* San Juanetan hasten dira gaztetxoak kontsumitzen, beraien ustez, eta hori horrela izan da azkenengo urte dextentetan. *“prozesu bat antzematen da, lehen kalexarreko parkean egote ziren gaztetxoak eta bertan egiten zituzten kontsumoak, ezkutuan edota urruti dagoen gunea baitzen, eta gero berbena dagoen gunera mugitzen ziren, eta azkenekoan txosnara gerturatzeak ausardia izaten zuen, adinak ematen zuen distantzi hori motzago egiteko eskubidea”.* Aurrez erositako edariak kontsumitzea ez da oso ohikoa Usurbilen, tabernetan lortu eta kontsumitzen dute, lokaletan agian joera hori gehiago da.

Usurbilen lokalen moda pasa omen da, eta jende helduak dituzte, nerabeek dituzten lokalen kopurua jetsi egin omen da, *“lehen 15 urteekin zuzenean lokalera sartzen ginen, baino Usurbilen ez dago ez beste ezer egiteko, ez genuen ezer egiten telebista ikusi besterik ez, baino beharrezkoa egiten zitzaigun, bestela kalean ginen hotza txupatzen. Gainera gurasoak babetsen zigun kontratua firmatuaz eta horrela”.*

Jende helduak eta gazteak kontsumitzen dituzten sustantzia ezberdinak dira, Speeda, MDMA, Kokaina, Ketamina bezalako sustantziak kontsumitzen dituzten helduak daude herrian *“eta honen mugimendua bai ikusten da, badakigu nora jo edo norengana gerturatu zerbait lortu nahi izanez gero”.* Baino kontsumitzaileek ez dakite zer dabilzan kontsumitzen eta ez dira kontziente ze arrisku dituzten, agian batzuk bai baino gehienak ez, *“baino kontsumitzearen erabakia modu kontziente batean egiten dutenak uste dugunak baino gehiago dira”.*

Nerabeek ez dute inongo arazorik alkohola lortzeko Usurbilen *“0 arazo, guk Urbilen erosten genituen”.* Gainera, tabernetan erre egiten da, nahiz eta legeak kontrakoa esan,

marihuana kontsumoa oso altua da, eta inongo arazorik ez dute izaten kontsumitzeko *“arazoak normalean kapitalera joaten bazara azaltzen dira, baino Usurbil? Ciudad sin Ley”*.

Herriko festetan antolatzen diren ekintzetan partehartzen saiatzen dira, baina oso joera berdina izaten duten ekintzak dira, musika estilo bat, arratsaldeetako ekintza antzekoak... ez dago ezer berritzailerik *“zertarako aldatu honekin ya farra polita badago ezta?, baino egia da festetan barietate gehigo egon beharko lukeela, arratsaldeetan gazteentzat jartzen den gauza bakarra elektrotxaranga dira, eta honek ere poteoko ruta jarraitzen du, tabernariak gustura izango dira! gazte asko gainera lokaleko iluntasunetik tabernetara gerturatzeko elektrotxarangaren aitzakia erabiltzen dute, eta hobeto da horrela”*.

Apostuak egiteko joera duen gazte asko daude, eta tabenetan dauden makinak erabiltzen dituzte eta batez ere Zubietan *“plazan taberna bakarra dago eta hori zaldi apostuetara dedikatzen da, hipodromoa gertu izan da, abuztuak 15n karrera berezi bat izaten da, PULL edo horrelako izena dauka eta auzoan izugarria izaten da, konpoko jende pila etortzen da apostuak egitera, eta taberna itxi egiten da horretarako, 40€ afaria, zerbait eskusiboa bihurtzen da, dirutza mugitzen da, hurrengo egunean Kopa de Oro dago eta hor diru gehiago. Egia da bertan daudenak ez dira herritarrak eta diru pila jokatzen da”*.

Ezberditasunak antzematen dira oraingo eta lehengo gazteek nola bizitzen duten denbora librean *“tresna gehiago dituzte eta eskura, mobila...guk behar genuen Zubietara itzultzeko baino llamacuelgak egiteko erabiltzen genituen”*. Baina kritika urte batzuk atzera ere zuzentzen dute, batez ere beraiek instrumentu horiek ez zituztelako ez zituztela erabiltzen diotenean, *“guk aplikaziorik ez genuen, tuentia eta fotologa eta internetek eskainitako plataformak ziren eta asko erabiltzen genituen, orain aplikazioak daude eta egun osoan dituzu aktualizazioen inguruklo informazioak, lehen zuk sartu beuhar zenuen aldaketrik zegoen ikustera, orain abixatu egiten dizu eta horrek ere gauza asko liatu du”*.

Usurbilgo aisiarekin kritiko dira *“parke berritik eta udarregiko eremuko moda edo garaia pasatzen zaizunen zer egiten duzu Usurbilen? Egia da gaztelekuak asko egin duela baino adin bat dauka tope eta astetartean bi arratsalde eta larunbat arratsaldeak bakarrik irekitzen dituzte”*.

Lehen taberna batean izugarrizko bizitza egiten zuten gazte askok, eta orain itxi egin dute eta faltan asko botatzen da herrian, gazte asko han elkartzeko ziren eta belaunaldi ezberdinen arteko komunikazioa gertatzen zen, baina hori ez dagoenetik gauzak aldatu egin dira, eta asko galdu du. *“hala ere Irrati itxi zenetik gazte mugimendu bat sortu da, asanblada*

estiloko bat, baijan esan beharra dago, neskak ez zeudela Irratin ez tabernetan, neskak arazo bat daukagu aisiarekin, neska gazteak herrian bilatzea oso zaila da, aparte eta ezkutun egoten dira". Txosna batzordean ere gazte asko sartu dira, eta asko neskak.

Neska eta mutilak ez dute berdin kontsumitzen Usurbilen, alkohola agian bai baina beste sustantziak ez. Marihuana mutilak askoz gehiago erretzen dute, nerabeetan ez dakite oso ondo *"baina adinean aurrera eginaz, kontsumitzen jarraitzen duten ia gehienak gizonezkoak dira, eta gainontzeko sustantzi ilegalei begiratuta, gehiago mutilak, jokua ere mutilak, mutilak dira arazo gehiago dituztenak, publikoki behintzat"*.

Festa batzuk antolatzeaz arduratzen direla eta konturatu dira adin txikikoak barraren beste aldean ezin dutela egon, baina *"bestela ez genitun barra turnoak betetzea lortuko, baina esan beharra dago udaletxetik abixatzen digutela legearen nondik norakoak nolakoak diren. Gazteenak dira txosnan lan egiteko gogo gehiena izaten dutenak eta turnoak egitea da, festa batzordeko partaide izatera pasa nahi dutenak egiten duten lehen kontaktua"*.

Adin txikikoei alkohola salmentaren inguruan hausnarketa egina dute baina titulo pertsonalean, graduazio altuko txupitoak eta ez dizkie ateratzen taldeko kideak *"garagardoa eta kalimotxoa eta horrelakoak bai, baina ron txupitoak? laz oso gaizki pasa nuen gai honekin, txupito eske etortzen zirenean, edo kubatak ere oso gutxi kargatuta, baino Zubietako festetan Usurbilen ikusten diren egoerak ez dira bizitzen, Usurbileko festetan gehiago da"*.

Auzo ezberdinetako festetan errealitate oso ezberdina bizi dela diote, *"Kalexarren ba kontsumo gehiago egoten da adintxikikoen aldetik, Zubietara bertakoak izaten gara eta etortze denak pertsona helduak izan ohi dira, edota gurasoez lagundutako gazteak, oinez urrutik dago eta... Atxegaldeko festak fama hartu dute gaztetxoenen artean, edo Agiñako San Praixkuak ere ikasturte hasiera izan ohi da eta geletako eta kurtsoetako afari asko izaten dira baita kintako afari asko ere"*.

Usurbilek duen arazoa zein den galdetzean, gizarteak duen arazo berdina dela adierazi digute, *"drogak nola kudeatu erakutsi beharko ligukete, eta gero beraiek ikusi beharko lukete, informazioa eman eta tabu izaera hori kendu behar zaio, izkutuan egiten den zerbait izateari utzi behar dio"*. Isuna jarri beharrean ikastaro moduko zerbait egitea eraginkorragoa ikusten dute, gehiago baloratuz, *"guri iristen zaigun mezua ez hartu drogak da, gizarteak horrela diolako, sexualitatea bezelaxe e? bi gai tabuenak dira. Ikastolan eginiko saioen oso oroitzapen ona daukat eta asko ikasi nuen, baina zerbait anekdotiko bezala geratzen da. Baino garbi dago zenbat eta tabuago izan gaia curiosidade gehiago sortzen die."*

Azkeneko urtean guraso batzuk kexatzen hasi ziren txosnetan alkohola saltzen zitzaela adin txikoei *“munduko errezena da hori egitea, eta baloiak kanpora botatzea dela iruditzen zait, guk gure artean landu behar dugun zerbait dela bai, baino gurasoek egin dezaketen eta egiten duten gauzik errazena da, ardura txosnetakoari bota, eta zer hasi behar dugu lanean lepo gaudenean NANA eskatzen hasi? Gurasoak ere seme-alabak nola hezten dituenak ere zer esanik izango du ezta? Lanketa guraso edo helduekin ere egin behar da, batez ere erantzukizunari dagokionez. Ume eta gazte asko ikusten dira gauean gurasoekin poteatzen, eta Usurbileko errealitatea hori da, zer nahi dute ba gazteak egitea? Hori ikasi dute eta! Eredu onenak ez dira Usurbilko gurasoak egiten dituztenak”*.

Hala ere, mugitzen zaren giroak ere asko baldintzatzen du kontsumitzen duzun droga zein izango den, taldean egiten diren kontsumoak direlako eta gustu musikalak zer esan handia dauka hortan guztian *“lehengoan egon ginen hortaz hitzegiten lagun artean, hippiak LSD, eskinetoak speed, eta farlopa, poligoneroak Keta, eta punkiak denetik, talde izaeran ematen du”*. Nesken lagun taldean agian ez gara hortaz hitzeiten jartzen, nesketan tabuago da drogen gaia mutiletan baino.”

GIZARTE ZERBITZUAK

Gizarte Zerbitzuekin bilera fisikoa ezin izan dugu egin, hau horrela gure kontaktua denaren bidetik jaso dugu bertako informazioa. Usurbilen dagoen errealitatera gerturatzeko asmoz bertan jasotako eta beraien funtzionatzekoaren inguruan galdetu diegu. Argi eta garbi adierazi digu beraiek esku artean dituzten zenbakiak eta datuak ez direla kontuan hartzeeko modukoak, batetik kopuru txikia direlako eta bestetik askotan adikzioaren bat edo arazoren bat duenak borondatez jotzen duelako zuzenean horretan lan egiten zuten zerbitzuetara.

Datu gutxi izate honek ez du oztopatzen protokolo estiloko bat ez izatea horretarako, laguntza eskaera jaso eta multzokatu egiten dituzte, *“ez da berdina joku arazoa, alkohol kontsumo arazoa edota beste sustantzia batekin izatea arazoak, arazoa zein den identifikatu eta erantzun egokia eman dezakeen baliabideak bilatzeari ekiten diogu”* hau horrela, badaukate sare bat egina, inguruko zerbitzuak ezagutzen dituzte, eta bertara bideratzeko aukera egin behar denean horixe egiten dute, herrian dauden zerbitzuak ez baitira oso anitzak. Ohikoena, bailara mailako zerbitzuetara bideratzea da *“Gizakia helburu, AGIPAD...”* eta noski ez dugu ahaztu behar osasun esparrura ere bideratzen direla kasu asko *“osasun mentalera batez ere”*.

Hala ere, gizartearen adierazgarri, normalean Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske gerturaten direnak ez dira arazo posiblea dutenak izaten, baizik familiako kide edo zeharka egiten diren laguntza eskakizunak izaten dira, laguntza eskatzeko lehen pausua izanik.

USURBILGO GAZTELEKUA

Balorazioa:

Lanketa espezifikoa egiten ez dutela adierazi digute, hau da, lanketa formal estilora *“ez gara jartzen gaur drogaz hitzegingo dugu esaten, baina jaiak gerturaten ari direla edota jaiak ondoren gaia ateratzen digute eta eztabaidatzen jarduten gara hausnarketa helburua izanik”*. Herriko ekintza ezberdinetan parte hartzen dute eta festetan ere beraien programazio alternatiboa egin ohi dute, gazteei alternatiba ezberdinak eskaintzeko *“festetan ekintza ezberdinak proposatu genituen gazteentzat, festetako programazioaz aparte, Gaztechef, dj bat, ur eta zikin jolasak... bezelako gauzekin, gazteak taberna eta parrandaz aparte gauzak egin zitzaten eta uste genuena baino emaitza hobea lortu genuen”*.

Diagnostikoa:

Herriko errealitatearen pertzepzioaren inguruan galdetzerakoan nahiko arduratuta azaltzen dira, herriko festak, Sagardo Eguna eta horrelakoetan kontsumora bideratutako ekintza konstanteak daudela adieraziz *“Sagardo egunean azken urteetan arazoak egin dira, eta ez da erabakirik hartzen horiek saihesteko edota gutxitzeko, nerabeak lasaitasunez alkohola erosi eta kontsumitzen dute, helduen presentziak inola ere mugatuz”*.

Santu Enean mugimendu asko egoten da, batez ere kalamu kontsumitzaileekin, erre edota trapitxeatu bertan egiten dutelako eta nerabeak honen jakinen gainean daude eta badakite nortzuk eta noiz diren kontsumitzaileak, eta noski *“lortu nahi izanez gero ere badakie beratra joan eta lortuko dutela”*. *“Edari energetikoekin ere ardura zabaltzen ari da gure artean, eta nahiz eta gure gazteak helduek egiten dituzten kontsumoekin erlazionatu, askok probatu eta kontsumitzen dute egun normal batean”* gainera argi eta garbi adierazi digute hezitzaileek Usurbilen DBH3ko ikasturtean hasten direla alkohola kontsumitzen.

Tabakoari dagokionez, gazteek kirolarekin duten erlazioa ikusita (herri kirolaria da Usurbil), alderdi negatiboak ikusten dizkie eta tabako kontsumoak berakada nabaria jasan duela adierazi digute, *“baina gaur egun gaztelekuko ekintza bat mobilik gabe hastea ezinezkoa da, adikzioa baino obsesio bat daukate hauekin eta beraien osagarri bat da”*.

Lokalen errealitatea ere aldatu egin dela aipatu dute *“lehen kuadrilaka hartzen zituzten lokalak, orain aldiz denak batera hartzen dituzte, errealitate ezberdineko gazteak toki bera elkarbanatuaz”*.

Ilido estrategiakoak:

Gaztelekua egun gehiagotan irekitzea eskatzen dute gazteak, gustura sentitzen diren espazio bat delako, baita adin tartea zabaltzea ere Batxilerrera pasa diren gazte askok erlazio zuzena baitu oraindik gaztelekuarekin eta.

Festen inguruan ere hausnarketa bat bultzatu beharko litzake *“ez zaigu normala iruditzen Gynkanan parte hartzen dutenen saria txupitoak izatea, askotan gure gazteak direnean hor parte hartzen dutenak”*. Alkohola lortzeko zailtasunik ez dute izaten herrian *“baina egia da, gehiengo bat Oriora joaten dela alkohola erostera, edo zenbait kasutan gurasoak izaten direla alkohola erosten dietenak, edo SantuEnean ere zerbait badabil”*. Ostalaritzakoekin, gurasoekin nerabeekin modu ez formal batean ere landu beharko litzake, gurasoekin alderdi emoziolari eman beharko litzaioke indarra, nerabeekin *“kuadrilako eremuan eskuhartzea interesgarria izan daiteke, eroso eta lasai sentitzen diren giroa baita”*, eta dendari eta ostalariekin legearen nondik norakoak eta udaletxeak ere ekintza desegokiak nola zigortu ere pentsatu beharko lukete *“askotan nerabea kulpabilizatzen baitugu, baina nahiz eta legea guk gogorarazi gazteei, ez dut sekula Usurbilen isuna edo ixte agindu bat ikusi, nahiz eta jakin eta argia izan adin txikikoen alkohol salmenta”*.

Ekintzak:

“Familiekin lanketa sakona egingo nuke, gaztelekutik kanpo geratzen diren gazte kuadriletara heltzeko herri mailako ekintzak egingo genituzke, gure ikuskaritzatik kanpo geratzen dira eta beraingana heltzeko modu egokia litzateke, eta festetako antolakuntzan, helduak nahi dugun festaz aparte haur eta gazteentzat egokiak diren fesa batzuk antolatzeari indar berezia egin beharko litzaioke”



USURBILGO UDALTZAINGOA / HERNANIKO ERTZAINZA KOMISARIA

Usurbilgo errealitate legalera gerturatzeko Udaltzaingora jo dugu, beraiek kontrola nola gauzatzen duten eta kontrol hauen ondorioak zeintzuk diren jakiteko, hau horrela udaltzaingotik Hernaniko Ertzaintzaren komisaldegira bideratu gaituzte, drogen konfiskatze eta kontrol lanak beraiek egiten dituztela argudiatuaz. Honegatik Ertzaintzaren datuak dira hemen azaldutakoak. (Datuak 2018ko uztaila arte bildutakoak dira 2015tik hasita).

2015 tik 2018ko uztailera eginiko kontrol prebentiboen kopuruak honakoak izan dira:

AÑO	CONTROLES DE ALCOHOLEMIA
2015	28
2016	56
2017	44
2018 (hasta 19 julio)	28
TOTAL	156

Ez dizkigute luzatu positibo eman dutenen kopuruak (informazio guztia ezin baitute publiko egin). Konfiskatze kopuruei dagokionez datu esanguratsu hauek eman dizkigute (6 hilabeteen konfiskatze gehiago izan dira 2018an beste urte guztiak kontuak hartuta baino). Eta bereziki kalamuarekin erlazonatutakoak dira (326,2gr, hurrengo Speeda izanik 56,86gr.ekin)



Urtez urte horrela joan da gauza:

AÑO	EXP. LSC*	ATESTADOS*	DET/IMP*	HACHIS	SPEED	MARIHUANA	EXTASIS	HEROÍNA
2015	7	0	0	26 gr		54,05 gr		
2016	6	0	0	6,1 gr	0,96 gr	12,95 gr		
2017	4	0	0	2,3 gr		235,3 gr		
2018 (hasta 19 julio)	9	2	2	4,35 gr	55,9 gr	23,9 gr	0,25 gr	0,43 gr
TOTAL	26	2	2	38,75 gr	56,86 gr	326,2 gr	0,25 gr	0,43 gr

ALKOHOLARI BURUZKO JAIETAKO KANPAINA (SASOIA)

“Adingabeak eta Alkohola programa”

Herriko jaien barruan, alkoholaren gehiegizko kontsumoari buruz sentsibilizatu, informatu eta arreta hartzeko kanpaina egin da Adingabeak eta Alkohola Programaren barruan; horretarako, **Usurbilen ekainaren 30ean, larunbata**, “Alkohol mailaren froga” egin zen. Froga egokitutako stand batean egin zen, eta bertara, interesa zuten pertsona guztiak borondatez joan ziren.

Lehenengo eta behin galdera-sorta bete behar zuten; bertan, adinari, sexuari, erretzaileak diren edo ez eta egindako alkohol kontsumoari buruz galdetzen zitzairen, baita lekualdaketa bat egin ezker hori nola egingo zuten. Ondoren, alkohol mailaren froga egin zitzairen nahi zutenei.

Bukatzeko, informazio txartel batzuk eman zitzaizkien, eta eskuratutako kontsumoari buruzko norberari egokitutako azalpenak ere; halaber behar izan ezker, itxaron beharreko denbora-tartea zein zen esan zitzairen.


Froga eguerdiko **00:00etatik 03:30etara** egin zen, **lau pertsona** adituren parte hartzeaz.

KANPAINAN ESKURATUTAKO EMAITZAK

Proba, **guztira, 229 pertsonen** burutu zuten; horietatik %55,02 (126) gizonezkoak ziren eta %44,98 (103) emakumezkoak.

Parte hartu zutenen adinak 16 eta 62 urte bitartekoak izan ziren. Gehien parte hartu zutenak 18 eta 20 urte bitartekoak izan ziren %31,88 batekin eta jarraian 21 eta 25 urte bitartekoak %25,76rekin.

	Gizonezkoak			Emakumezkoak			GUZTIRA		
16 baino gutxiago	0	%	0,00	0	%	0,00	0	%	0,00
16 eta 17 urte bitartean	5	%	2,18	4	%	1,75	9	%	3,93
18 eta 20 urte bitartean	40	%	17,47	33	%	14,41	73	%	31,88
21 eta 25 urte bitartean	38	%	16,59	21	%	9,17	59	%	25,76
26 eta 30 urte bitartean	9	%	3,93	11	%	4,80	20	%	8,73
31 eta 35 urte bitartean	9	%	3,93	3	%	1,31	12	%	5,24
36 eta 40 urte bitartean	8	%	3,49	10	%	4,37	18	%	7,86
41 eta 45 urte bitartean	7	%	3,06	9	%	3,93	16	%	6,99
46 eta 50 urte bitartean	6	%	2,62	4	%	1,75	10	%	4,37
51 eta 55 urte bitartean	1	%	0,44	8	%	3,49	9	%	3,93
56 eta 60 urte bitartean	2	%	0,87	0	%	0,00	2	%	0,87
61 eta 65 urte bitartean	1	%	0,44	0	%	0,00	1	%	0,44
65 urte baino gehiago	0	%	0,00	0	%	0,00	0	%	0,00
Guztira	126	%	55,02	103	%	44,98	229	%	100,00



0,5 gr/l. baino beheragoko indizearekin eta 0,5 gr/l. baino gehiagoko indizearekin positibo eman dutenen artean bereizi behar da; izan ere, hori da gidatu ahal izateko legeak baimentzen duen muga.

	Gizonezkoak		Emakumezkoak		GUZTIRA	
Negatiboak	38	% 16,59	44	% 19,21	82	% 35,81
Positiboak	56	% 24,45	41	% 17,90	97	% 42,36
Informazioa	32	% 13,97	18	% 7,86	50	% 21,83
Guztira	126	% 55,02	103	% 44,98	229	% 100,00

Positiboen tasak:

	Gizonezkoak		Emakumezkoak		GUZTIRA	
	Positiboak		Positiboak		Positiboak	
16 baino gutxiago	0	% 0,00	0	% 0,00	0	% 0,00
16 eta 17 urte bitartean	1	% 0,44	0	% 0,00	1	% 0,44
18 eta 20 urte bitartean	20	% 8,73	18	% 7,86	38	% 16,59
21 eta 25 urte bitartean	16	% 6,99	7	% 3,06	23	% 10,04
26 eta 30 urte bitartean	6	% 2,62	3	% 1,31	9	% 3,93
31 eta 35 urte bitartean	4	% 1,75	0	% 0,00	4	% 1,75
36 eta 40 urte bitartean	2	% 0,87	4	% 1,75	6	% 2,62
41 eta 45 urte bitartean	2	% 0,87	6	% 2,62	8	% 3,49
46 eta 50 urte bitartean	4	% 1,75	1	% 0,44	5	% 2,18
51 eta 55 urte bitartean	1	% 0,44	2	% 0,87	3	% 1,31
56 eta 60 urte bitartean	0	% 0,00	0	% 0,00	0	% 0,00
61 eta 65 urte bitartean	0	% 0,00	0	% 0,00	0	% 0,00
65 urte baino gehiago	0	% 0,00	0	% 0,00	0	% 0,00
Guztira	56	% 24,45	41	% 17,90	97	% 42,36

Negatiboen tasak:

	Gizonezkoak Negatiboak			Emakumezkoak Negatiboak			GUZTIRA Negatiboak		
16 baino gutxiago	0	%	0,00	0	%	0,00	0	%	0,00
16 eta 17 urte bitartean	1	%	0,44	3	%	1,31	4	%	1,75
18 eta 20 urte bitartean	13	%	5,68	12	%	5,24	25	%	10,92
21 eta 25 urte bitartean	13	%	5,68	7	%	3,06	20	%	8,73
26 eta 30 urte bitartean	1	%	0,44	7	%	3,06	8	%	3,49
31 eta 35 urte bitartean	1	%	0,44	1	%	0,44	2	%	0,87
36 eta 40 urte bitartean	2	%	0,87	6	%	2,62	8	%	3,49
41 eta 45 urte bitartean	2	%	0,87	3	%	1,31	5	%	2,18
46 eta 50 urte bitartean	2	%	0,87	2	%	0,87	4	%	1,75
51 eta 55 urte bitartean	0	%	0,00	3	%	1,31	3	%	1,31
56 eta 60 urte bitartean	2	%	0,87	0	%	0,00	2	%	0,87
61 eta 65 urte bitartean	1	%	0,44	0	%	0,00	1	%	0,44
65 urte baino gehiago	0	%	0,00	0	%	0,00	0	%	0,00
Guztira	38	%	16,59	44	%	19,21	82	%	35,81

Informazioa bakarrik:

	Gizonezkoak Informazioa			Emakumezkoak Informazioa			GUZTIRA Informazioa		
16 baino gutxiago	0	%	0,00	0	%	0,00	0	%	0,00
16 eta 17 urte bitartean	3	%	1,31	1	%	0,44	4	%	1,75
18 eta 20 urte bitartean	7	%	3,06	3	%	1,31	10	%	4,37
21 eta 25 urte bitartean	9	%	3,93	7	%	3,06	16	%	6,99
26 eta 30 urte bitartean	2	%	0,87	1	%	0,44	3	%	1,31
31 eta 35 urte bitartean	4	%	1,75	2	%	0,87	6	%	2,62
36 eta 40 urte bitartean	4	%	1,75	0	%	0,00	4	%	1,75
41 eta 45 urte bitartean	3	%	1,31	0	%	0,00	3	%	1,31
46 eta 50 urte bitartean	0	%	0,00	1	%	0,44	1	%	0,44
51 eta 55 urte bitartean	0	%	0,00	3	%	1,31	3	%	1,31
56 eta 60 urte bitartean	0	%	0,00	0	%	0,00	0	%	0,00
61 eta 65 urte bitartean	0	%	0,00	0	%	0,00	0	%	0,00
65 urte baino gehiago	0	%	0,00	0	%	0,00	0	%	0,00
Guztira	32	%	13,97	18	%	7,86	50	%	21,83

Autoz egin beharreko lekualdaketak:

Ondorengo orduetan gidatuko behar zuten galdetzerakoan, **parteartzaileen %11,79k (27 pertsonen) autoa hartuko zuela esan zuen.**

Hurrengo datuak lortu genituen:

- **5 gizonen eta 8 emakumeen (%5,68) emaitza negatiboa eman dute.**
- **7 gizonen eta 5 emakumeen (%5,24) emaitza positiboa eman dute.**

➤ **Gizon batek eta emakume batek (%0,87)** bakarrik **informazio eske** etorri dira stand-era.


Partaide horiei sakon azaldu zitzaien alkoholaren eraginpean gidatzeak ekartzen dituen eraginak eta horrek dakartzan arrisku pertsonalak eta lege-arriskuak. Halaber, odol litro bakoitzeko 0,5 gr. baino gehiagoko indizea jaisteko itxaron beharko luketen gutxi gora beherako denbora-tarteen berri ere eman zitzaien.

Gidatu behar ez zuten parte-hartzaileen garraioa zein izango zen galdetzerakoan, hurrengo datuak lortu genituen:

- **Oinez 160** pertsona joan dira, **%69,87**.
- **Kotxez laguntzaile** bezala joango diren pertsonak **7** izan dira, **%3,06**.
- **Garraio publikoan 35** pertsona joan dira, **%15,28**.


Tabakoaren kontsumoa:

Adin berdineko taldeen kopuruak ikusita tabako erretzaileen emaitzak honela geratzen dira:



Kannabisaren kontsumoa:

Adin berdineko taldeen kopuruak ikusita kanabis erretzaileen emaitzak honela geratzen dira:



LABURBILDUZ:

1. 16-62 urte bitarteko 229 pertsona izan dira stand informatibora hurbildu direnak.
2. Parte hartu dutenen gehiengoa gizonezkoak izan dira, hau da erabiltzaileen %55,02.
3. Jasotako positiboak (odol litro bakoitzeko 0,5 gr. baino gehiagoko tasak) %42,36 izan dira, horietatik gehiengoa gizonezkoa izanik.
4. Erabiltzaileen 11,79k kotxea hartuko zuela esan zuen baina horietatik %5,24k, onartutako alkoholemia tasa gainditzen zuen.
5. Kontsumitutako beste droga batzuei dagokionez, erabiltzaileen %25,33k tabakoa kontsumitzen du eta %9,61ek kannabisa.
6. 50 pertsona (18 emakume eta 32 gizon) izan dira, stand-era hurbildu direnak, alkohola edo/eta beste substantzia batzuei buruzko informazioa soilik jasotzeko.

DIAGNOSTIKOAN LORTUTAKO ONDORIO ETA BEHARRAK

Usurbilgo eragile ezberdinekin eginiko elkarriketa, eztabaida talde eta bileretan ikusitakoaren arabera Usurbilgo errealitatearen berri orokor bat ez dutela iruditzen zaigu, hau da, adin tarte edota eragile sozial bakoitzak bere lan arloan edo bere ekitekoaren inguruko infomazioa dauka, ondoren herri mailan egiten diren deialdien berri izan arren hauetan parte ez hartuz.

Oso ohikoa da, hezkuntza munduan, ikastolan eginiko ekintzen inguruko berri izatea, eta gazteen artean gazteek egiten dituzten kontsumoen berri izatea baina informazio hau bateratzea positiboa dela iruditzen zaigu, Usurbilgo argazki orokor bat eduki, beharrak errealitatetik identifikatu eta taldean (gizarteak) hauetan eragiteko.

Azkenean gaiaren kontzientziatuta dagoen herria da Usurbil, adikzioa presente egon den herria baita, baina eragile bakoitzak eginga duen hausnarketa ezberdina da, eta honi aurre egiteko modua ere ezberdina dela antzeman dugu. Lan asko egiten da, ekintza asko eramaten dira aurrera, baina agian kohesioa edota arrazoiketa bat falta zaie, justifikazio bat egiten denaren arrazoi eta garrantzia barneratzeko.

Herri mailako hausnarketa baten eskaera azaldu da asko, heldu direnak gazteen aurrean duten erreferentziaren inguruan hausnartzetik hasi eta ikastetxe bakoitzean lanketa modu ezberdin batetara egiteko beharretaraino. Helduak eredu direla ikasi eta sentitu behar dute, beraien kontsumo eta jarrerak gazteenak jarraitzen dituztenak eta esanguratsua da ideia hau konpartitu dutenak nerabe edota “gaztetxoekin” lan egiten dutenak adierazi dituztela.

Legea ere zein den ohartzean kezka adierazi dute, herriko errealitatea beste bat dela sentituaz, adin txikikoak apustuak egiten, gazte eta helduak legez kanpoko sustantziak kalean kontsumitzen ikustea, adin txikikoei egiten zaien alkohol salmenta... eta honen aurrean dagoen axolagbekeria eta arriskuaren aurrean begiak ixtea. Honen inguruan ere hausnarketa bat bilatu nahi da, aldaketa batzuk txertatzen joateko, baina isuna edota ondorio administratiboetatik haratago, gizarte eta hezitzaile edota eredu diren bezela, kontzientzia sustatzeko. Festak nola antolatzen direnetik, pertsona heldu batek farmakoei eduki dezakeen adikzioa arte. Gure fokua adikzioak baitira, ez sustantziak bakarrik.

Badirudi ere guraso diren heinean konturatzen direla zer dagoen, ardurak sortutako “begi irekitze” bat izaten da, eta izugarria iruditu zaigu (eta oso garrantzitsua den faktore bat da), hezkuntza emozionalari eman nahi zaion garrantzia eta pixua. Egia da askotan, kontsumo eta ekintzak egiterako orduan, sustantziari baina gehiago begiratu beharko geniola ekintza hori egitera

bultzatzen dion arrazoiari, baina asko sakontzea da pertsonaren emozioetan eta ikara edo errespetua ematen du. Gurasoekin edota hezkuntza zentrukoekin biltzean, hemen egiten zuten indarra, eta oso positiboki baloratu dugu, hezkuntza emozional egoki bat eduki eta prebentzio lanak jaio garen momentutik aurrera eramaten ditugun ekintza guztiak direla entzutea.

Hausnarketa asko egin dituen taldeak edota kolektibo edo pertsonak aurkitu ditugu Usurbilen, eta modu positibo batean baloratua da, eta ekintza ugari ere egiten dira, baina askotan ez dute jarraitasunik edota borobiltze bat ekartzen, testuigurutik at baleude bezala, hau da, ekintza asko, baina beraien artean loturik ez, eta lotura hau ezartzeak lanketa handia egiten ari den herria dela antzeman eta erakutsiko du.

ZE GABEZIA EDO ZEIN ZAILTASUN ANTZEMAN DITUGU? Eztabaida taldetik eta elkarriketetatik idetifikatutako hutsuneak
- Kontraesan asko daude herrian (eta gizartean), <i>adibidez: legearen nondik norakoen berri badaukagu baina ondoren, legea ez betetzeko argudioak erabiltzen ditugu (interes ekonomikoak...)</i> - Aldaketak kontsumitzeko orduan (kontsumitzeko modua aldatu egin da azken urteetan) - Gurasoen partehartze baxua, nola indartu beraien presentzia ekintza prebentiboetan - Nerabeek jokatzeko duten ohituraren kontziente izatea - Kontsumitzaile identitatearen "irudi ona" txikitzea - Herri kirolaria izatearena, ezaugarri prebentibo izatea, eta hau indartzea - Lanbide Hastapenarekin esku-hartze eredia zentrorra egokitu - Herri ikastolan egiten den adikzioen inguruko lanaren balorazioa egin eta lan hau zaindu. - Teknologia berrien erabilerak sortu duen adikzio perfil berria - Jokoa eta apustuen presentzia altua herrian - Kontsumorako dagoen presioa gaztetxoaren artean - Ekintza eredugarriak Vs ekintza ez eredugarriak (biak askotan testuinguru edota momentu berean ikusten ditugu) - Ostalaritzarekin egin beharreko lana - Modu egokiago batean landu eskaintza eta eskaeraren kontrola.

- Formazio beharra
- Tabakoak ez du kezkatzen
- Usurbilen aurkitu ditzakegun arrisku faktoreen identifikazio falta
- Gaiarekiko dugun sentsibilizazio ezberdinak
- Gazteak eta nerabeak pasa egiten dira: txosnetako salmenta (adin txikikoak saltzen eta erosten, alkohola oso erraz lortzen dute, Sagardo egunetako errealitatea...)

Guk geronik hauek identifikatu ostean berriz ere lehen saioan bildu genituen herriko eragileei trasladatu nahi izan dizkiegu hemengo taula honetan adierazitako ondorioak, beraien ikuspuntua ere ikusteko eta zor genielako.

Tokiko Plana egiterako orduan, herriko talde eragileak bildu genituen lehen saioan jasotako ideia eta beraien parte hartzea eskertuz, AGIPADetik ateratako ondorioak aurkeztu dizkiegu 2018ko azaroaren 28an, 13.00tan hasirik aurkezpen txiki hau. Potxoenean bildutako eragileak honakoak izan gara: AGIPADeko teknikaria, Gizarte Zerbitzuak, Gazte teknikaria, Zinegotzia, Udaltzaingoa, HitzAhoko guraso taldekoa, Udarregi ikastolako zuzendaria, Usurbil Lanbide Hastapena zentrukoa, Usurbilen dauden jubilatutako elkarteetako kideak (auzo ezberdinetakoak) eta sendagilea.

Guk planean ikusitako ahul eta puntu indartsuak zeintzuk diren azaldu diegu, planean azaldutakoan oinarrituta, gaian zentratu ahal izateko. Saio hau, gure ondorioak zeintzuk izan diren jakinarazteaz aparte, beraiek hauen inguruan duten iritzi edo adostasun eta desadostasuna adierazteko tarte bat irekitzeko izan da, azken finean beraien partehartzeari esker Tokiko Plana Usurbilgo herriari ahal den egokituena egitea ahalbidetu baitigu.

Behin indar-gune zein ahul-guneak azaldu ondoren bi taldetxotan banatu ditugu, alde batetik hezkuntza alorrarekin erlazionatutakoak eta bestetik komunitatearekin erlazionatutakoak, bi talde hauek horrela finkatzearen arrazoia bai kopuruz eta baita eztabaidarako iritziak kontuan hartuak izan dira. Behin bi taldetan banatuta, planean aurrera eramateko proposatu ditugun ekintzak adierazi dizkiegu, batzuk ia da aurrera eramaten dira eta beste batzuk proposamen berriak izanik jakinen gainean egon daitezten. Azken finean saio honekin, orain artekoa baloratu eta proposamen berrien inguruko iritzia ezagutzea izan da, ondoren inplementazioan denboran zehar finkatzea, ekintza guztiak ezin baitira batera ekitera eramane.

Hezkuntzako taldeak, kale hezitzaile baten beharra adierazi dute, gazteak elkartzen diren lekuetara gerturatuko direnak, eta izugarritzko garrantzia eman die aisialdi alternatiboari, eskaintza zabalagoa izatea, batez ere gazteak gai izan daitezen eta ikas dezaten gauzak antolatu eta hauek aurrera eramatearen satisfazio sentimendua nolakoa den, gazte aktibo bilakatzeko, eta horretarako Udaleko instalazioak uztearena proposatu dute. Hau egia esan, Usurbilen ia da martxan dagoen egoera da eta honi indarra ematea gustatuko litzaieke. Orokorrean orain arte egiten diren ekintzen inguruko balorazio positiboa egin dute, baina sarea sortzea falta dela adierazi die, gazteekin harremanetan daudenen artean babestu eta babestuak senti daitezen, eta kasuen aurkezpenak egin eta elkar laguntzeko.

Hemen eginiko saioan beraiek beraien hezkuntza zentroko errealitateaz eta beraien artean biltzea izugarri gustatu zaie, horrela beste hezkuntza zentroaren errealitatea ezagutzen baitute, askotan ezezagun den errealitatea. Askotan ikasleek eskaintzen dizkiegun tresnak irakasleentzat ere egon daitezen ere adierazi dute, irakaslearen garapen pertsonalak (heldu edota irakasle gisara) eragin handia baitu ikasleekin duen komunikazio eta ekitekoan, eta beraiek ere emozioak ezagutu eta gestionatzeko estrategiak izatea baliagarria izango litzakeela adierazi dute. Eta erreferente baten beharra antzeman dute kasu errealean kudeaketa egiterako orduan, aholkulari edota babesa eskainiko dien figura bat, kasu zehatz batekin joan eta erantzun egoki bat momentuan emango dion baten figura, honek lehentasuna duela adieraziz. Prebentzioari inongo garrantzirik kendu gabe, bai berehalako eskuhartze bat egin behar den momentuan iritzi objetibo edota kanpoko laguntza baten eskaintza, egingo dituzten esku-hartzeak zein izan daitezkeen aurreikusi eta nola bideratu jakiteko. Egia da Osakidetza nerabeen alkohol kontsumoen aurrean protokolo bat baduela, baina laguntza txiki geratzen da batez ere ez delako alkohola arazo bakarra eta eskainitako zerbitzuekin harremanetan jartzean hitzordua “hilabete pasata” ematen die, honek efektibitatea galduz.

Komunitateko eragile taldearekin ere eztabaida luze joan da, eta modu berdinean eraman dugu aurrera, orain arte egin diren eta egiten diren ekintzekin aurrera jarraitzea beharrezkoa ikusten dute, eta proposatutako ekintza berrien prioritate piramidean osatu dugu, hau da, zein ikusten duten beharrezkoena eta martxan jartzea eta zenek ez duen berebiziko presa. Denak parte hartzeko prest daude proposatzen diren ekintzetan, beraien kargu hartuaz ekintzen antolaketa, baina Udaltzaingoa adibidez, formazio saioetarako prest eta beharrezko ikusten dituzten arren, beraiek azkeneko pausua izan behar dutela adierazi dute, hau da, hezkuntza, prebentzio lanak, lan espezifikoak... huts egitean, orduan hasten dela beraien ekitekoa, eta errespetatu egin behar da, azken finean lege betearazlearen lana hori baita. Gainera kontuan hartu ez genuen errealitatearen berri eman digute, pertsona helduen alkohola kontsumoa eta hauek gidatzeko duten

erraztasunarekin (batez ere pertsona helduenak) Usurbilen horrelako kasu deigarriren bat badutela ere adierazi dute eta honi erantzun egoki bat emateko saiakera egiten jardun direla baina azkenean kontrol zorrotzago bat egiten hasiko direla.

Bertako sendagileak ere “Erretzeari uzteko proiektua komunitate eremuan” ekintzaren inguruan ere honakoa adierazi digu, Usurbilek noizbait talde propioa izan duela baina azken urteetan ez da talde minimoa osatu eta Hernani edota inguruko herrietara joan behar izan dutela, honek oztopo bat suposatuz zenbaitentzat, hori bai, partehartzaileen artean balorazio oso positiboa egiten dute.

Hezkuntzari izugarrizko garrantzia ematen diote eta gurasoen lana indartu behar dela adierazi, batez ere Jubilatu taldekoak, gazteen arazo gehienak etxean egondako errealitate edota arau faltagatik direla adieraziz.

Guk proposatutako ekintza berrien “Prioritate Piramidean” horrela adierazi ziren ekintzak:

- 1- Prebentzio Mahaia**
- 2- Adingabekoei alkohola eta tabakoa saltzeko eta apustuak egitearen inguruko sentsibilizazio proiektua”**
- 3- Komunikabideak erabiliz**
- 4- Lokaletan dauden gazteengana gerturatzeko Proiektua**
- 5- Medikamentu psikotropikoen kontsumo eta adikzioen inguruan hausnartzera bideraturiko Programak**
 - Prebentzio eta sentsibilizazioa programa Sagardo Egunean
- 6- Udaltzaingoaren sentsibilizazio kanpaina**
 - Kontsumoen aurrean neurri alternatiboak

1.4 Planaren zeregina eta helburuak

Mendekotasunen arazoari erantzun zehatzak eta eraginkorrak antolatzerakoan, gizarte politika zabal batean sartu behar dira, hau da, herritarren osasuna eta bizi baldintzak hobetzeko gauzatuko diren ekintzen barruan. Horrela bada, Herri Plangintza tresna bateragarria izango da, udalerriaren bitarteko eta baliabide desberdinetatik eskainiko diren erantzunei koherentzia emateko gai izango dena.

Metodologia aldetik, metodologia partehartzailea eskaini nahi da, giza taldearen integrazioa, partehartzea eta elkarlana benetakoa izan dadin. Hau guztia esan ondoren, argi geratzen da Tokiko Planaren jarduera eta ekintzak dibertsifikatu egin behar direla, helburu-sorta zabalago bati aurre egiteko. Azken finean, ikuspuntu zabalagoa hartzea droga-kontsumoarekin loturiko arazoak saihesteko estrategiarik hoberena baita.

Jarduera eremuak hiru ardatzetan egituratzen dira:

1.-*Eskaintzaren kontrola.* Substantziarekin loturiko ekintzen inguruko jardueretan oinarritua, eta honako ekintza-ildo hauekin:

- Sendagaiak eta aitzindariak kontrolatzea.
- Legez kanpoko trafikoaren prebentzioa eta kontrola.
- Drogen publizitatea eta sustapena kontrolatzea.
- Alkoholaren eta tabakoaren hornidura kontrolatzea.
- Edari alkoholadunen eta tabakoaren kontsumoa kontrolatzea, hirugarrenei eragiten dienean.
- Adingabeak apustuak eta jolasatik babestu

Ez da alde batera utzi behar beraz, kontrol formaleko gizarte eragileek (Ertzaintza, Udaltzaingoa, etab.) duten prebentzio funtzioa. Menpekotasunen arloan, poliziari dagokio legez kanpoko drogen eskaintza kontrolatzea eta ekoizte, banatze eta salmentaren mugak betearaztea. Funtzio honen izatea prebentzioan datza. Asmoa populazioaren gehiengoa, eta batez ere zaurgarrienak, beren osasuna eta komunitatea kaltetu dezaketen substantzien gehiegizko

kontsumoetatik babestea da. Beste faktore batzuk albora utziaz, inguruan substantzien presentzia mugatzea menpekotasunen prebentzioan faktore eragile bat baita.

Alabaina, droga-kontsumoa eragozteko ohiko bideak eskaintza kontrolatzean oinarritu izan dira, batik bat, eta azken helburua abstinentsia izan ohi dute; hala ere, ohiko bide horiek ez dute helburuen betetze maila handirik lortu. Drogen kontsumoan sartzea ez da gelditu, eta ez gelditzeaz gain, substantziekin esperimentatzen hasteko irrika ez da gutxitu.

Egoera honetatik bi ondorio nagusi atera daitezke. Batetik, helburu edo ekintza-neurri horiek ezin dira ez-eraginkortzat hartu, baina bai drogen menpekotasun fenomenoari modu orokor batean erantzuteko ez-nahikotzat. Eta bestetik, substantzien erabilerarekin esperimentatzeko aukera pertsonaren garapenaren une batean edo bestean azalduko den errealitatea da, eta errealitate horri erantzuteko orduan, arrakasta handiagoa edo txikiagoa izango du, norberaren gaitasunean, edo gizarte-sistema jakin bateko partaide gisa dituen baliabideen arabera.

2.-Eskaeraren murrizketa: Pertsonen zuzendutako ekintzetan oinarritua, eta ekintzen esku-hartzearen gunea honako arlo hauetan dutenak:

-Prebentzioa.

-Asistentzia.

-Gizarteratzea.

3.-Babes eta koordinazio ekintzak. Eskaintza kontrolatzeko eta eskaera murrizteko jarduerak azkartzeko eta laguntzeko ekintza oro; honako hauek lehentasuna izango dute:

- Prestakuntzak.

- Ikerketak.

- Informazio zabaltzeak.

- Burututako jardueren azterketak eta ebaluazioak, etab.

- Koordinazioak, burutu beharreko ekintzetan lankidetzak eta koherentsia bilatuz, bi ekintza mailatan: erakunde arteko eremuan eta profesionalen arteko eremuan.

Esku-hartzeen irismena eta mugatzea baldintzatua dago, programen eta ekintzen helburuen arabera, baita zuzenduta dauden biztanle-sektoreen arabera ere. Helburuei begiratuta, programa, esku-hartze edo jarduerak *espezifikoak* eta *ez-espezifikoak* bereiz ditzakegu.

Programa *espezifiko*en helburua honakoa hau da: drogekin eta menpekotasunarekin loturiko prebentzioan, asistentzian, gizarteratzean, prestakuntzan edo ikerketan zuzenean eragitea. Drogen kontsumoan, modu argi, zehatz eta agerikoan eragina izan nahi duten ekintzak hartzen ditugu prebentzio espezifikotzat. Ekintza *ez-espezifiko*ak drogen menpekotasunak ez diren bestelako helburuak dituzte (osasuna, aisialdia, prestakuntza, lanerako prestakuntza, etab.), baina zeharka bada ere, drogen menpekotasunean ere onurak eragiten dituzte.

Drogek sortzen duten mendekotasunari aurre egiteko jarduera espezifiko eta ez-espezifikoaren arteko desberdintasuna, funtsean, jardueraren eta droga-kontsumoaren arteko loturan dago. Eta lotura hori baliozta dezakegu. Esan nahi dena honakoa da, jarduera batekin droga-kontsumoak behera egitea bilatzen bada, baliozta dezakegu ea hori lortu den edo ez, ezinezkoa bazaigu hori baieztatzea, ez gabiltza menpekotasuna prebenitzen, beste zerbait egiten baizik. Aurreko urtetan desberdintasun hau kontuan ez hartzeak prebentzioaren alorrean ahalegin askok esperotako emaitzak ez lortzea ekarri digu.

Bestalde, programen eta ekintzen hartzaile diren biztanleen arabera, lau maila nagusi bereiziko ditugu, espezifikotasuna arrisku-faktoreren arabera identifikatu gabeko pertsona-talde handi bati zuzendutako programak eta ekintzak izanik:

-*Unibertsalak*. Biztanleei, orokorrean, edo inongo arrisku faktoreren arabera identifikatu gabeko pertsona-talde handi bati zuzendutako programak eta ekintzak.

-*Selektiboak*. Biztanle-talde jakin bati zuzendutako ekintza-multzoa; biztanle-talde hori drogekin loturiko arazoak sor ditzaketen arrisku-faktoreen menpe dago, datu objektiboen arabera (epidemiologikoki edo bestelako ikerketa edota balorazio teknikaren batek emandako datuak).

-*Egokituak*. Dagoeneko droga kontsumitzen duten (nahiz kontsumitzaileak, nahiz esperimentatzaileak) eta bestelako portaera-arazoak dituzten lagunei bideratutako programak dira. Beraz, arrisku handiko pertsonen bideratuak daude. Programa hauen helburua droga kontsumoa murriztea ez ezik, kontsumoaren ondoriozko arazoak murriztea ere bada, baita drogen gehiegizko erabilerak ahal den gehien atzeratzea ere.

-*Zehatzak*. Kategoría honetan barne hartzen dira drogazaletasun-arazoak dituzten lagunei bideratutako prebentziozko esku-hartzeak, asistentziakoak edo gizarteratzekoak; kasu horietan, arriskua ez da menpekotasuna sortzeko dagoen aukera, baizik eta substantzien erabilera jarraituak eragin ditzakeen osasun eta segurtasun arazoak.

ESKU-HARTZE EREMUAK

Eskaintzaren kontrola	Eskariaren murrizketa	Laguntza eta koordinazio ekintzak
-Edozein droga motaren iragarki eta promozioen kontrola. -Alkohol eta tabako hornikuntzaren kontrola -Adinez txikiko pertsonen droga kontsumoaren kontrola	-Prebentzioa -Asistentzia -Gizarteratzea	-Formazioa/prestakuntza -Ikerketa -Informazioaren hedaketa -Ekintzen azterketa eta ebaluazioa -Partehartzearen sustapena. -Beste udal esparru, elkarte, inguruko udalerrietako prebentzio talde eta Eusko Jaurlaritzako Drogamenpekotasunen Zuzendaritzarekin koordinazioa.

1.5 2019tik 2023rako Mendekotasunen Prebentzio Planaren Programak: Egitura eta ekintzak

Prebentzio estrategien beste euskarri nagusi bat ohitura osasungarriak bultzatzea da. Hortaz, herritar guztien osasun heziketa eta eskolan eskaintzen den osasun heziketa oinarritzko estrategia bilakatzen dira sortuko diren programa eta ekintzetarako.

1.5.1. PREBENTZIO UNIBERTSALEKO PROGRAMAK

HEZKUNTZA EREMUAN

Eskola eremuak eragin handia du gaitasun, balore eta adikzio arazoak ez izateko garatu beharreko jarreraren garapenarekin. Gainera, haur gehienak eskolatik pasatzen direnez, oso eraginkorra da prebentzioaren lanketa eskola eremuan. Eskolan egingo den prebentzio lana “Osasunerako heziketa” oinarritu nahi du.

•Lehen Hezkuntzan:

Helburu nagusia:

Babes faktoreak indartu eta ohitura osasungarriak sustatzea ikastetxeko heziketa prozesuaren bidez, eta horretara, drogak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea eta 18 urtetik beherakoen artea kontsumoa gutxitzea.

Helburu zehatzak:

-Ikastetxeetako irakasleei baliabide gehiago eskaintzea, osasun, drogen eta bestelako adikzioen prebentziorako Heziketan sartzen diren programak garatu ditzaten. Beraiek ere babesa jasoaz, eta aholku gune eta kezkak azaltzeko aukera emanaz.

-Ikasleei euren buruarekin eta inguruarekin sortzen zaizkien arazoei aurre egiten ikasteko beharrezkoak dituzten gaitasunak garatzen irakastea.

-Irakasleei gela barruan lantzen den osasunerako eta drogen prebentziorako heziketak duen garrantzia ikusaraztea.

Hartzaileak:

-Lehen Hezkuntzako ikasle orori legoke zuzendua

Ekintzak:

1- Programa ezberdinen bitartez, maila espezifiko zein ez-espezifikotik eta osasun heziketa helburu izanik, irakasleak menpekotasunen prebentzioan trebatzea.

2- Egun egiten diren eta egin izan diren programen jarraipena egokia iruditzen zaigu, hala nola: Lagunekin Baratzean, Heziketa afektibo-sexuala,...

•Bigarren Hezkuntzan:

Helburu nagusia:

Babes faktoreak indartu eta ohitura osasungarriak sustatzea ikastetxeko heziketa prozesuaren bidez, eta horretara, drogak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea eta 18 urtetik beherakoen artea kontsumoa gutxitzea.

Helburu zehatzak:

-Ikastetxeetako irakasleei baliabide gehiago eskaintzea, osasun, drogen eta bestelako adikzioen prebentziorako Heziketan sartzen diren programak garatu ditzaten. Beraiei ere babesa eskaini eta eduki ditzaketen kezkak argituz, zein irizpideak finkatzen lagunduz.

-Ikasleei euren buruarekin eta inguruarekin sortzen zaizkien arazoei aurre egiten ikasteko beharrezkoak dituzten gaitasunak garatzen irakastea.

-Irakasleei gela barruan lantzen den osasunerako eta drogen prebentziorako heziketak duen garrantzia ikusaraztea.

-Drogen kontsumoak heziketa prozesua ez oztopatzea.

Hartzaileak:

-Bigarren Hezkuntzako ikasle orori legoke zuzendua

Ekintzak:

1- Programa ezberdinen bitartez, maila espezifiko zein ez-espezifikotik eta osasun heziketa helburu izanik, irakasleak drogamenpekotasunen prebentzioan trebatzea.

2- Adituen bitartez drogamenpekotasun prebentzio saioak lantzea.

3- Bestelako adikzioen inguruko saioak garatzea (Teknologia berrien erabilera ona, apustuak).

4- Egun egiten diren programen jarraipena egokia iruditzen zaigu, hala nola: teknologia berrien erabilera egokia eta adikzioen prebentzioa, Heziketa afektibo-sexuala, Sexu harremanak eta tratua ona,...

5- Ikastetxeko errealitatearen diagnostikoa egitea.

6- Irakasleriari orientazio eta laguntza eskaintzea.

7- Kontsumoaren inguruko araudi haustea dela eta, ekintza-protokoloaren gauzatzea.

8- Adikzio arazoak dituztenen testigantzak agertzearen efektibotasuna baloratzea

FAMILIA EREMUAN

Familia eremuan prebentzio egitasmoak garatzea derrigorrezkoa da, familia da eta gazteek etorkizunean izango dituzten balore eta jarreraren sorleku.

Helburu nagusia:

Babes faktoreak indartu eta ohitura osasungarriak sustatzea ikastetxeko heziketa prozesuaren bidez, eta horretara, drogak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea eta 18 urtetik beherakoen artea kontsumoa gutxitzea.

Helburu zehatzak:

-Gurasoei informazioa eta prestakuntza eskaintzea, heziketa arloan duten egitekoa behar bezala betetzeko gaitasuna lor dezaten.

-Gurasoentzako topaguneak sortzea, elkarrekin hausnartu eta egunerokotasunean agertzen diren gora-beherei buruz hitz egiteko.

-Gurasoak bultzatzea ikastetxeko bizimoduan eta gizarteko gainerako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten. Ikastetxea heziketa prozesuko konplize dela barneratu ahal izateko.

Hartzaileak:

-18 urtera bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei dago zuzendua.

Ekintzak:

1-Ikastetxeetako Prestakuntza proiektua herriko ikastetxeetako Guraso elkarte edota guraso guztiei aurkeztea.

2- Guraso Elkarteen proposamenak jasotzea, proposamen horiek kontuan hartuta herriko guraso guztiei zuzendutako prestakuntza proiektua egituratzeko.

3- Guraso Elkartearekin egiten diren formazio saioetatik hautatu daitezkeen guraso batzuekin lan-formazio sakonago bat egitea, interesa azalduz gero; gerora begira guraso hauek izateko formazio saioak eskainiko dituztenak.

4- Adinaren arabera lan taldeak antolatu

AISIALDI EREMUAN

Aisialdi-giroa izaten da arrisku-gunerik handienetarikoa, beraz, behar beharrezkotzat jotzen dugu prebentzio neurriak ezartzea ohitura horiek sortzen dituzten arriskuei aurre egiteko.

Garrantzi handia izango da Usurbilen jazotzen den herri-mugimendua. Elkarte anitz topa ditzakegu adin, zaletasun eta interesen arabera

1) Proiektua: **Prebentzio eta sentsibilizazio programa Sagardo Egunean**

Helburu nagusia:

-Sagardo egunean, herritarrak ohitura osasungarri eta arduratsuen garrantziaz jabetzea eta ohitura horiek bultzatzea.

Helburu zehatzak:

- Prebentzioa bultzatzea aisialdi egoeretan gizarte-hezkuntzako interbentzioaren bidez, herriko bizilagunen eta elkarleen protagonismoa ziurtatuta.
- Sagardo eta bestelako drogen kontsumo arduratsua bultzatzea.
- Neurritz kanpoko kontsumoagatik sortutako kalteak murriztea.
- Elkarbizitza arauak errespetatzea.
- Eraso sexistak saihestea.

Hartzaileak:

- Usurbilgo herritar guztiak
- Kanpotik datozen pertsona guztiak

Ekintzak:

- 1- Alkohol kontsumoaren arriskuez ohartuarazi (edan ondoren gidatzea, gehiegizko kontsumoek dituzten ondorioen berri ematea...), beti ere adin nagusikoak izanik hartzaile, legeari begiratuta, adintxikikoek ezin baitute kontsumitu.
- 2- Prebentzio mahaian hausnarketa puntua izatea.
- 3- Kontraekintzen indartzea.

ESKAINTZAREN KONTROLA

2) Proiektua: “Adingabekoei alkohola eta tabakoa saltzeko eta apustuak egitearen inguruko sentsibilizazio proiektua”.

Helburu nagusia:

Legezko drogen publizitatea, promozioa eta salmenta kontrolatzea, apustuak egitea eta baita legez kanpoko drogen eskaintza ere

Helburu zehatzak:

- Indarrean dagoen legediak adingabekoei alkohola eta tabakoa saltzeari buruz ezarritakoaren berri ematea ostalaritzako eta komertzioetako jabeei eta langileei.

-Adingabekoei alkoholak eta tabakoak eragiten dizkieten kalteen inguruan sentsibilizatzea gizartea.

-Festak aurretik, alkohola adingabekoei saltzearen inguruan txosnetako arduradunekin hausnarketa bilatzea.

-Taberneroeekin, tabernetan dauden apustu makinetan (RETA, Kirol Jokoa...) adingabekoek erabiltzearen inguruko sentsibilizazioa

Hartzaileak:

- Usurbilgo ostalari eta dendariak
- Txosnetako arduradun eta bolondresak

Ekintzak:

1- Ostalaritzako establezimenduen jabe eta langileekin koordinaziorako eta elkarlanerako batzarrak egitea edota Prebentzio Mahaiko partehartzaile izatea.

2- Adingabekoei alkohola eta tabakoa saltzeari dagokionean adituak direnekin informazio saioak egitea.

KOMUNITATE OSOARI ZUZENDUTAKO PROGRAMAK
--

Parte-hartze sozialerako ezinbesteko lekua eta ardatza da komunitatea, eta beraz, ezin da prebentzioko lan-esparrutik geratu.

Honela, talde edo erakunde jakin batzuei aplikatzen zaizkien estrategia partzialen ordez, strategi orokorra aplikatu beharko da, hau da, eremu ezberdinetako ekintzak (familia, eskola, elkarteak, lana,...) koordinatu beharko dira esku-hartze koherentea eta eraginkorra izan dadin.

3) Proiektua: “Komunikabideak erabiliz”

Helburu nagusia:

Tokiko komunikabide ezberdinen bitartez, menpekotasunen prebentzioan garrantzitsuak izan daitezkeen gaien berri ematea.

Helburu zehatza:

- Tokiko planaren aurkezpena eta zabalkuntza egitea
- Menpekotasun gaiarekin lotutako informazioa modu egonkor batean eta jarraipen batekin argitaratzea.
- Menpekotasun gaien adituak direnek, euren ezagutzak ezagutaraztea.
- Informazioa jasotzeak eraginda sortu daitezkeen zalantzei erantzuna ematea.

Hartzaileak:

- Egunkaria, NOAUA aldizkaria edo Udalberri irakurtzeko ohitura duten guztiak.
- Aurreko edozein, eskura iristen zaien herritar guztiak

Ekintzak:

- 1- Usurbilgo aldizkarietan, epe finko eta jarrai batean, gaiaren tratamendurako espazio bat eskaintzea.
- 2- Ekintza hauek gauzatzeaz herriko aditu ezberdinak ardura daitezke.

4) Proiektua: “Udaltzaingoaren sentsibilizazio kanpaina”

Helburu nagusia:

Udaltzaingoa herriko drogen kontsumoen aurrean, agente prebentibo bezala duten garrantziaz sentsibilizatzea.

Helburu zehatzak:

- Herrian eman daitezkeen kontsumoen kontrola handitzea.
- Herritarren eta Udaltzaingoaren arteko liskarrak gutxitzea.

Hartzaileak:

Usurbilgo Udaltzaingoa

Ekintzak:

- 1- Formazio saioak egitea.
- 2- Klean ematen diren droga kontsumoen aurrean esku-hartzea, batez ere adingabekoenak.
- 3- Antzematen duten errealitatera egokitutako ekintzak proposatzeko eremu bat edukitzea.
- 4- Behar izanez gero, herriko zenbait lekuetan rondak egin kontsumoak murrizteko.

5) Proiektua: “Prebentzio mahaia”

Helburua nagusia:

Herri mailan menpekotasunen prebentzioaren sortzen diren gaien inguruan lanketa bat egin

Helburu zehatzak:

- Herriko eragileen bidez, urtean zehar sortzen diren arazoak planteatu.
- Sortutako arazoei erantzuna eman.
- Esparru desberdinetik gaiak landu.
- Usurbilen menpekotasunen prebentzioaren inguruko erabakiak hartzea.
- Herriko eragileen arteko sare bat osatzea, elkar lagundu eta babestu daitezen.
- Interesgarriak izan daitezkeen bestelako gaien inguruan bilera monografikoak egin

Hartzaileak:

- Usurbilgo gizarte eragile desberdinak

Ekintzak:

- 1- Usurbilgo eragile desberdinekin talde bat osatu
- 2- Bilerak maiztasunarekin egin (3 edo 6 hilean behin adibidez)
- 3- Gai monografikoak antolatu

6) Proiektua: “Medikamentu psikotropikoen kontsumo eta adikzioen inguruan hausnartzera bideraturiko programak”

Helburu nagusia:

- Gizartean ematen den medikamentu psikotropikoen neurrigabeko kontsumoaren inguruan hausnartzea, eta honek sortu ditzakeen arazoez jabetzea.

Helburu zehatzak:

- Medikamentuen erabileraren inguruan hausnarketa egitea.
- Medikamentuen erabilera egoki bat egitea.
- Auto-medikazioaren gutxitzea.

Hartzaileak:

Usurbilgo biztanleria guztia

Ekintzak:

- 1- Osasun Zerbitzuen bitartez kanpaina egitea.

GAZTE EREMUAN

Nerabe eta gazteak lehentasunezko adin tarteak dira gure lanetan; izan ere, orduantxe sortzen dira gehien batean drogekiko lehen harremanak eta, gainera, sasoi horretan gazteek umetan izan duten helduenganako dependentzia albo batera uzten dute.

7) Proiektua: “Gaztelekua”

Helburu nagusia:

Aisialdiaren hezkuntza: gaztetxoek euren aisialdian ekintza ezberdinak gauzatzeko espazio bat eskaintzea.

Helburu zehatzak:

-Ohitura osasungarriak bultzatu aisialdi eskaintza ezberdinak eskainiz.

-Bestekin elkartzea, pertsonarteko hartu emanak sortzea, elkartegintza indartzea eta komunitate kontzeptua indartzen duen giza-baloreak bultzatzea.

-Elkartasun kulturala eta guztiontzako giza eskubideak sustatzea.

-Gazteen dinamizazioa bultzatzea, gazteentzako interesgarriak diren ekintzak antolatuta eta gazteei bidea emanda eurek antola ditzaten.

-Aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzea.

Hartzaileak:

12-17 urte bitarteko gazteak.

Ekintzak:

1- Gazteentzako espazio fisiko batean erreferente izango diren hezitzaileek ekintza egokiak diseinatzea.

2- Menpekotasunetan eragin zehatza izan dezaketen ekintzak egitea

8) Proiektua: “Lokaletan dauden gazteengana gerturatzeko proiektua”

Helburua nagusia:

Lokaletako erabiltzaileekin elkarlanean aritzeko bideak landu horien funtzionamendua erregulatzeko eta euren inguruko elkarbizitza hobetzeko.

Helburu zehatzak:

- Komunikazio-bide bat zabaltu lokaletako gazteen eta udalaren artean.

- Gutxieneko konpromisoak ezartzea gazte-taldeekin.

- Lokaletan dagoen segurtasuna eta bizi-kalitatea hobetzea.

Hartzaileak:

Usurbilgo lokaletan batzen diren gazteak eta taldeak.

Ekintzak:

- 1- Menpekotasunen inguruko tailerrak lokaletan bertan egitea
- 2- Lokaletan ibiltzen diren taldeekin batzartzea.
- 3- Ordezkariek ezarri lokaletan.
- 4- Gazteen eremuetako partehartzaileekin batzartzea.
- 5- Aldian batzarrak egitea erabakiak hartzeko.
- 6- Lokalen ordezkariekin herriko ekintzak antolatu
- 7- Proiektua ebaluatzeko eta berroren jarraipena egiteko batzarrak egitea.

HEZKUNTZA EREMUAN (Lehen Hezkuntza)

HEZKUNTZA EREMUAN (Lehen Hezkuntza)	Orain arte eginda	2019				2020				2021				2022			
		1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERAK																	
1- Programa ezberdinen bitartez, maila espezifiko zein ez-espezifikotik eta osasun heziketa helburu izanik, irakasleak menpekotasunen prebentzioan trebatzea.																	
2- Egun egiten diren eta egin izan diren programen jarraipena egokia iruditzen zaigu, hala nola: Lagunekin Baratzean, Heziketa afektibo-sexuala,...																	

HEZKUNTZA EREMUAK (DBH)

	Orain arte eginda	2019				2020				2021				2022			
		1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERAK																	
1- Programa ezberdinen bitartez, maila espezifiko zein ez-espezifikotik eta osasun heziketa helburu izanik, irakasleak drogamenpekotasunen prebentzioan trebatzea.																	
2- Adituen bitartez drogamenpekotasun prebentzio saioak lantzea.																	
3- Bestelako adikzioen inguruko saioak garatzea (Teknologia berrien erabilera ona, apustuak).																	
4- Egun egiten diren programen jarraipena egokia iruditzen zaigu, hala nola: Teknologia berrien erabilera egokia eta adikzioen prebentzioa, Heziketa afektibo-sexuala, Sexu harremanak eta tratua,...																	
5- Ikastetxeko errealitatearen diagnostikoa egitea.																	
6- Irakasleriari orientazio eta laguntza eskaintzea.																	
7- Kontsumoaren inguruko araudi haustea dela eta, ekintza-protokoloaren gauzatzea.																	

FAMILIA EREMUAN

	Orain arte eginda	2019				2020				2021				2022			
		1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERAK																	
1-Ikastetxeetako Prestakuntza proiektua herriko ikastetxeetako Guraso elkarte edota guraso guztiei aurkeztea.																	
2- Guraso Elkarteen proposamenak jasotzea, proposamen horiek kontuan hartuta herriko guraso guztiei zuzendutako prestakuntza proiektua egituratzeko.																	
3- Guraso Elkartearekin egiten diren formazio saioetatik hautatu daitezkeen guraso batzuekin lan-formazio sakonago bat egitea, interesa azalduz gero; gerora begira guraso hauek izateko formazio saioak eskainiko dituztenak.																	
4- Adinaren arabera lan taldeak antolatu																	

AISIALDI EREMUA (Sagardo Egunean adib.)

Orain arte eginda	2019				2020				2021				2022			
	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERAK																
1- Alkohol kontsumoaren arriskuez ohartuarazi (edan ondoren gidatzea, gehiegizko kontsumoek dituzten ondorioen berri ematea...), beti ere adin nagusikoak izanik hartzaile, legeari begiratuta, adintxikikoek ezin baitute kontsumitu.																
2- Prebentzio mahaian hausnarketa puntua izatea																
3- Kontraekintzen indartzea.																

GAZTE EREMUAN

GAZTE EREMUAN	Orain arte eginda	2019				2020				2021				2022			
		1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERAK																	
Gaztelekua																	
1- Gazteentzako espazio fisiko batean erreferente izango diren hezitzaileek ekintza egokiak diseinatzea.																	
2- Menpekotasunetan eragin zehatza izan dezaketen ekintzak egitea																	
Lokaletako gazteei zuzendutako programa																	
1- Menpekotasunen inguruko tailerrak lokaletan bertan egitea																	
2- Lokaletan ibiltzen diren taldeekin batzartzea.																	
3- Ordezkariek ezarri lokaletan.																	
4- Gazteen eremuetako partehartzaileekin batzartzea.																	
5- Aldian batzarrak egitea erabakiak hartzeko.																	
6- Lokalen ordezkariekin herriko ekintzak antolatu																	
7- Proiektua ebaluatzeko eta berroren jarraipena egiteko batzarrak egitea.																	

ESKAINTZAREN EREMUA

	Orain arte eginda	2019				2020				2021				2022			
		1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERAK																	
1- Ostalaritzako establezimenduen jabe eta langileekin koordinaziorako eta elkarlanerako batzarrak egitea edota Prebentzio Mahaiko partehartzaile izatea.																	
2- Adingabekoei alkohola, tabakoa saltzeari eta apostuk egitea dagokionean adituak direnekin informazio saioak egitea.																	

KOMUNITATEARI ZUZENDUTAKOAK

KOMUNITATEARI ZUZENDUTAKOAK	Orain arte eginda	2019				2020				2021				2022			
		1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERAK																	
Komunikabideak erabiliz																	
1- Usurbilgo aldizkarietan, epe finko eta jarrai batean, gaiaren tratamendurako espazio bat eskaintzea.																	
2- Ekintza hauek gauzatzeaz herriko aditu ezberdinak ardura daitezke.																	
Udaltzaingoaren sentsibilizazio proiektua																	
1- Formazio saioak egitea.																	
2- Kalean ematen diren droga kontsumoen aurrean esku-hartzea, batez ere adingabekoenak.																	
3- Antzematen duten errealitatera egokitutako ekintzak proposatzeko eremu bat edukitzea																	
4- Behar izanez gero, herriko zenbait lekuetan rondak egin kontsumoak murrizteko																	
Prebentzio mahaia																	
1- Usurbilgo eragile desberdinekin talde bat osatu																	
2- Bilerak maiztasunarekin egin (3 edo 6 hilean behin adibidez)																	
3- Gai monografikoak antolatu																	
Medikamentu psikotropikoen kontsumo eta adikzio inguruan hausnartzera bideratutako programak																	
1- Osasun Zerbitzuen bitartez kanpaina egitea.																	

1.5.2 -PREBENTZIO SELEKTIBOKO PROGRAMAK

Helburua:

Kolektibo eta talde zaurgarrietan arriskuak gutxitzea eta erantzukizunerako jarrerak sustatzea drogen kontsumoaren aurrean, batez ere hasierako adina atzeratzeko, adingabekoen artean kontsumoak gutxitzeko eta gazteen artean kontsumo problematikoak ekiditeko.

HEZKUNTZAN

9) Proiektua: “Gazte zaurgarriak babestuz”

Helburu nagusia:

Egoera zaurgarrian egon daitezkeen gazteekin, adikzio arazoak saihesteko tresnak eskaintzea, babes faktoreak bultzatuz.

Helburu zehatzak:

- Irakasleriaren funtzio hezitzailea indartzea.
- Drogen kontsumoarekin modu zuzenean edo zeharka, harremandutak egon daitezkeen gatazka egoerei aurre egiteko, irakasleria beharrezko tresna pedagogikoetaz hornitzea.
- Ahal den heinean, familia, irakasle eta komunitate arteko lotura bultzatzea.
- Substantzi ezberdinen informazio zehatza zabaltzea, ondorioak eta arriskuak azpimarratuz.
- Menpekotasunen prebentzioa lantzea.

Hartzaileak:

Ikasketa porrota jasan edo jasateko arrisku egoeran dauden, eskola utzi eta ondorioz lanbide bat ikastera zuzendu diren gazteak edo ikasten jarraitu eta zaurgarritasun horrekin jarraitzen dutenak, beraien guraso eta irakasleak.

Ekintzak:

- 1- Adituen bitartez drogamenpekotasun prebentzio saioak lantzea.

- 2- Maila espezifiko zein ez-espezifikotik, irakasleak menpekotasunen prebentzioan trebatzea.
- 3- Irakasleriari orientazio eta laguntza eskaintzea.
- 4- Ikastetxeko errealitatearen diagnostikoa egitea.
- 5- Kontsumoaren inguruko araudi haustea dela eta, ekintza-protokoloaren gauzatzea.
- 6- Familiekin lanketa bat egitea

10) Proiektua: “Arriskuak murrizteko tailerrak”

Helburu nagusia:

Arriskuak gutxitzea eta jokabide arduratsuak sustatzea.

Helburu zehatzak:

- Substantzia ezberdinak hartzeak dakartzan ondorio kaltegarriak zeintzuk diren jakitea eta aztertzea prebenitu ahal izateko.
- Hausnarketa sustatu drogei lotutako estereotipo eta mitoen inguruan.
- Kontsumoaren aurrean auto-kontrolerako eta auto-babeserako jarraibideak ematea.
- Osasuna eta ondo pasatzea bateragarriak direla ikustaraztea.

Hartzaileak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailatik, Dibertsifikazio gelak, Prestakuntza Zikloetako ikasleak, Lanbide Heziketako ikasleak eta Usurbilgo autoeskoletako ikasleak.

Ekintzak:

- 1- Programa ezberdinen bitartez, maila espezifiko zein ez-espezifikotik eta osasun heziketa helburu izanik, irakasleak drogamenpekotasunen prebentzioan trebatzea.
- 2- Adituen bitartez menpekotasun prebentzio saioak lantzea.
- 3- Adituek ere irakaslegoaren kezkak entzun eta elkar lanean egoera hauei irteera egoki bat emateko babesa eskaintzea.

FAMILI EREMUAN

11) Proiektua: “Guraso trebetasunak lantzen”

Helburu nagusia:

Adinez txikikoen eta euren familien ongizatea, indartu, hobetu edo areagotu, arrisku faktoreak murriztuz eta babes faktoreak bultzatuz.

Helburu zehatzak:

- Guraso eta seme-alaben arteko komunikazio hobetzea.
- Guraso eta seme-alaben arteko lotura indartzea.
- Gurasoen auto-estimua, hobetu, indartu eta areagotu.
- Gatazka konponketarako gaitasuna handitzea.
- Seme-alaben momentu ebolutiboa ezagutzea.
- Seme-alaben heziketaren inguruko hausnarketarako espazio bat eskaintzea.

Hartzaileak:

Arrisku adierazleak dituzten eta hori dela eta Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileak edo hezkuntza zentruetan identifikatzen diren famili zaurgarriak.

Ekintzak:

- 1- Tartekako formazio saioak.

AISIALDI EREMUAN

12) Proiektua: “Substantzien azterketaren proiektua: Testing”

Helburu nagusia:

Jarrera arduratsuak sustatzea legezkoak ez diren substantzien kontsumoari lotutako arriskuen gestioari dagokionean.

Helburu zehatzak:

-Legezkoak ez diren substantziak hartzearekin lotuta dauden arrisku-egoeratan erabakiak hartzeko orduan informatuta egotea.

-Jendea kontzientziaztea arriskuen programan parte har dezan eta kontsumoaren oinarrietan dauden arrazoiei buruzko hausnarketa egin dezaten laguntzea.

-Erabiltzaileak ohartaraztea legez kanpoko substantziek ez daukatela ia inolako kontrol sanitariorik eta aizunketa izan dezaketela.

-Informazio kuantitatibo eta kualitatiboa lortzea substantzia berriei buruz eta kontsumitzeko ohiturei buruz.

Hartzaileak:

Legez kanpoko substantziak hartzen dituzten pertsonak.

Ekintzak:

1- Legez kanpoko substantzien analisiak gauzatzea, baimendutako eta hortara bideratutako gunean.

13) Proiektua: “Gidariei jaietan alkohol tasa neurtzea”

Helburu nagusia:

Alkohol gehiegi hartzeak izan ditzakeen ondorio kaltegarrien berri ematea eta horren inguruko sensibilizazio lana egitea, ondorio horiek prebenitzeko: istripuak, isunak eta lesioak.

Helburu zehatzak:

-Herritarrek kontzientzia hartzea alkohol kontsumoari lotutako arriskuei buruz.

-Alkohola hartzen dutenek kontsumoan auto-kontrol neurriak sartzea.

-Autoan jendea eramango dutenei informazioa ematea.

Hartzaileak:

Alkohola kontsumitu duten eta auren alkoholemia neurria jakin nahi duten 18 urtetik gorako pertsonak.

Ekintzak:

1- Jai egunetan alkoholometro postua egotea herriko guneko esanguratsuren batean.

GAZTE EREMUAN

14) Proiektua: “Arrisku edo zailtasun egoeran dauden adin gabekoekin esku-hartze proiektu sozio edukatiboa”

Helburu nagusia:

Gazteen aisialdiarekin, arriskuak prebenitzea euren aisialdian aukerak bilatuta.

Helburu zehatzak:

- Esku-hartzeko gizarte sare bat sortzea.
- Gazteentzako erreferentzi guneko izango den eremu fisikoa sortzea.
- Gune eta baliabide alternatibak sustatzea.
- Familia egituretan egon daitezkeen arrisku egoerak ikustea, arazoak izango dituzten ume eta gazteen kasuak prebenitu ahal izateko.

Hartzaileak:

Gizarte bazterketa egoeran aurkitzen diren 11-17 urte bitarteko gazteak.

Ekintzak:

- 1- Gazte Lekuko hezitzaile eta Ziortza aisialdi taldearen bidez ikastaro-tailer ezberdinak egitea. (Break Dance, Graffiti, ile apainketa,...).
- 2- Gazteak elkartzen diren lekuetara joatea.
- 3- Aisialdian alternatiba ezberdinak eskaintzea.

15) Proiektua: “Kontsumoen aurrean neurri alternatiboak”

Helburu nagusia:

Neurri pedagogikoen bitartez, nerabeen droga kontsumoen inguruko esku hartzea.

Helburu zehatzak:

- Legea ez betetzerakoan ondorio bat izatea.
- “Denbora” izatea, isunaren ordezkia.
- Bakoitzaren kontsumoaren inguruan hausnarketa bat egitea.
- Familiarekin harremanetan jartzea eta esku hartzea.

Hartzaileak:

Edozein adingutxiko edo nerabe, alkohol edota droga ilegalak kontsumitzen dituenak.

Ekintzak:

- 1- Udaltzaingoak kontsumo hauen aurrean esku hartu ondoren, taldeak sortuko dira (udal edo bailara mailan) modu hezitzaile batean gazteekin lanketa bat garatzeko.
- 2- Adingabeen gurasoekin lanketa bat egitea.

HEZKUNTZA EREMUAN

HEZKUNTZA EREMUAN	Orain arte egin da	2019				2020				2021				2022			
		1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERAK																	
Gazte zaugarriak																	
1- Adituen bitartez drogamenpektasun prebentzio saioak lantzea.																	
2- Maila espezifiko zein ez-espezifikotik, irakasleak menpektasunen prebentzioan trebatzea.																	
3- Irakasleriari orientazio eta laguntza eskaintzea.																	
4- Ikastetxeko errealtatearen diagnostikoa egitea.																	
5- Kontsumoaren inguruko araudi haustea dela eta, ekintza-protokoloaren gauzatzea.																	
6- Familiekin lanketa bat egitea																	
Arriskuak murrizteko tailerrak																	
1- Programa ezberdinen bitartez, maila espezifiko zein ez-espezifikotik eta osasun heziketa helburu izanik, irakasleak drogamenpektasunen prebentzioan trebatzea.																	
2- Adituen bitartez menpektasun prebentzio saioak lantzea.																	
3- Adituek ere irakaslegoaren kezkak entzun eta elkar lanean egoera hauei irteera egoki bat emateko babesa eskaintzea.																	

FAMILIA EREMUAN

Orain arte egin da	2019				2020				2021				2022			
	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERAK																
1- Tartekako formazio saioak.																

AISIALDI EREMUAN

	Orain arte egin da	2019				2020				2021				2022			
		1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERA																	
Testinga																	
1- Legez kanpoko substantzien analisiak gauzatzea, baimendutako eta hortara bideratutako gunean.																	
Gidariei alkohol tasa neurtzea																	
1- Jai egunetan alkoholimetro postua egotea herriko gune esanguratsuren batean.																	

GAZTEEN EREMUA

GAZTEEN EREMUA	Orain arte egin da	2019				2020				2021				2022			
		1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERAK																	
Arrisku edo zailtasun egoeran dauden adin gabekokekin esku-hartze proiektu sozio edukatiboa																	
1- Gazte Lekuko hezitzaile eta Ziortza aisialdi taldearen bidez ikastaro-tailer ezberdinak egitea. (Break Dance, Graffiti, ile apainketa,...).																	
2- Gazteak elkartzen diren lekuetara joatea.																	
3- Aisialdian alternatiba ezberdinak eskaintzea.																	
“Kontsumoen aurrean neurri alternatiboak”																	
1- Udaltzaingoak kontsumo hauen aurrean esku hartu ondoren, taldeak sortuko dira (udal edo bailara mailan) modu hezitzaile batean gazteekin lanketa bat garatzeko.																	
2- Adingabeen gurasoekin lanketa bat egitea.																	

1.5.3-PREBENTZIO EGOKITUA

Helburua:

Oso zaugarriak diren pertsonengan arrisku-faktoreak eta kontsumoaren arriskuak murriztea, erabilera problematikoak saihesteko.

16) Proiektua: “Erretzeari uzteko proiektua komunitate eremuan”

Helburua nagusia:

Trebetasunak landu eta ematea erretzeari uzten laguntzeko.

Helburu zehatzak:

- Tabakoaren arazoaren aurrean egunero aplikagarriak diren estrategiak, prebentziozkoak eta aringarriak ezartzea.
- Gaiari buruzko oinarritzko Legedia ezagutzera ematea.
- Tabakoa kontsumitzen duen jende kopurua gutxitzea.
- Tabako kontsumoak osasunerako dituen kalteak murriztea.

Hartzaileak:

Erretzeari utzi nahi dioten guztiak.

Ekintzak

- 1- Osasun Zerbitzuetako lekuetan informazioa eskuragarri egotea, kartelak, triptikoak, etab.
- 2- Osasun Zerbitzuetatik ikastaroak burutzea.
- 3- Erretzaileei erretzen uzteko baliabideak eskaintzea.

PREBENTZIO EGOKITUA

	Orain arte egin da	2019				2020				2021				2022			
		1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa	1. Hiruhilekoa	2. Hiruhilekoa	3. Hiruhilekoa	4. Hiruhilekoa
JARDUERAK																	
“Erretzeari uzteko proiektua komunitate eremuan”																	
1- Osasun Zerbitzuetako lekuetan informazioa eskuragarri egotea, kartelak, triptikoak, etab.																	
2- Osasun Zerbitzuetatik ikastaroak burutzea.																	
3- Erretzaileei erretzen uzteko baliabideak eskaintzea.																	

1.5.4-PREBENTZIO ZEHATZA

Tokiko Planean esku-hartze konkreturik proposatu behar ez dugun arren, honako hau kontutan hartu beharko litzateke.

Substantzien kontsumoari lotzen zaion heriotza-tasa goiztiarraren murrizketari eman beharko litzaioke lehentasuna; honetarako prebentziozko edo terapeutikoak diren neurriak erabiliz.

Bigarren lehentasuna, ezgaitasun organiko edo psikiko larriak sorrarazi litezkeen lotutako erikortasuna saihestea izango litzateke.

Ondoren, biztanleriaren segurtasun gabeziaren murrizketa eta drogen kontsumoak besteengan izan litezkeen eragin larriak.

Gainera, mendekotasuna, berez, buruko desoreka izan arren (batzuetan desoreka organiko bezala definitua), askotan ez da prebenitu beharreko gaitz nagusia, hilkortasun goiztiarra, IHESaren transmisioa, biztanleriaren segurtasun gabezia... saihestea hobea izan daiteke.

1.5.5.-ZEHARKAKO JARDUERA ESTRATEGIAK

Aurkeztu ditugun proiektu guztiez gain, garrantzizkoa deritzogu Tokiko Plana aurrera eramateko orduan, elkar-lanean oinarritu behar garela azpimarratzea.

Tokiko Plana gauzatzeko garrantzitsuak izan diren eragileek, nolabaiteko jarraipena eman diezaiokete hasitako lanari. Asmoa, eragile guztiek eztabaidarako, hausnarketarako, balorazioetarako, etab.-erako topaleku bat izatea da. Talde honek erakunde parte-hartzaile egonkor bat osatuko luke. Honela, lan-taldeetan banatuaz, zailtasunak, konponketak eta egoera berriak zeintzuk diren komunean jarri eta eztabaidatu ondoren, herrian gauzatzen diren programen nondik norakoak agerian geratuko lirateke, eta koordinazio lana benetan egin. Udaletxearen parte-hartze eta inplikazioa funtsezkoa izango litzateke ekite honetan.

Talde honetatik lortutako informazioa erabilgarri izango da programen ebaluaketa orokorra egiteko ere.

Prebentzio komunitarioaz jardun dugunaren paradigma litzateke talde hau. Komunitatearen partaidetza lortzea eta baliabide ezberdinen koordinazioa. Ez soilik komunitatearentzako lan egitea, baizik eta komunitatetik.

Halaber, Planean Zeharkako Jarduera Estrategiak zehaztu dira, eta garatuko diren ekintza guztien barnean hartuko dira:

- **ESKAINTZAREN KONTROLA:** Arauketaren bidez, drogen eta mendekotasunak sor ditzaketen jardueren (ausazko jokoak...) eskaintza murriztea, eta drogen legez kanpoko trafikoa kontrolatzea, indarrean dagoen araudia betearaziz
- **PREBENTZIO UNIBERTSALA:** babes-faktoreak bultzatzea, eta jokabide eta ohitura osasungarriak sustatzea, mendekotasun-jokabideak saihesteko.
- **PREBENTZIO SELEKTIBOA ETA EGOKITUA:** pertsona eta kolektibo urrakorren premiei egokitutako prebentzioa eskubide gisa bermatzea.
- **LAGUNTZA TERAPEUTIKOA:** EAEko laguntza-sarea egokitzea droga eta mendekotasunen fenomenoak sortzen dituen laguntza-behar guztiei erantzuteko, bai iraganetik datozenak, bai oraintsu agertutakoak.
- **PREBENTZIO ZEHATZA, TXERTAKETA ETA GIZARTERATZEA:** baliabideen egitura jarraitua sustatzea, arriskuak murriztuz eta kalteak arinduz, bazterkeria handian dauden mendekoak artatzeko aukera emango duena, eta mendekotasun-arazoak dituzten edo izan dituzten pertsonak gizarteratzeko aukera emango duena.
- **KOORDINAZIOA ETA PROFESIONALENTZAKO LAGUNTZA:** Erakunde publikoetako eta gizarte-ekimeneko lantaldeen eraginkortasuna eta efizientzia areagotzea, haien eginkizunerako beharrezkoak diren euskarri tekniken hobekuntzaren bidez.

1.6 Ebaluatzeko adierazleen definizioa

A) Sarrera

Usurbilgo Planaren jarraipen eta ebaluazio mekanismoak kontuan hartzen ditu, planaren amaierako ebaluazioari begira, INPAKTU edo EMAITZA ADIERAZLEAK, horiek baitira Planak dituen helburuak 2023rako.

Hau da, Planeko ardatz, helburu eta jarduera ildo guztiak 2023an adierazle horiek hobetzera bideratuta daude, egungo balioerekiko edo eskura dagoen berrienarekiko.

Planaren jarraipen operatiboaren eta amaierako ebaluazioaren ardura adikzioen arloan eskumena duen Zuzendaritzarena izango da (gaur egun Usurbileko Udaletxeko teknikariarena). Zuzendaritza hori beste organismo eta erakunde batzuekin elkarlanean arituko da jarraipen hau egiteko behar den informazio kuantitaboa eta kualitatiboa jasotzeko.

Jarraipen operatiboa urtean behin egingo da, eta ildoen pixkanakako ezarpena ebaluatzeko aukera emango duen prozesuaren zenbait adierazletan oinarrituta egingo da. Pertsona kopurei buruzko adierazle guztiak sexuaren arabera bananduko dira.

Planaren amaierako ebaluazioa, hurrengoaren garapenerako oinarria izango da.

B) Plana Ebaluatzeko adierazleak

Usurbilgo Tokiko Planaren xedea, adikzioa sortzen duten sustantzien kontsumoa eta jokabideko adikzioak sortzeko arriskua ahalik eta gehhien murritzea da eta, ondorioz, pertsonen osasunean eta beraien familietan izango dituzten eraginak, eta baita komunitatean eta biztanleri osoan ere.

Adierazleei buruzko informazioa Euskadi ESTUDES eta EDADES inkestatik lortuko dira, baita herri mailan eginiko galdeketa edota talde eztabaidetatik ateratako informazio baliagarritik ere, baita beste arlo batzuetan egindakoetatik ere, esaterako, osasunaren arloan, prebentziorako laguntzak ebaluatzekoan, kalteak murriztekoan, adikzioen tratamendu eta gizarteratzean, osasun mentaleko zentroetan eta arlo soziosanitarioan egindakoetatik, baita, halaber, ezagutza hobetzeko eta kontsumoak prebenitu edo murrizteko egindako ikerkuntza ekintzan ikerlanetatik eta eskuhartzeetatik ere.

1. Ardatza. Adikzioen prebentzioa eta osasunaren sustapena

Osasunaren sustapena bultzatzea, pertsonak gaitu daitezen beren osasun determinatzaileen gaineko kontrol handiagoa izateko, inguruneak garatuz eta substantzien eskaria murriztuz eta adikzioarik gabeko bizitza bat izaten laguntzen duten gaitasunak eskuratuz. Eta, aldi berean, babes faktoreak indartzea, adikzioen eragina eta prebalemtzia murriztea eta adikziora garamatzaten arrisku faktoreak eta jokabideak minimizatzea.

Prozesuaren adierazleak

1. Parte hartzaileen kopurua areagotzea prebentzio unibertsaleko proiektuetako arlo hauetan: a) eskolan, b) familian eta komunitatea. Guztira, eta sexuaren arabera bereizita.
2. Parte hartzaileen kopurua areagotzea substantzien kontsumoei eta adikzioa sortzeko arriskua duten gehiegizko jokabideei lotutako arriskuak arintzeko proiektuetan, eta arrisku egoeran edo ahultasun egoeran dauden kolektibo eta pertsonengan arlo hauetan: a) eskola, b) familia, c) aisia eta jaia eta d) komunitatea. Guztira eta sexuaren arabera bereizita.
3. Parte hartzaileak areagotzeko alkohol, tabako eta kalamuaren kontsumoaren prebentziorako programa espezifikoa. Guztira eta sexuaren arabera.
4. Esku hartzeko eredu bat garatzea drogen kontsumoa eta bestelako adikzioak murrizteko tokiko mailan. Eredu horrek komunitateari eta hiri ingurunekei determinatzaileei buruzko informazio fidagarria izango du.

Inpaktu adierazleak (emaitza, helburua)

5. 15 urtetik 24ra bitarteko gazteek alkohola, kalamua eta tabakoa kontsumitzen hasteko adina (lehenengo aldiz probatzen den adina) atzeratzea, sexuaren arabera banatuta.
6. Tabako, alkohol, kalamu bestelako lege kanpoko droga eta psikofarmakoen gaur egungo eta eguneroko kontsumo tasak murriztea, 15 urtetik 24ra bitarteko biztanlerian, sexuaren arabera banatuta.
7. Alkoholaren kontsumo intensiboaren prebalentzia murriztea 15 urtetik 24ra bitarteko biztanlerian, sexuaren arabera banatuta.
8. Gehiegizko jokoaren edo arriskuaren prebalentzia murriztea Gehiegizko Jokoaren Adierazle Kanadarraren arabera. 15 urtetik 24ra bitarteko biztanlerian eta biztanleria osoan, sexuaren arabera banatuta.

9. Interneta modu arriskutsuan edo problematikoan erabiltzeko prebalentzia murriztea, Ormanen Internetarekiko adikzio testarekin, 15 urtetik 24ra bitarteko gazteetan eta biztanleria osoan, sexuaren arabera banatuta.

10. Droga normalizatuen arriskuari buruzko pertzepzioa areagotzea: alkohola, tabakoa eta kalamua 15 urtetik 24ra bitarteko gazteetan eta biztanleria osoan, sexuaren arabera banatuta.

2. Ardatza. Eskaintza murriztea

Adikzioek sor ditzaketen substantzia eta jardueretarako sarbidea mugatzea, tolerantzia soziala murriztea horien kontsumoarekiko eta indarrean dagoen araudia era efikazean betetzen dela sustatzea.

11. Salaketa kopurua sektorearen arabera, salatzaileen arabera eta arau hauste motaren arabera.

12. Zigor kopura salaketa kopuruarekiko.

13. Zigorren ordezkio neurri alternatiboen kopurua.

14. Akordioak edo kanpainak aisialdi, merkataritza eta ostalaritzako enpresa erakundeekin.

3. Ardatza. Laguntza sanitarioa eta soziosanitarioa eta gizarteratzea

Euskadi osasun sarea eta gizarte zerbitzuak erabiliz, adikzioen eta jakabide eta kontsumo arazotsuen arriskuak eta kalteak ahalik eta txikiak izatea eta erantzun jarraitua, koordinatua eta genero ikuspegiduna ematea adikzioek dakartzaten laguntza premiei.

Prozesuaren adierazleak

15. Adikzio arazoak dituzten eta bazterketa egoeran dagoen pertsona kopurua, arreta integrala sustatzen duten baliabideen arreta jasotzen duena.

16. Adikzio arazoak dituzten emakumei zuzendutako esku-hartze espezifikoaren kopurua.

17. Osakidetza egindako esku-hartzearen kopurua tabakoa erretzeko ohitura uzteari dagokionez (esku-hartze laburra, intensiboa, motibaziozko laguntza, tratamendu farmakologikoa)

18. Sustantziarik gabeko adikzioen inguruko programa espezifikoaren kopurua.

Inpaktu adierazleak (emaitza, helburua)

19. Bazterketa egoeran dauden drogazaleentzako baliabideetan arreta jaso duten pertsonen proportzioa areaotzea (egoera horretan dagoen biztanleria guztiarekiko).

20. Tabakoa erretzeko ohitura uzteko tratamendua amaitzen duten eta erretzeari uzten dioten pertsonen ehunekoaren igoera.

21. Balorazioa egin ondoren, tratamendua hasten duten eta adikzio arazoak dituzten 18 urtetik beherako pertsonen ehunekoa.